


ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira.




LAN ARLOA EUSKALDUNTZEKO KONPROMISOA

Bergarako Udalaren ekimenez, herriko 38 entitatek sinatu dute Harixa hitzarmena, lan esparrua euskalduntzeko; asteon aurkeztu dute, Miguel Altuna Lanbide Heziketa Institutuan. / 20

Martitzenean, Bergarako Miguel Altunan, Harixa hitzarmena sinatu zuten enpresetako ordezkariak, Udaleko eta Miguel Altunako ordezkariekin. XABIER URZELAI

72.000 metro kubiko ur galdu, hoditerian izandako matxuragatik

Irailaren 26tik urriaren 17ra bitartean galdu da ur kopuru hori Arrasaten, eta horrek 63.250 euroko kostua eragin du / 8



Ur hoditerian izandako zulo horretatik galdu da ura. ARANTZAZU EZKIBEL

Hemen
garbiketak

Inoiz baino garrantzitsuagoa

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORATZA
T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com



Goienagusi elkarteak lehendakari izandakoak omendu zituzten atzo Kulturaten eginiko ekitaldian, Arrasaten. MIKEL AGIRRE

10. urteurrena ospatu du Goienagusi elkarteak

Elkartearen ibilbidearen errepasoa egin zuten Kulturateko ekitaldian, atzera begiratu eta aurrerapausoak emateko. Horrez gain, orain arteko elkarteak omendu zituzten, eta haiek eginiko jarduna aitortu. Instituzioetatik ere lana goraiatu zuten

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria DEBAGOIENA

Zahartze prozesu hobea, luzeagoa, aktiboagoa, osasungarriagoa, kulturalagoa eta parte hartzaileagoa edukitzeko asmoz sortu zen Goienagusi elkarteak. Iaz bete zituen hamar urte, baina atzo egin zuten ospakizuna, hainbat arrazoirengatik behin baino gehiagotan atzeratu ostean.

Urte horietan guztietan, ordea, helburuak erdiesteko lanean aritu dira. Topagune bat eskaini die pertsona nagusiei, hala nola ezagutzak zabaltzeko, gaitasun intelektualak trebatzeko, osasun fisikoa eta psikikoa zaintzeko eta aisialdiaz gozatzeko, lagun arteko harremanak sustatzearrekin batera.

Hala, ibilbidearen errepasoa egin zuten Kulturateko areto nagusian eginiko ospakizunean, Arrasaten, *Atzera begirada bat, aurrera egiteko* lelopean. Elkarteak dozenaka bazkidez gain, hainbat gonbidatu batu ziren ekitaldian, eta, tartean zeuden, besteak beste, Debagoieneko hainbat alkate eta udal ordezkari eta Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako sailburua.

Iñaki Aranburuk hartu zuen lehendabizi hitza, elkarteak

egungo zuzendaritza batzordeko kideetako batek, Rosa Urreta egungo lehendakaria ezin izan baitzen ekitaldira joan. Eta, urteurrenaren leloari jarraiki, azaldu zuen atzera begiratu nahi dutela, era horretan, jatorrira jauzi egin eta aurrerapausoak ematen jarraitzeko.

Ibilbideari errepasoa

Hain justu, 2011ko maiatzaren 27an sortu zuten Goienagusi, eta hastapenak izan zituen gogoan Bixente Zugasti taldekideak. Azaldu zuenez, Matia Fundazioaren Mugabe pertsona nagusientzako programa dago oinarrian. Esperientzia eskolak

**"BATZARKIDEEI
ESKERRAK, ASKO
LAGUNDU ZIDATEN;
HAIEI ERE AITORTZA"**

MAÑOLI EZENARRO, LEHENDAKARI OHIA

**"HAU BAILARAKO
ONTZIOLETAN ERAIKI
ZUTEN EZ-GAZTEK,
ETA ASMATU ZUTEN"**

JOSE MARI ERAÑA, LEHENDAKARI OHIA

antolatzen hasi zen Gipuzkoako zenbait herritan, eta baita Arrasaten ere: "Baina elkarte bat sortzeko hautua egin zen, antzeko jarduna izango zuena, baina era autonomoan".

Horrela sortu zuten elkarteak, eta bide horretan parte hartu zutenak ere asko izan ziren.

Lehendakariei omenaldia

Hamar urtean egondako lehendakariak omendu zituzten. Zugastiz gain, aitortza jaso zuten Begoña Markaide, Lidia Matilde de Luko, Belen Arrondo, Matilde Sainz, Mañoli Ezenarro eta Jose Mari Eraña lehendakari

**"ELKARTE BATI EMAN
BEHAR ZAIZKIO
AUKERAK AURRERA
JARRAITZEKO"**

MARIA UBARRETXENA, ARRASATEKO ALKATEA

**"KONTUA EZ DA
BIZITZARI URTEAK
GEHITZEA, URTEEI
BIZITZA BAIZIK"**

BEATRIZ ARTOLAZABAL, SAILBURUA

ohiek. Are gehiago, azken biek hitza ere hartu zuten.

Ezenarrok, lehendakari izan zeneko jarduna gogoan, ikasitakoa nabarmendu nahi izan zuen, beste taldekide batzuekin batera. "Eskerrak batzarkide guztiei, asko lagundu zidatelako. Bada, haiei ere aitortza".

Erañak, berriz, itsasontzi baten metafora erabili zuen elkartearen jardunaz hitz egiteko. "Debagoieneko ontzioletan eraiki zuten, 36 ez-gazte ausart aritu ziren horretan, eta asmatu egin zuten". Haren arabera, hainbat itsaso zeharkatu ditu itsasontziak ordu geroztik, eta mota askotako "arrain freskoak" harrapatu ditu; hitzaldi "interresgarriak", adibidez. "Tente eutsi die enbata handiei ere; azkenak COVID-19 du izena, baina onik atera ginen. Baina orain, tripulazioa handitu egin da, parte hartzea sustatuz eta batzorde berria sortuz". Uste du itsasontzia "norabide onean" doala, eta haizea alde duela.

Horren adibide da 63 bazkideekin ekin ziola bideari, eta, egun, 215 bazkide dituela.

Elkartearen lana goraiatu

Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak ere hitza hartu zuen, Udalaren izenean eskerrak emateko, bereziki, kudeaketan ibilitako guztiei. "Horrelako elkarte bati eman behar zaizkio aukerak aurrera jarraitzeko, hazten jarraitzeko, eta intereseko gaietan sakontzen joateko".

Eta Artolazabalek, berriz, egindako jardunak pertsona nagusiengan duen eragina nabarmendu zuen: "Kontua ez da bizitzari urteak gehitzea, urteei bizitza gehitzea baizik".

Azaroaren 11n banatuko dituzte Tokikom sariak

Hamar urteko ibilbidean nabarmendutako komunikazio proiektuak sarituko dituzte

A.R.K. DEBAGOIENA

Tokikom sariak azaroaren 11n egingo du Tokikom sariak banatze-ko ekitaldia, ArantzazuLAB aretoan, eta aurtengo ekitaldia berezia izango da, komunikazio taldeak bere sorreraren 10. urteurrenarekin lotu nahi baitu. Hala, hamar urte hauetan nabarmendu diren tokiko komunikazio proiektuak sarituko dituzte, *Elkarrekin bidea eginez* lelopean.

Sari banaketa baliatuko dute taldearen hamar urteko historia laburbiltzen duen ikus-entzuzko lan bat estreinatzeko. Dokumentalean, taldeak hamarkada honetan egin duen ibilbidea kontatuko da, zuzenean parte hartu duten lekukoen azalpenarekin.

Horrez gain, zenbait mahai-inguru ere egingo dituzte goizean, toki komunikabideen iritziak trukatzeko asmoz, sektoreak hurrengo urteetan mahai gainean dituen erronkak ardatz hartuta, hala nola Tokikomen funtzioa, finantzaketa eta digitalizazioaren aukera berriak.

Guztira, 74 hedabide

Beraz, azaroaren 11ko ospakizuna, batik bat, barrura begira-koa izango da, taldea osatzen duten bazkideen arteko harremanak lantzeko eta hurrengo urteetako lanean arreta jartzeko. Dena den, 2023ko lehen hiruhilekoan ospakizun publiko bat ere egingo da.

Bitartean, egungo datuei dagokienez, 28 bazkidek osatzen dute Tokikom, eta 74 hedabide kudeatzen dituzte: 32 webgune, 28 aldizkari, bost telebista eta bederlatzi irrati. 240 langile dabilta lanean taldeko komunikabideetan, eta ia hamarretik sei emakumeak dira. Are gehiago, langile guztiek eginiko lanari esker, Euskal Herri osoko 297 udalerritara iristen dira.

Amasorrain, Kutxa Banku Fundazioko lehendakari

Kutxa Banku Fundazioko patronatuko kide izateko proposamena jaso zuen Rafael Amasorrain bergararrak. "Zalantzak" izan zituen, erretiratuta baitago, baina aurrera egin zuen. Orain, lehendakari izendatu dute, eta "erantzukizunez" hartu du ardura

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria DEBAGOIENA

Rafael Amasorrain bergararra Kutxa Banku Fundazioko lehendakari izendatu dute, berriro berri den instituzioko patronatuak hala erabakita. Carlos Tamayoren lekukoa hartu du, eta lau urteko ibilbideari ekin dio.

Dena den, Amasorrainek, lehendakari izatea baino gehiago, patronatu berriaren izendatzea nabarmendu du: "Orain dela bizpahiru hilabete esan zidaten patronatuko kide izateko aukera zegoela, eta lehendakari izendapena ere hortik etorri da". Adierazi duenez, zalantzak izan zituen erabakia hartzean, azken bost urteetako ibilbidea "apurtuko" zelako, erretiratuta baitzegoen, baina baieztokaren alde egin zuen. "Ingurukoek esan zidaten sartzeko, ea azken ekarpen bat egin nezakeen edo ez".

Izan ere, ibilbide profesional luzekoa da Gipuzkoako hainbat enpresatan. Besteak beste, Ulma S. Coop-eko sustapen zuzendaria izan da, baita Ulma Embedded Solutions enpresako gerentea ere, eta Eika S. Coop-eko zuzendari nagusia. Baina 2017an erretiratu egin zen, eta, ordutik, "lasai eta gustura" egon da, "saltsetan" sartu gabe.



Rafael Amasorrain bergararra. R.A.

"INGURUKOEK ESAN ZIDATEN SARTZEKO PATRONATUAN, EA AZKEN EKARPEN BAT EGIN NEZAKEEN"

Horrez gain, politikagintzan ere aritua da, Bergarako Udaleko EAJko zinegotzia izandakoa da urte batzuetan.

Patronatuko kideak

Patronatuko kideei dagokienez, hilaren 17an eratu zen, eta Do-

nostiako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak osatzen dute. Baina parte dira Atzegi elkarte eta Maria Jesus Aranburu, Garbiñe Beraza, David Garcia, Maria Teresa Santos, Fermin Lazkano, Idoia Ibero, Mikel Mirena, Mikel Muñoa, Jose Maria Usatorre, Naiara Ugarte, Joseba Imanol Serone eta Amasorrain bera ere.

Amasorrainek, ordea, jakinarazi du ez zuela patronatuko kideen gehiengoa ezagutzen; bakarra: Usatorre. "Oñatiarra da hura, eta Mondragon korporazioan goi mailan ibilitakoa, besteak beste". Horrez gain, Lazkano ere bergararra da, baina aitortu du ez zuela ezagutzen.

Bada, patronatuko kide horiekin guztiekin jardungo du lanean aurrerantzean. Orain dela aste-bete izendatu zuten lehendakari, eta, horrenbestez, lauzpabost eguneko ibilbidea duela azaldu du, baina, printzipioz, gauzak "nahiko ondo" ikusten dituela, eta, horren harira, begirada "positibotik" begiratzen diola jardunari. "Ikusiko dugu ea ibilbideak zer dakarren. Kezka pixka bat beti dago, baina, hasiera batean, erantzukizunez, lasaitasunez eta ahalik eta ekarpen handiena eginez arituko gara lanean".

EKINTZAILTZA GARAIAN

Garaia Parke Teknologikoa, zero kilometroko ekosistema ibarrean

Ordezkarien ustez, bertatik eta bertarako sortutako sare bat da, eta horrek onurak dakartza eskualdearentzat

A.R.K. DEBAGOIENA

XX. mendearen bigarren erdialdean hasi zen hedatzen zero kilometro kontzeptua, batez ere, lehen sektoreko elikagaiei lotuta, baina, pixkanaka, beste sektore batzuetara ere zabaldu da, Garaia Parke Teknologikoko ordezkarien hitzetan.

Haien arabera, 2000. urteaz geroztik, enpresa eta berrikuntza ingurune bat ari da eraikitzen Debagoiengan, Garaia Parke Teknologikoa litzatekeena, eta, era horretan, ekosistema bat sortu da, zero kilometroko ekintzailetza eta berrikuntza ingurunea oinarri izango lukeena. "Egun, 64 enpresak eta 2.500 pertsonak baino gehiagok osatzen dute, baina, bailara osoari begiratuz gero, zero kilometroko enpresa eta langile sare askoz handiago batez ari gara hitz egiten".

Baditu onurak ere

Ordezkarien arabera, bertatik eta bertarako sare honek, gainera, onurak ditu, eta horietako bat da bailarako gazteek ikasketak bertan egiteko aukera dutela, kanpora joatera "behartuta" egon gabe. "Horrek jatorrizko kultura eta balio bereko gizartean egokitzapena errazten du". Dena den, beharra egonez gero, aitortu dute eskaintza horietako gehienek badituztela atzerrira joateko eta beste eza-gutza batzuk eskuratzeko aukerak, eta, hautazko hautu bezala,

"aberasgarriak" izan daitezkeela.

Are gehiago, uste dute ekosistema honek ematen duela aukera "kalitatezko lanpostu duinak" aurkitzeko Debagoiengan, besteak beste, proiektu jasangarriak eraikiz eta sustatuz. "Enpresa horiek etorkizunerako behar duten lehiakortasuna lantzeko, gainera, gertuko zentro teknologikoak eta ikerketa eta garapen zentroak ere badituzte". Horiei eskerrak, nabarmendu dute eza-gutza partekatu eta garatu daitezkeela.

Eta zeharkako abantailak

Aukera horiek guztiak bailaran egoteak zeharkako abantailak ere badituela adierazi dute ordezkariak; esaterako, herrietako kaleetan bizitza eta dinamismoa mantentzea eta indartzea. "Hiriburuetara ihes egiten utziko bagenie, eremu geografikoa hustea ekarriko luke, eta tokiko aberastasuna galtzea. Horregatik da hain garrantzitsua balioa ematea hemen dugun zero kilometroko ekintzailetzari; ezagutza eta ikerketa ekosistema hau zaindu beharreko altxor bat da".

"BALIOA EMAN BEHAR ZAIO HEMEN DAGOEN ZERO KILOMETROKO EKINTZAILTZARI, ETA ZAINDU"



Ontziratze-soluzioen diseinu eta fabrikazioan espezializatutako enpresa hainbat lanpostutara apuntatu nahi duten pertsonen bila ari da:

| | |
|---------------------------|---------------|
| Ingeniaritza Elektronikoa | Mekanizatua |
| Ingeniaritza Mekanikoa | Galdaragintza |
| Muntaketa | |

Gehiago jakin nahi duzu?
Eskaneatu QR kodea!





Felisa Mujika, Kotoiaren emakumeak erakusketan, iaz. LABORATORIUM MUSEOA

Kotoia oihal bihurtzen zuenaren lekukotza

Jon Abrilek kaleratu berri duen 'Isildutako eskuak' liburuan gerra osteko Euskal Herriko emakume langileen testigantzak jasotzen dira; tartean, Felisa Mujika Garitano bergararrarenak. San Antonioko Algodoneran egin zuen lan 1937tik 1950era

Hasier Larrea BERGARA

Hamaika lanbidetako hamalau emakume elkarrizketatu ditu Jon Abril kazetariak *Isildutako eskuak* liburuan, haien ekarpen sozial eta historikoa ikusgarri egiteko asmoz. "Gizonek idatzi eta kontatutako historian emakumea alboratua" izan dela jakitun, frankismoan isilaraziak izan zirenei ahotsa eman nahi

izan die modu horretan. Euskal emakumeek jardun zuten lan-esparruak ditu hizpide irakurgaiak, haien testigantzetan oinarrituta.

Hala, XVII. mendetik XX. mendera bitartean Bergarako harribitxia izan zen ehungintza sektorearen bilakaera kontatzen du, Felisa Mujika Garitanoren (Bergara, 1923) lekukotza estimatuarekin. Mujika

gerra garaian hasi zen San Antonioko Algodoneran lanean, 14 urterekin, eta 27 urterekin utzi zuen lana; hain zuzen, ezkondu baino lehentxeago, emakume ezkonduetako lanetara mugatu behar baitzuten derrigorrez euren egitekoa frankismoan.

Labegaraietako Balento base-rrian jaiotako alabarentzat "nor-

mala" zen garai hartan neskato nerabeek fabriketan lan egitea. Algodoneran, esaterako, hiru emakumetik batek ez zituen 16 urte beteak.

Urdin kolore bereizgarriko oihalak egiteko prozesuan hiru urrats nagusitzen ziren: haria egin, oihala egin eta oihala tindatu. Emakumeek lehen bi pausoetan hartzen zuten parte. Eskuz tiratzen zuten kotoia, hari bihurtzeko, eta material hori ehundegiko makinatan sartzen zuten Mujikak eta lankideek oihala egiteko. Makinatik ateratakoan, gainbegiratu egiten zuten, haririk edo zuntzik ez zuela ziurtatzeko. Fase horretan, zuri egoten zen oihala oraindik, tindatzea gero egiten zutelako gizonetzkoek, kolore finkatzailez betetako kapeletan bustiz.

Generoaren bereizketa

Gizonezkoek lanaldi jarraitua egiten zuten; emakumezkoek, aldiz, zatikatua. Mujikaren arabera, "emakume ezkongabeek etxea gobernatzeko ardura" izaten zutelako egiten zen bereizketa hura: "Hortaz, batzuk 06:00etan sartu eta 10:00etan irteten ginen, etxeko lanak egiteko; 14:00etan itzultzen ginen fabrikara eta 18:00etan lanaldia amaitu; 10:00etatik 14:00etarako txanda beste emakume batzuek egiten zuten, eta haiek ere 18:00etan bueltatzen ziren, eta 22:00ak arte aritu".

Soldatetan nabaria zen genero arrakala, gizonetzkoen erdia kobratzen baitzuten emakumezkoek: "Ez zuten oso ondo ordaintzen, baina ederto zetorren etxeko premiak estaltzeko". Gizonak igo zitezkeen kategoriaz; ez, ordea, emakumeak: "Guztiok kobratzen genuen-eta soldata finko berbera".

Bitxikeria moduan, eta etxetik kanpo lan egiten zuten neskak "aurrerakoiak" zirela frogatzeko, Mujikak kontatzen du ahizpen artean nola izan zen praktikak jantzen zituen bakarra, eta ekin-tza hura "gizonek gonak edo belarritakoak" jartzearekin alderatzen du.

Ehungintzaren bilakaera

500 urtean landu izan da oihala Bergaran, zenbait materialekin. 1497koa da Errege-Erregina Katolikoen Bergarako oihalgileen ordenantzaren onarpena. XVII. menderako ospetsuak ziren Bergarako oihalak; lihoa zuten orduan lehengai nagusi, harik eta XIX. mende erdian sortutako San Antonioko Algodoneran kotoia erabiltzen hasi ziren arte. Deba ibaiko ura baliabide garrantzitsua izan zen sektorearen bilakaeran, garbiketarako, kardatzeko, tindatzeko eta lurrun-makinen energia sortzeko. Bergarako mahoi urdinak XIX. mende amaieran jo zuen goia, langile-klasearen zabalkundeak lanerako arropen ekoizpena ugaritu zuenean. 36ko gerraren ostean, hamasei ehun-lantegi zeuden herrian, Espainiako laneko arropen %90 ekoizteko gaitasunarekin. XX. mende bukaerako deslokalizazioek Algodonera ixtea ekarri zuten, eta Tavex enpresak jarraitu zuen galtza bakeroak esportatzen, 2010era arte. Hamabi urte dira, beraz, Bergarako nortasunaren parte den oihalgintza eten zela.

ZORTZI ORDUKO LANALDIAZ GAIN, ETXEKO LANAK EGITEKO ARDURA ZUTEN EMAKUMEEK

Iriarteri babesa Aldundirako

Debagoieneko EH Bilduko ordezkariak Donostian izan ziren joan den domekan, Maddalen Iriarte Okiñena Gipuzkoako ahaldungai nagusiaren aurkezpen ekitaldian. Egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egingo dien Gipuzkoa eraikitzeke Iriarte "ezinbestekoa" dela jota, koalizio abertzaleko debagoiendarrek "babes osoa" erakutsi zioten.



DEBAGOIENeko EH BILDU

Eider Mendoza, diputatu nagusirako EAJren hautagaia

EAJren Gipuzko Buru Batzarrak Gipuzkoako Foru Aldundirako hautagaiak aurkeztu dizkie alderdikideei asteon. Hala, Eider Mendoza Larrañaga hondarribiarra izango da diputatu nagusirako hautagaia 2023ko hauteskundeetan, "gaitasun profesionala eta politikan nahiz erakundeetan eskarmentua duelako". 2019az geroztik Aldundiko bo-

zemaile eta Gobernantza diputatua da.

Lau hautesbarrutietarako proposatutako 39 hautagaien artean hiru debagoiendar daude; hain zuzen, Deba-Urola hautesbarrutirako aurkeztuko direnak: Mاريو Etxegoien Arzuaga oñatiarra, Ander Garay Zabaleta arrasatearra eta Aintzane Oiarbide Iruretagoiena bergararra.

Gipuzkoako Batzar Nagusietako Lehendakarietzarako, aldiz, Xabier Ezeizabarrena Saenz aurkezten du EAJk.

Era autonomoan bizi daitezkeela frogatzera

Atzegi elkarteak 'Nire erara bizitzeko erronka' kanpaina aurkeztu du Arrasateko osoko bilkuren aretoan. Aurtengo kanpainak adimen desgaitasuna duten pertsonen modu independentean bizitzeko duten eskubidea aldarrikatzen du

Imanol Beloki DEBAGOIENA

Atzegi elkarteak Arrasateko udaletzeko osoko bilkuren aretoan aurkeztu du, asteon, 2022-2023ko ikasturteko sentsibilizazio kanpaina, *Nire erara bizitzeko erronka* lelopean. Bailarako Atzegiko hainbat kide eta euren familiak batu zituen aurkezpenak, baita udal ordezkariak ere. Kanpainaren berri emateaz batera, bizipenak elkarbanatu zituzten, eta nahi duten moduan bizi izateko gaitasuna dutela demostratu nahi dute kanpaina horrekin.

Sare sendoaren garrantzia

Gizarteko pertsona guztiak "aurrez aurre" jartzeko helburuaren atzetik, aniztasun funtzionala dutenak jendarteko eragile esanguratsu bilakatu nahi dituzte. Izan ere, modu independentean bizi diren aniztasun funtzionala daukaten pertsonak badaude gizartean, eta ez da hori frogatzeko urrutira joan beharrik. Alegia, bikotean, lagunekin, bakarrik... nahi duten moduan bizi izateko gaitasuna dute, eta denontzat bezala baita ere garrantzitsua da inguruan sare sendoa izatea: familia, lagunak, bizilagunak... Horren baitan, adimen desgaitasuna dutenen profil eta bizi-aukeren aniztasu-



Atzegi elkarteak Arrasateko osoko bilkuren aretoan egindako ekitaldia. HASIER LARREA

na ere ikusarazi gura du kanpainak.

Iñigo Alkortaren esperientzia

Arrasaten egindako aurkezpenean, horren adibide bat ezagutu ahal izan zen. Egoerak horrela eraginda, orain hamabi urtetik bakarrik bizi da Iñigo Alkorta bergararra, eta haren esperientziaren berri eman zuen, kuadrillako Nagore Iñurrategik lagunduta. "Iñigo bat gehiago izan dugu kuadrillan, testuinguru normalizatuan hazi da eta oso erraza da harekin egotea",

aipatu zuen Iñurrategik. "Bai, txikitan gaiztakeria asko egiten genituen elkarrekin", gehitu zuen Alkortak. Arrantzan eta ehizan aritzea du gustuko Alkortak, astean zehar lan egiten du eta inoren laguntzarik gabe moldatzen da etxean. Horrek baditu abantailak, baina baita desabantailak ere, "bakarrik" sentitzen delako batzuetan. Horregatik, epe ertainera pisu tutelatu batera joateko asmoa erakutsi zuen, egoera berrira egokitu eta aurrera egiteko ilusioarekin.

Gizarte osoarentzat erronka

Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak esan zuen ilusioarekin hartu dutela kanpaina Arrasaten aurkeztu izana. "Zabalkunde eman nahi diogu egitasmoari, eta adimen desgaitasuna dutentzat erronka bat da era independentean bizitzeko eskubidea errealtate bihurtzea, baina erronka bat da baita ere gizarte osoarentzat".

Formakuntzak, martxan

Bailarako erabiltzaileak hasi dira Atzegiren formakuntzetan trebatzen, eta sukaldaritzaren, garbiketaren, erosketen eta garraio publikoaren inguruko eguneroko kontuak barneratzen. Gizartean eragiteko, lau karteletan eta bideo batez osatutako kanpaina aurkeztuko dute sare sozialetan eta *atzegi.eus* atarian.

"ETXEAN INOREN LAGUNTZA GABE MOLDATZEN NAIZ, BAINA LAGUNTASUNA EZINBESTEKOA DA"



IÑIGO ALKORTA
BAKARRIK BIZI DEN ATZEGIKO KIDEA

"KOMUNITATE NATURAL BATEK EMATEN DUEN SAREA DU IÑIGOK; ELKAR ZAITZEN DUGU"



NAGORE IÑURRATEGI
IÑIGO ALKORTAREN KUADRILLAKOIA

Euskararen aldeko saskia erosteko epea ireki dute

Errigorak hainbat produktuz osatutako hiru saski ditu: klasikoa, ekologikoa eta berezia

I.B. ESKORITAZA

Nafar hegoaldeko uzta euskari puzka kanpaina martxan jarri du Errigorak. Auzolan ekimenak, urriaren 22tik azaroaren 10era bitartean iraungo duenak, Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko produktuz osatutako hiru saski eskainiko ditu eta horien balioaren %25 zona hartako euskalgintzari bideratuko zaio. Aurtengo kanpainaren leloa da *Bat egiteko garaia da*.

Kanpaina hori Ikastolen Elkartarekin, AEKrekin eta Sortzenekin elkarlanean egiten du Errigorak, eta kanpainak uzten duen diru-ekarpenaren zati bat Nafarroa hegoaldeko ikastolei, AEKren euskaltegiei eta zona hartan sare publikoan D eredu indartzeko Sortzenen dinamikei bideratzen zaie. Lehenengo 10.000 saskiak osatzeko inoiz baino boluntario gehien batu dira eta azaroaren 10era arte hainbat auzolangile eskaerak batzen egongo dira ehunka herritan. Eskaerak Errigoraren webgunean egin daitezke. Bertan, hiru saski mota izango dira: saski beltza (55 euro), klasikoa; berdea (65 euro), ekologikoa; eta zuria (75 euro), berezia. Gainera, iaz egin zuten moduan, saski bakoitzean egutegi bat sartuko dute.

GOIENA TELEBISTAK
8.000 IKUSLE EGUNERO.
ESKERRIK ASKO!

Iturria: CIES, 2022 (Gipuzkoari dagozkion datuak)

goiena
Zu hemen zaude.



ZABALIK

GOTZON IPARRAGIRRE

Alfa arrak

Bada biziki harrizten nauen zerbait: gizakion banakako askatasuna inoiz baino gehien baloratzen duen gizartearen egonik edota berdintasunaren aldeko lelo eta diskurtsoak gero eta ozenago izanik, nola gerta daitezkeen matxismo zaharkitu, gordin, baldar eta trauskilaren zantzuak, nola ote den posible alfa arrak hain lasai ibiltzea larrean.

Estatu mailan egin den ikerketa batek hau zioen: 2019an, gazteen %12k uste omen zuen sexu jazarpena nesken asmakizuna zela; 2022an, berriz, %20k. Borondatea ezabatzeko botikak, ziztadak, AEBetan eta beste herrialde batzuetan kirolean sistematikoki sexu-jazarpena gertatzen dela dioten txostenak... Gazteen ereduaren lanketan ari diren adituek diote zur eta lur uzteko ereduak direla euren gustukoak. Harreman heterosexualetan, nesken kasuan, euren bikotekidea jeloskorra izatea baloratzen ei dute asko; mutilek, berriz, neska menpekora izatea. Ederrak biak ere! Bestea

EZ DAKIT NOIZ, BAINA KAPITULUREN BAT GALDU DUDAN SENTSASIOA DAUKAT, ERREGRESIO BORTITZA

jeloskorra izatea ni maitea izatearen neurri ei da. Penagarria!

Eta gero, klaro, matxismo-haztegi honetan, Madrilgo ikasle-egoitza nagusi bateko astapetro

kuadrilla bat agertzen da leihotetan neskei "puta!" deitzen, gordelekuatik ateratzeko oiher egiten, txortan egingo dutela esaten, eta, hori gutxi balitz, neskak, ondo ikasiak eurak ere, mutilei aurpegia ateratzen. Ez dakit noiz, baina kapituluren bat galdu dudana sententzia daukat, erregresio bortitza.

Nire aletxoa jartzera noa: inoiz, gizon izanik, berdintasunaren aldeko kontzentrazioetan deseroso sentitu naiz nire begien aurrean jarri izan didaten pankartaren bategatik. Ulertu ditut helburuak, agian, bidea bere osotasunean ez konpartitu arren. Baina jakizue beste astapetro kirten kuadrilla hori oso ondo mugitzen dela konfrontazioan, harrotu eta puztu egiten direla, eta, agian, suari gasolina botatzen ari gatazkiola. Uste dut gai honek, ia bizitzako gehienek lez, ezker eskua behar duela.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



GUTUNAK

Eskerrik asko!

EDURNE BIKUÑA

HOTZ OÑATI ELKARTEAREN IZENEAN OÑATI

Eskertuta gaude Hotz Oñatik asteburuan egindako elikagai bilketak izandako erantzun onagatik, eta eskerrak eman gura ditugu. Egungo egoera honetan, ez genuen uste horrenbeste jasoko genuenik. Kezkatuta geunden, baina jendeak oso ondo erantzun du; herritarrengandik jasotako erantzuna oso ona izan da oraingoan ere. 6.000 kilo batu ditugu. Horietako batzuk Lesbosera bidali ditugu, Zaporeak elkarrekin hango jangelan erabili ditzan; eta beste batzuk Atenasera, Red

SOS Errefuxiatuak elkarrekin bitartez han banatzeko. Eskerrik asko!

Beste behin, eskerrak eman gura dizkizuegu modu batean edo bestean bilketa honetan parte hartu duten guztiei; tartean, denda laguntzaileak, boluntarioak eta herritarrak. Eskerrik asko!

Saiatu ulertzen uhinekin arazoak dituztenak

JOSU GARITONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA BERGARA

Zaila da ulertzea pertsona batzuei kalte egiten dietela wifiak, mugikorrek,

argindarrak eta uhinek; mesede eske ibili behar dute, bizilagunek gauez wifia itzal dezaten, edo zuzenean haien etxea babesten dute pertsiana, gortina eta arropa bereziak erosiz. Eta ez badute helburua lortzen, karabana baten bizi dira, uhinetatik ihesi; beste herrialde batzuetan hasi dira, eta ez harritu supermerkatuetan ikusten baduzue astean behin wifirik gabeko eguna. Aukera ematen diete gaixo horiei euren osasuna kaltetu gabe erosketak egiteko. Saiatu horrelako guneetan mugikorra itzaltzen; azken finean, uhinek, maila desberdinean, kalteak eragiten dizkigute denoi.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Bereziabar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Arexabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Gerra luzatuko da; Errusia ahul nahi du mendebaldeak"

HASIER BLAS EHU-KO IRAKASLEA ETA GEOPOLITIKAN ADITUA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE Zortzi hilabete dira Errusiak Ukrainaren inbasioa hasi zuela. Goienagusik gonbidatuta, Arrasaten izan da EHUko Zientzia Politikoetarako irakasle eta Geopolitikaz ikerketa taldeko kide Asier Blas.

Denborak aurrera egin ahala, alde militarretik areagotu egin da gerra?

Bai. Errusiak inbasioa gauzatu zuenean, aste gutxiko kontua izatea zeukan buruan. Operazio militar deitu zion. Fikzioa, benetan, gerra zenean. Lau eskualde anexionatu ditu Errusiak. Eta azkeneko asteetan, bonbardaketa estrategikoak hasi ditu Ukrainan.

Indar korrelazioa nola ikusten duzu?

Zaila da asmatzea. Izan ere, argi dagoena da Errusiak asmo batzuk zituela, eta, lortu ez dituzenez, irudika genezake gerra galtzen ari dela. Baina horrek ez du esan nahi gerra galdu egingo



Hasier Blas, asteon, Goiena telebistako platoan. LARRAITZ ZEBERIO

duenik. Ikusteko dago. Errusiaren erasoari uste baino hobeto eutsi dio Ukrainak, eta, gainera, kontraerasoa egiteko gaitasuna erakutsi du. NATOk kide izango balitz

bezala funtzionatzen du Ukrainak. Delegaturiko gerra da. Ukrainarrak ari dira beren odola jartzen Ameriketako Estatu Batuek nahi duten Errusiaren kontrako gerra burutzeko.

Gerra mota berri baten aurrean gaude: sateliteen eta droneen erabilera...

Sateliteena garrantzitsua izan da, Errusiaren kalterako. Droneen kontua bestelakoa da. Une honetan arazoa Ukrainak dauka, Errusiak darabilen drone sinpleengatik. **Mehatxu nuklearra zenbateraino da erreala?**

Nik esango nuke ez dela erreala, baina inbasiorik gertatuko ez zela uste nuen... Gerra betikotzen den heinean, mehatxu horretara iristen ari gara. Otsailean baino gertuago gaude urrian mehatxu horretatik. Aukera oso urrunekoa da, baina sutearekin jolasten hasita... **Gerraren eragin ekonomikoa agerikoa da. Europa da galtzaile Ameriketako Estatu Batuen mesedetan?**

Bai. Errusiak inbasio militarra hasi zuen, eta hark uste ez bezala garatzen ari da. Gerra ekonomikoarekin ere, berdin. Gerra ekonomikoa Whasingtonek eta Bruselak abiatu zuten, eta bumeran efektua izaten ari da. Kaltetu nagusia Europar Batasuna da, odol transfusio bat bezala, dirua bidaltzen ari delako AEBetara. Petrolioia eta gasa orain AEBetatik inportatzen du Europak, garestiago. Horrela kaltetzen du

Europako industria; bereziki, Alemaniakoa. Eta gastu militarra ere garestitzen ari zaio Europari. Euroaren balioa asko txikitu da, ondorioz.

Eta gerra mediatikoa? Desinformazioa ere arma da?

Jakina. Mendebaldeko propagandak inpaktu handiagoa du guregan. Kontatu digite Errusiak bonbak jaurtitzen dizkiola hark kontrolatzen duen zentral nuklear bati, eta haren gas azpiegiturak edo zubiak suntsitzen dituela. **Mundu ordena berri baterantz goaz?**

Finean, NATOren eta Errusiaren arteko borroka da, eta honek badu konexioa Txinarekin AEBek daukaten borrokaarekin. Gerrarik ez balitz, Txina bilakatuko litzateke munduko lehen ekonomia, dagoeneko ez bada. Dolarrari indartsu eusteko eta AEBek lehen potentzia ekonomikoa izaten segitzeko gerra behar du.

Luze joko du gerrak?

Bai. Ez dut ikusten su-etenerako borondaterik. Ez da lan diplomatiko handirik. Banaka batzuk. Errusia ahula behar du mendebaldeak; bereziki, Erresuma Batuak eta AEBek. Horretarako, gerra luzatu nahi da.

ITURRI ONETIK

Oñatiko Orkestra Sinfonikoa, Bidaurretatik zuzenean

Oñatiko Musika Bandak aurtengo ikasturterako kontzertuen denboraldi berria aurkeztu du, *Entzunaldia* izenarekin. Azaroan hasi eta maiatzera arte hainbat ekitaldi antolatu dituzte (Ikus 28. orria). Bestalde, Oñatiko Orkestra Sinfonikoak emanaldi berezia eskainiko du azaroaren 20an, Bidaurretako komentuan, 19:00etan. Kontzertu hori Abao Komunikazio agentziak jaso eta zuzenean emango dute Goiena telebistak eta *Goiena.eus*-ek.

ALBISTE IZAN ZEN

2016-10-21

Osintxun 1936an fusilatutakoei omenaldia

Duela 80 urte, 1936ko gerran, faxistek Osintxun sartu eta bost auzotar hil zituzten: Tomas eta Ildefonso Iñarra anaiak, Ricardo Zangitu, Rufino Akizu eta Jose Garaikoetxea. Merezitako omenaldia jaso zuten haren senideek Osintxun. Oinez joan ziren erdigunetik Mekolaldeko sarreraraino. Hantxe jarri zuten Juan Balentziagak bost fusilatuen omenez egindako eskultura, eta hantxe egin zitzaizen omenaldia hildakoei eta euren senideei.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Pilota, surfa eta selekzio nazionalak


Kirolaren Legea, nazioarteko txapelketak eta herrialdeetako selekzioak hizketa gai asteon:

@MikelArregiAska: "PNVk eta PSOEek Kirolaren Legearen inguruan lortutako akordioaren ostean, euskal pilota eta surf selekzioek nazioarteko txapelketatan parte hartzeko gaitasuna izango dute".

@txema111191: "Oso berandu, baina bada "zerbait" nahiz eta urrats hori duela 45 urte gauzatu behar izan...".

@paulaltuna: "EAE ko selekzioa izango da ez?".

@Artza5: "Hau aurrera pausoa bada, atzera pausoa zer izango litzateke".



Eguazteneko prentsa agerraldian erakutsi zuten matxuratutako hodia. ARANTZAZU EZKIBEL GALDOS

72.000 metro kubiko ur eta 155.250 euro galduta

Galera eragin duen matxuratutako hodia erakutsi dute aste honetan; era berean, hodi berrian hainbat proba egiten ari dira oraindik, "guztia ondo dagoela ziurtatzeko", eta "datorren aste hasieran" amaituko dutela adierazi du Moises Altuna udal teknikariak

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Horixe da ur hoditerian izandako matxurak utzi duen datua: 72.000 metro kubiko ur galdu dira irailaren 26tik urriaren 17ra bitartean, eta horrek 63.250 euroko kostua eragin du. "Kuriosoan izan daiteke, baina uste dut aurreikuspenak dezente hobetu direla. Udalak uste zuen denbora gehiago beharko genuela behin-behineko hodia egiten eta oraindik eta galera handia izango zela. Uste dut, galera inportantea izanda ere, kontrolatua izan dela", dio Moises Altunak, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako teknikariak.

Itxura guztien arabera, hodia degradatu egin zen, baina teknikariak ez dakite zehazki zergatia. "Hainbat hipotesi daude, baina ez da erraza zuloa zerk eragin zuen jakitea", azaldu du Altunak. Kontuan hartu behar da hodi hori 1985. urte inguruan egin zuela Gipuzkoako Ur Partzuergoak, eta, beraz, 40 urte inguru dituela.

Matxura konpontzeko, 700 bat metroko ingurabidea jarri zuten joan den astean, bypassa, eta horrek 92.000 euroko kostua izan du, urean galdutako 63.250 euroez gain. Halaber, konponketak izango duen kostu zehatza oraindik ez dakite.

Ingurabidea ez dute kenduko

Hiru aste barru, ur hornidura ingurabidetik sare nagusira pasako dute berriz –ura moztu beharrik gabe–. Hala ere, ingurabidea mantendu egingo dute, oraingoz; ez dute kenduko, "badaezpada". Era berean, "hodi biki" bat egitea ari dira aztertzen. "Gertatutakoak zer pentsatu eman digu eta aztertzen ari gara Arrasate urez hornituko duen

UR SAREAN BESTE HODI NAGUSI BAT EGITEA AZTERTZEN ARI DIRA, "HALAKO GAUZAK EKIDITEKO"

bigarren hodi paralelo bat erakitzea, horrelako egoera bat berriro ez bizitzeko. Normalean, ez dira halakoak gertatzen, baina Arrasaten gertatu da eta orain garrantzia hartu du horrek gure lanean", adierazi du Altunak. Horretarako proiektua aztertzen ari dira oraindik, eta luze joko du "hodi biki" hori jartzeak. "Ingeniaritzako hainbat enpresarekin harremanetan gaude proiektua idazteko aurrekontua zehazteko. Etorkizunean arrasatearrek ur mozketak jasatea saihestu nahi dugu", adierazi du Fuentesek.

"Hodi bikia", Kulturolaraino

Hodi berri horrek kilometro inguruko luzera izango luke eta ur-sare nagusia Kulturolaraino eramango luke, handik gainontzeko bigarren mailako hodiekin konektatuz. Modu horretan, bi hodi nagusi izango lirateke eta bietako batek matxura izanez gero, bestetik bideratu ahal izango litzateke ur-hornidura.



ARRASATEKO UDALA

'Guztiendako jolasa' Zerrajeran

Sumalim enpresa espezializatuaren proposamena izan da boto gehien lortu dituen diseinua (381). Bi gune izango ditu parke berriak eta aurrekontua 100.000 eurokoa izango da. Era berean, laster jarriko dute martxan obraren lizitazio-prozesua eta Udal Gobernuak aurreikusten du lanak 2023. urte hasieran hastea (Informazio gehiago, Goiena.eus-en).

GORA ETA BEHERA



"Zarugalde ez da azelerazio-erreia"

Hori dio hango bizilagun batek. "Bost segundo aurrezteko, ibilgailuak abiadura bizian pasatzen dira handik, Otalaratik beharrean. Konponbidea? Erraza: zebra-bide altxatuak jartzea".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

'Gure ortua' jolasgunea egin dute Santa Marinaran

Jolasgune berria sortu dute ludotekan. Hala, lokatz-gunea egurrezko hesiz inguratu dute, sokaz osatutako egurrezko zubia egin dute eta harearekin jolasteko espazio bat eta eskalatzeko beste txoko bat ere eraiki dituzte. Amaia Arregi ludotekako koordinatzailearen ustez, proiektuaren berezitasun nabarmena da haurrak parte izan direla.



Astlehenean aurkeztu zuten. K.Z.S.

Beteta dator asteburua, Gaba Baltzaren aitzakian

Domu Santu egunaren bueltan ospatzen den Arimen Gaua elkarlanean antolatu dute Ekin Emakumeak Elkarteak, Doke Antzerki Taldeak, Txatxilipurdi Elkarteak, Ibai-arteak eta Arrasateko udal ludotekek eta gazte txokoek. Askotariko ekintzak dituzte egunotan

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE
Astelehenean hasita, kalabaza tailerra, kukumarro tailerra eta sukaldaritza girotua egiten ari dira azken egunetan Arrasateko udal ludoteketan. Datozen egunetan, berriz, asteburua aprobetxatuz, bestelako hainbat ekintza ere egingo dituzte Gaba Baltzaren baitan.

Gaur, egubakoitza, 18:00etan hasita, *Arimen biltzarra* egingo dute herriguneko kaleetan. "Herriko plazan hasi eta gaztetxe-raino ibilbide bat egingo dute Ilargitxok eta bere lagun kukumarruek. Bidean, sorpresa txiki bat egongo da Doke Antzerki Taldeko kide batzuen eskutik",



Gaba Baltza iragartzeko argazkia, Aldai parkeko intxaurren. TXATXILIPURDI ELKARTEA

adierazi dute Gaba Baltza batzordeko kideek, eta animatu herritarrek "kukumarro edota baserriar jantzi eta kalera ateratzeko, guztion artean herria alaitu eta jai giroan gozatzeko".

Gazte txokoen eskutik, bestalde, bihar eta etzi, 12 urtetik gorako nerabeentzako *Ihes bidea* eta *Zentzumen gela* antolatuko dute tren geltoki zaharreko gaztelekuan. Sarrera mugatuak egongo dira eta gazte txokoetan edota 688 68 62 01 telefonora deituta lortu ahal izango dira.

Erakusleioak, kaleak girotzeko

Gainera, Ibai-arte merkataritza elkarteak erakusleio lehiaketa egingo du, azaroaren 1era arte. Erakusleio gustukoena bozkatzeko, 688 73 41 49 telefonora idatzi beharko dute herritarrek.

Azkenik, data hauetan, Aldai parkean martxoan landatu zuten intxaurren ere ekarri nahi izan dute gogora. "Galdutako lagun, senide eta herrikide maitteen sinbolo eta babesgune bilakatu genuen hura", azaldu dute. Orduko hartan, doluaren berri izan zuten umeek, hileta zibilak egiten dituzten tokian.

Santamasetan postua jartzeko baimena eskatu daiteke jada

Dagoeneko egin daiteke eskaera santamasetako azokan postua jarri ahal izateko, eta hiru bide daude horretarako: *Santamasak.eus*-en, *Arrasate.eus*-en eta *BAZen*. Azaroaren 15a izango da horretarako azken eguna. Arrasateko Udaleko Kultura Sailak, halaber, postuak jartzea aginduko dituzten arauak prestatu ditu (*Ikus Goiena.eus*).

Merkatariendako ikastaro bat antolatu du Udalak azarorako

Nire salmentaren entsegua lelopean, prestakuntzaren formatua, irakasgaiak, helburuak, parte-hartzea eta bizipenak landuko dituzte, Iurgi Etxebarriarekin. Kulturateko Loramendi aretoan izango dira saioak, azaroaren 9an, 10ean, 16an eta 17an, 14:15etik 16:15era. Azaroaren 3a baino lehen eman beharko da izena, *Arrasate.eus*-en.



SANFELIPE
ELKARLAGUNTZA

1898TIK
DEBAGOIENEN
ELKARLAGUNTZA
DEBAGOIENDARRENTZAT

HAIENGAN PENTSATU ETA EGIN BAZKIDE

Bazkide izatearen abantailak

- Heriotzaren gastuak konpartitzea
- Merkatuko errentagarriena
- 40 urtera arte doako sarrera
- Heriotzaren une zailetan, kudeaketaren laguntza
- Konfiantza, gertutasuna eta babes



Gure doluminak helarazi nahi dizkiegu urtean zehar hildakoen senideei, eta, bereziki, San Felipeko bazkideen.

Alfontso X Jakintsua 3, Arrasate • www.sanfeliipe.eus
24 ordu: 943 532 910 • Bulegoa: 943 773 022



AGINTALDI AMAIERAKO ELKARRIZKETAK

"Udalak ez du aterpetxe sozialik; oso larria da"

EVA ABUIN PODEMOS ARRASATEREN BOZERAMAILEA UDALEAN

Udal Gobernuaren "immobilismoa eta inprobisazioa" salatu ditu Abuinek. Halaber, dio Gobernuak ez duela elkarlanerako tarterik uzten eta horrek "inpotentzia" sortzen duela

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE 2015-2019ko agintaldian sartu zen Arrasateko Udalean Eva Abuin (Arrasate, 1993), zinegotzi, eta 2021 hasieran Igor Urizar ordezkatu zuen, hark karguari uko egin ostean. Era berean, maiatzeko udal hauteskunderi begira, alkategai izateko hautagaitza aurkeztu du Podemos Arrasateren barne prozesuan. **Nola definituko zenuke agintaldiak orain arte emandakoa?**

Gobernuaren immobilismoa eta inprobisazioa. Immobilismoa, adibidez, pandemian ez zuelako herritarrek behar zuten babes sarea sortu; plataforma herritar batekin egin zuen Udal Gobernuak egin behar zuen lana, konfinamendu egoeran zeuden herritarren oinarrizko beharrak asebetz. Inprobisazioa, aldiz, kudeaketa osoa behin-behinekoa delako: Zalduspeko autobus geltokia, ambulatorio ondoko aparkalekuak...

Nola baloratzen duzu Udal Gobernuaren kudeaketa?

Gobernu taldearen akatsik handiena da ez duela onartzen gaizki egindakoa, nahiz eta agerikoa izan, eta ez du hori egokitzeko gaitasunik. Uste dut herritarrek eta oposizioko alderdiok ez dugula tratatu hau merezi.

Zertan asmatu du Gobernuak?

Gazteen alokairuen laguntzaren ekimena aipatuko nuke. Ideia bezala ondo dago, baina laguntza lerro hau ez da nahikoa. Gure ustez, herritar gehiagori zabaldu beharreko laguntza da, eta, gainera, aurreko agintaldikoa.

Eta zertan huts egin du?

Batzuk aipatzearen, ez ditu kontuan hartu bere botoekin inposatu duten TAO sistemaren aurka aurkeztu diren sinadura eta emendakinak. Halaber, azpikontratututako hainbat zerbitzuren eta langileen lan-gatazken kudeaketan ere ez du asmatu;



Eva Abuin zinegotzia, San Andres auzoa atzean daukala. E.A.

"ZORTZI URTE PASATU DIRA EMAKUME TXOKOA LEKUZ ALDATUKO ZELA HITZ EMAN ZUTENETIK"

esaterako, herribusarenean edota lorezainen eta Aita Menniko langileen gatazketan.

Arlo sozialean gabezia handiak daudela salatu izan duzue.

Gobernuak dio Udala "zero zor" egoeran dagoela, baina hori da herritar askoren bizi baldintzak okertzearen truke. Gure herrian familia eta pertsona asko egoera prekarioan daude. Egoera hau aurre egiteko fiskalitate eredu aldatu behar da; adibidez, ordenantza fiskaletan gehiago daukatenei zergak eta tasak igoz eta aurrekontuetan, gutxiago dutenezako laguntza eta programa berriak martxan jarri.

Aterpetxe sozial baten beharra ere askotan aldarrikatu izan duzue.

Arrasate bezalako herri batean halako balibiderik ez egotea oso larria da. Ez bakarrik Arra-

"UDAL GOBERNUAREN AKATS HANDIENA DA EZ DUELA ONARTZEN GAIZKI EGINDAKOA, AGERIKOA IZANDA ERE"

satetik igaro eta gau bat edo bi aterpe gabe kalean lo egin behar dutenentzat. Arrasateko edozein bizilagun kalean geratzen bada, Udalak ez dauka prestatuta kasu hauetarako balibiderik.

Feminismora bidean, zer lortu da?

Emakume Txokoa lan egiten duten langileen lan bikainari balioa eman nahi diot. Halere, feminismoa ez da izan Gobernuaren lehentasuna. Gainera, aurreko agintaldian EAJk eta agintaldi honetan PSE-EEk hitza eman zuten beste kokaleku bat eman behar ziotela Emakume Txokoari. Zortzi urte igaro dira eta ez da hori gauzatu.

TAO sistemaren gestioaren aurka azaldu zarete hasieratik.

Ez dira kontuan hartu herritarren ekarpenak. Parte-hartzea ausazko herritar talde batekin

definitu zen, eta gardentasunik gabe. Gero, 4.000 sinadura eta 400 emendakin aurkeztu dituzte herritarrek, baina Gobernuak ez ditu kontuan hartu.

Ze TAO sistema ezarriko zenukete Gobernuan bazeundete?

Gure alderdiaren apustua da benetako parte-hartzea herritarrekin batera martxan jartzea eta bukaera erreferendum batekin erabakia hartzea.

Kulturola eta Juan Arzamendi Musika Etxea bukatuta daude.

Gobernuak zortzi urte eta bi agintaldi behar izan ditu hauteskunde promesak kudeatzeko. Hasieratik esan izan dugu proiektu horietan falta dena dela edozein herritarrek erabilera askotariko gelak aurreikustea.

Porlana eta adreilua lehenestea leporatu izan diozue Gobernuari.

Bai, horretan oinarritzen direlako haien proposamen izarrak. Ezin ahaztu, ordea, hauteskundeetan aurkeztu zuten aurreproiektu faraonikoa ez dutela gauzatu: kiroldegia.

Zertan eragin du Podemos Arrasatek agintaldi honetan?

Gobernuarekin elkarlana ez da posible izan, eta, askotan, inpotentzia handia eragiten du horrek; esaterako, bizilagunak niregana etortzen direnean eta ezin diedanean lagundu, egoera horietan Gobernuarena delako erabakia. Bestalde, gure emendakinak ez dituzte inoiz onartzen. Argi dago EAJk eta PSE-EEk ez daukatela oposizio alderdiekin elkarlana sustatzeko interesik, baina gu gure ikuspuntu soziala, feminista eta ekologista mahai gainean jartzen saiatu izan gara etengabe, bestaldean entzungor izan arren.

Maiatzean alkategai izateko zure hautagaitza aurkeztu duzu.

Alderdi primarioak azaroaren 4an bukatzen dira militanten bozketa bidez. Halere, oraindik herriko pertsona erreferenteak zerrendan gehitzeko prozedura irekiko dugu laster, baita hauteskunde programa hainbat herritarrekin eta kolektiborekin eraikitze bidea ere.

Elkarrekin Arrasate koalizioa etenda dago. Badago aukerarik berriro Ezker Anitzarekin elkartzeko?

Momentu honetan, Ezker Anitzarekin geneukan elkarlana etenda dago. Etorkizunean, bi alderdietako militantziak erabaki beharko du zer egin.

'Jakin-mina' hitzaldi zikloa egingo dute, Jakiunderen eskutik

DBHko 4. mailako ikasleei zuzendutako programa da *Jakin-mina*, eta gazte ikasleen ezagutzak zabaltzea eta etorkizuneko ikasketak aukeratzeko laguntza du helburu. Hala, azaroaren 25ean hasita, bost hitzaldi egingo dituzte Goi Eskola Politeknikoan, egubakoitzetan, 17:30ean: *Sormen kolektiboa gizarte eraldaketarako*; *Una orquesta es una empresa*; *Nutrition and its applications*; *Autobiografiaren txanda*; *Annie Ernaux, Nobel Saria 2022* eta *Learning Journeys: volverse ciudadan@s del mundo*.

Izena emateko, bi bide daude: jakiunde@akademia.eus helbidera idatziz edo 943 22 57 73 telefono zenbakira deituz.

Egunero jarriko dute Euskaraldian izena emateko mahaia

Dagoeneko hasi dira Euskaraldiko txapak banatzen, eta azaroan izen-emate mahaia egunero jarriko dute, ariketa soziala hasi arte, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara –azaroaren 7an izan ezik–. Beti toki berean izango da, Kulturaten, Seber Altubeko sarreran. Arropak eta banderak ere salgai dituzte, besteak beste, Goienan.

OHARRAK

Hitzaldia gaur Iratin

Askapenak antolatuta, Irati topalekuko kanpoaldean egingo du berriketaldia Guillermo Torres Cueterrek, *Julian Conrado* izenez ezagunagoa denak, 18:00etan.

Batukada ikastaroa

Azaroaren 4an, ikastaroa eskainiko du Sambamañak. Izena emateko, mezu bat idatzi beharko da sambamaña@gmail.com-era.

Dantzaldia Kulturolan

Portaloik antolatuta, gaur 18:30ean egingo dute.

Herribusa zubian

Zerbitzu berezia eskainiko du; ordutegiak, Goiena.eus-en.

Hasiera kaskarraren ostean, dinamika onean

Ointxe!-ko senior mailako emakumezkoak badabilta maila nazionalari neurria hartzen. Lehen bi neurketak galduta, gai izan dira egoerari buelta eman eta azken bi partiduak irabazteko. Hirugarrena erreskadan lortzeko, zapatuan Leioa gainditu behar

Hasier Larrea ARRASATE

Iaz igoera lortuta, lehen maila nazionalean jokatzeko ari da aurtengo denboraldian Mondragon Unibertsitateko nesken talde nagusia. Serio hartu zuten denboraldiaurrea, entrenamendu gogorak egin eta lagunartekotan itxura ona emanda. Baina behin lehiaketa erregularrean estreinatuta, "beldur eszenikoa" gailendu zitzaizen jokalariei: "LEB mailatik jaitzita eta iaz txapeldun irtendako talde bana izan genituen aurrean, eta presioak gainditu egin gintuen", azaldu du Arri Ogaran entrenatzaileak.

Taldearen "ezaugarri nagusia, egoera okerre buelta emateko gaitasuna", agertu zen orduan, azken bi asteetan garaipenak eskuratzea ahalbidetzeko: bata Navarra Bellosladaren kantxan (50-74) eta bestea Unibasket Logroñorekin etxean (70-64).

Hobekuntza nabarmen horri jarraipena ematera irtengo dira bihar, zapatua, Iturripen,

20:00etan hasita. Oraindik partidurik irabazteke dagoen Leioaren bisita jasoko dute, baina Ogaranek abisatu du ligako talde historikoa denez gero, norgehiagokak irabazten hasiko direla, lehenago edo geroago. Esanak esan, "gurean" pentsatu nahi du marea moreak, eta asteburua bost partidutik hirutan garaipena eskuratuta amaitu, "sinatzeko moduko" estatistika, dudarik barik.

Gizonezkoek, Iruñean

Ointxe!-ren beste senior taldeak, EBA mailakoak, Megacalzado Ardoiren kontra jokatu du domekan, Iruñean. Ligako laugarren jardunaldi hori bigarren garaipenarekin ixtea dute helburu Julen Berrocalen mutilek.

Bestalde, domekan Iturripen kadete mailako Euskadiko txapelketa jokatu dute, eta Ointxe!-ko sei jokalarik jantziko dute konbinatu gipuzkoarraren elastikoa.

Lehen garaipena nahi dute emakume zein gizon errugbilariek

Arrasate Rugby Taldeko senior mailako bi taldeek aukera aproposa izango dute, asteburuan, orain arte jokatuak bina neurketetan lortu ez dutena lortzeko. Kanpanzar Arrasateko mutilek Mojategin jokatu dute bihar, zapatua, 16:30ean, Uni Bilboren aurka. Aurkaria azken sailkatua dela kontuan hartuta, hortzak zorrozuta irtengo dira Julen Barrutiaren jokalariek berdegunera. AGT Arrasate-Eibar taldeko neskek, berriz, Gaztediri egingo diote bisita, egun eta ordu berean, Gasteizko Gamarra auzoko errugbi zelaian. Ez dute aurrean erronka makala izango, gasteiztarrek jokatuak partidu bakarra irabazi egin baitute.

Haitz-eskalada ikasi eta trebatzeko aukera Besaideren eskutik

Azaroaren 5ean eta 6an, haitz-eskalada ikastaroa egingo du Besaide mendizale elkarteak, Araozten, eta interesa dutenek azaroaren 2an eman beharko dute izena, Besaideren bulegoan. Eskalatzen irakasteaz gain, luzeak era autonomoan egin ahal izateko teknika espezifikotako ere trebakuntza eskainiko dute. Partaideek bi baldintza bete beharko dituzte: GRI-GRIarekin aseratu jakitea eta IV. graduako bide bat aurrez eskalatu izana edo saiatzeko beldurrik ez izatea. Mendizale elkarteko bazkideek 65 euro ordaindu beharko dituzte; bazkide ez direnek, 90 euro; eta federatuta ez daudenek, beheratuz euro gehiago.



Etoko azken partiduan, Unibasketen aurka. ANGEL AYASTUY



Urriak
28
ostilara

Urriak
29
larunbata

BEZa*

oparituko dizugu
elikagaietan, freskoetan,
drogerian eta lurrindegian.

Edariak, parafarmazia eta haurtxoentzako produktuak barne.

* EROSKI klubeko bazkidea bazara, EROSKI Supermerkatu eta Hipmerkatuetan egindako 60 €-tik gorako erosketetan, Euskadin, Erosan, Kantabriari, eta Aragoi. EROSKI Club hartelean sar dutekeen gehieneko zenbatekoa: 250 €. Kontutatu gainerako baldintzak zure ahiko dendan. Baita supermercado.eroski.es/eu webgunean ere.



ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30



AZEko kideak aurtengo kartela erakusten, Herriko Plazan. ZURIÑE URRUELA

Iraganeko gaien hitzaldi zikloa, hamargarrenez

Arrasate Zientzia Elkarteak azarorako lau hitzordu ditu herriko historia maite dutenentzat, 'Iragana astintzen' ekimenaren barruan. Esteban Garibai, biztanleriaren bilakaera frankismoan, Konbentzio Gerra eta XVI. mendeko ontzigintza landuko dira

Hasier Larrea ARRASATE

Iazko neandertalei buruzko hitzaldi-ziklo tematikoaren arrakastak hauspotuta, badator aurten ere Iragana astintzen egitaraua. Aurten hamargarren aldiz antolatuko du Arrasate Zientzia Elkarteak, eta, azken urteotan bezala, euskaraz eta gaztelerazko bina hitzaldi eskainiko dituzte Kulturateko areto nagusian; guztiak, 19:00etan.

Lehenengoa azaroaren 2an, asteazkena, egingo du Elena Torregarai EHUko Historia irakaslea. Erromatarren garaian erroto eta zabaldu zen kontu bat mahai gaineratuko du, bascoien eta kantabriarren arteko nahasketa. Horretarako, Esteban

Garibairen figuraren oinarrituko da, hark, arrasatearra izanik, "kantauriarra zela esaten baitzuen, eta ez euskalduna", AZEko Ana Isabel Ugaldek azaldu duenez.

Azaroaren 16an, berriz, Frankismoaren ondorioz XX. mendean gertatutako bilakaera demografiko eta soziala izango du hizpide Jon Delgado ikerlariak, Arrasateko erroldetatik abiatuta.

Justo Martin arrasatearra izango da azaroaren 24ko hizlaria. XVIII. mende bukaeran frantsesen aurka borrokatutako Konbentzio Gerra aztertuko du, eta Arrasatek Gipuzkoako foruen defentsan izandako eginkizuna azalduko du.

Hitzaldi zikloa Beñat Egiluz itsas arkeologoak borobilduko du, azaroaren 30ean, eta Deba arroko XVII. mendeko ontzigintzan arrasatearrek izandako jarduna azalduko du.

Hamaraldi, hamaika gai

AZEko Jabier Bengoak orain arteko hitzaldiek harrera beroa izan dutela nabarmendu du, aretoa sarritan bete izan dela argudiatuta. Onartu du gero eta zailagoa egiten zaiela gai berriak eta hizlari aproposak topatzea, eta, hala ere, "zutik" diruela hasierako planteamenduak: "Mondragoe eta bertako leku-kotasuna zaintzen saiatzen gara egitarau honekin".

Xabier Leteren gaineko kontuak gaur, pianoz eta hitzez azalduta

'Txori kantazalea' izeneko helduentzako kontaketa musikatua taularatuko dute Kulturaten, 19:30ean hasita

H.L. ARRASATE

Xabier Leter kantautore sonatuari buruz Alex Gurrutzagak idatzitako hitzak eta Joana Otxoa de Alaizak egindako piano moldaketak entzun ahalko ditu gaur Kulturateko areto nagusira bertaraten denak. Oartzuarraren obran oinarritutako tesia aurkeztu zuen duela pare bat urte Gurrutzagak, eta haren figura "jendarteratzeko obsesioak" jarraitu zion ordutik. Otxoa de Alaizarekin elkarlanean, nork bere diziplinatik osatu du *Txori kantazalea* emanaldia. "Ez genuke musikarekin lagundutako poesia errezitaldi gisa definituko; gehiago, helduentzako kontaketa ardatz dituen kontzertu modura", dio Gurrutzagak.

Ikus-entzuleek "ondo pasatzea eta zerbait ikastea" da bilatzen dutena, baina baita "Leteren figura ustez serioaren umorea"



Txori kantazalea. ALEX GURRUTXAGA

aldarrikatzea ere; hori guztiori, "musikalki elaboratuta" dauden piano doinuekin.

Horrela amaituko dute Bibliotekaren Eguneko egitaraua, ahaztu gabe bihar goizean bigarren eskuko liburu azoka egongo dela Kulturate kanpoan.

Azaroko egitaraua Vulk bilbotarrekin hasiko du Koolturek

Datorren hilean ere beste lau emanaldi antolatuko ditu Kooltur Ekimeneko lantaldeak. Datorren egunekoan, hilak 3, Vulk taldearen punk-rock pertsonal eta indartsuaz gozatu ahalko dute ikus-entzuleek, 22:00etan hasita. Laukotea bere ibilbideko hirugarren lan luzea, *Vulk ez da*, aurkezteko asmoz joango da gaztetxera.





errigora

errigora.eus

urriak 22 - azaroak 10

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

Bat egiteko garaia da







Eskatu saskiak eta lagundu harien balioaren %25arekin Nafarroa hegoalde eta erdi-aldede euskaingintzari.



Realaren eta Valentziaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Valentzia partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Azaroaren 6an, domeka, 16:15ean.

Parte hartzeko azken eguna: azaroaren 1a



Eserlekuak Premium gunean



Catering zerbitzua



Aldageletako tunelean jokalaria ikusteko aukera



Ikus-entzunezko erabilerak



Atentzio eta zerbitzu pertsonalizatua



353 metro karratuko gunea

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1.
Aplikazioa deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!

**goiena[™]
kide**

Okm: batzen gaituen distantzia



www.goiena.eus/kideak

Oilorik eta behirik gabeko azoka izango da

Erretiratuen Eguna ospatuko dute bihar. 11:00etatik 14:30era animalia eta produktu azoka egingo dute Nardeaga kalean; guztira, 50 bat postu jarriko dituzte. Ondoren, abesbatzak abestutako meza eta bazkaria izango dute herriko erretiratuek

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Iritsi da urriko azken zapatua, eta, horrekin batera, baita herrian hain preziatua den Erretiratuen Eguna ere. Ohiturari eutsiz, animalia eta artisau azoka egingo dute Nardeaga kalean. Hala ere, nabarmendu behar da aurtengo animalia azoka zertxobait urriagoa izango dela. Hegazti-gripea dela eta, Aldundiak debekatu egin du hegaztiak erakustea, horregatik ez da oilorik egongo; bestalde, behiak erakusteko arauak asko zorrotz dituztenez, ez da behirik egongo. Erakutsiko dituzten animaliak izango dira: astoak, behorak, ardiak eta ahuntzak. Guztira, herriko 12 ganaduzalek eramango dituzte animaliak Nardeaga kalera. Ohi baino urriagoa izan den arren, animalia postuak erakargarriak izaten dira; batez ere, gaztetxoendako.

Postu ugari

11:00etatik 14:30era bitartean izango da produktuen azoka Nardeaga kalean. Herriko 20 postu jarriko dituzte, eta kanpotik etorritako 30 postu. Denetarikiko produktuak egongo dira: nekazaritzari dagokionez, baseritarrek ortuko barazkiak eta frutak eramango dituzte; baita, gazta, ezti... Bestalde, artisauak eskuz egindako lanak erakutsiko dituzte: lore sikuekin egindako apaingarriak, bitxiak, arropak, egur-lanak... Denetarik ikusi eta erosteko aukera egongo da, beraz, Aramaion bihar.

Nagusiak gogotsu daude

12:00etan, meza izango dute parrokian. Bizente Goikoetxea abesbatzak eta Papargorri abesbatzak abestutako meza izango da. Ondoren, Lagun Artean dantza taldeak erakustaldia egingo du. Mimo handiz prestatutako dantzak erakutsiko dituzte. Triki-kalejira elkarteak, aldiz, kalejira egingo du, herri-



Ume kuadrilla bat animaliei begira. GOIENA

ko kaleak trikiti doinuekin alaituz. Horrez gain, 12:00etan, Sastiñan, herriko artisten margolanen erakusketa inauguratuko dute.

Erretiratuen Eguna dela kontuan hartuta, Ibarrako elkarteek detaile berezia izaten dute erekin. Elkarteek salda eta mokadutxo bat eskaintzen diete erretiratuei. Alaiak erretiratuen elkarteke presidente Miguel Loitik dio jendea gogotsu dagoela: "Joan den astean, Arabako Erretiratuen Eguna ospatu genuen, Guardian, eta ikus-

tea besterik ez dago zelako gogotsu zegoen jendea ospakizunetarako". Giro onean egun-pasa polita egin zutela nabarmendu du Loitik. Bihar, bazkaria egingo dute, 14:30ean, pilotalekuan. Udalak antolatutako bazkaria izaten da urriko azkeneko zapatuan egiten dutena. Bazkaldu ondoren, opariak banatuko dituzte hara joango diren erretiratuen artean.

Eguraldia lagun, erretiratuek bakarrik ez, herritarrek eta baita kanpotik etorritakoek ere egun-pasa polita izango dute.

Trafikoan eragina

Urtero egiten duten moduan, animalien azoka Nardeaga kalean jarriko dute, parke parean. Bada, antolakuntza lanak gaur arratsaldean hasiko dituzte, barikua. Beraz, gaur arratsaldean parke pareko kale zatia itxi egingo dute, animalien kaiolak jartzeko.

Nagusiei omenaldia

Herriko pertsona nagusienak omentzen ditu Udalak Erretiratuen Egunean. Herriko gizon eta emakume zaharrenak; aurtan, oroigarria jasoko dute Arraga auzoko Fermin Etxeberria Alonsok eta Suiñako Eustakia Agiriano Zuazuak.



Eguaztenean Josu Ozaitak egindako hitzaldia. OIHANA AMEZKUA

Gaurik beldurgarriena eta ilunena izango da gaurkoa

Mozorro tailerra egingo dute kultura etxean; etxetik eraman behar dira arropa zaharrak edo izarak

A.E.G. ARAMAIO

Gaba Baltza ospatuko dute gaur herriko gaztetxoek. Txirritolak, eskolako guraso elkarteak, Ikusiz Gozatu elkarteak, Anbotoko Doinuak elkarteak eta dantza taldeak antolatu dute aste bukaerako egitaraua. Domu Santu egunaren bueltako ekintzak 17:00etan hasiko dituzte, mozerro tailerrarekin. Etxetik eramandako arropa zaharrarekin egingo dituzte jantziak. Ideiak hartzeko, *gaubeltza.eus* ataria proposatu dute. Ondoren, kaleak apainduko dituzte kalabaza eta kriseiluekin.

Ipuin kontaketa

18:00etan, 3 eta 6 urte bitartekoei zuzendutako ipuin kontaketa izango dute. Nagusiagoek antzerkia izango dute: *Nire beldurrik maiteenak*. Haurtzaroan sortzen diren eta helduek oraindik ere mantentzen diren beldurrei buruzko bidaia dibertigarria izango da antzezlanak. Emanaldiaren ondoren, kalejira egingo dute plazara; han, edabe magikoaren inguruan dantza eta kantuan ibiliko dira.

Eguaztenean hasi zituzten ekintzak, *Itzalitako kalabazak berpizten* hitzaldiarekin.

Helduei zuzendutako antzerki ikastaroa egingo dute

Debagoieneko Antzerki Plataformak antolatuta, helduendako antzerki ikastaroa egingo dute Aramaion azaroan zehar. Hasi-berriei zuzendutako ikastaroa izango da: azaroaren 5ean, 12an eta 19an egingo dute, 10:00etatik 14:00etara.

Interesa duenak izena eman beharko du azaroaren 2rako Aramaio udalarekin, 15 euro ordainduta. D2030 proiektuaren barruan sortutako dinamika da DAP. Debagoieneko euskarazko antzerkia eta arte eszenikoak eragin, indartu eta saretzeko asmoarekin sortutako proiektu kulturala da; hain zuzen ere, gizarteko hainbat esparrutan eragin nahi dute.

Herriko artisten lanekin osatutako erakusketa Sastiñan

Bihar, zapatua, herriko artisten lanekin osatutako erakusketa zabalduko dute Sastiñan, 12:00etan. Aramaio Ongizate Sailak bul-tzatutako erakusketa da. Erretiratuen Egunarekin lotu eta erretiratuei bideratutako ekintza izan behar zuenak izan duen arrakasta ikusita, adinez nagusi diren aramaioar guztiei zabaldu zaie erakusketan parte hartzeko aukera. Hala, herriko hamahiru artistaren lanak jarriko dituzte ikusgai. Domekan 12:30etik 14:00etara egongo da zabalik; azaroaren 4an, 18:00etatik 20:00etara; eta azaroaren 5ean eta 6an, 12:30etik 14:00etara. Udalak eskerrak eman nahi dizkie margo-lanak utzi zituzten herritarrei.

DEBAGOIENENKO



OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otarora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabari 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskoizuri 5A, 1D / 943 76 56 88

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11



Yaakar elkarteko eta ALEko kideak materiala kamioira sartzen, eta goian, eskuinaldean, Laboral Kutxako ordezkariekin. YAAKAR



Senegaleranzko bidean da Yaakarren materiala

Ospitaleko oheak, mahaiak, aulkiak, informatikako ekipamendua eta eskolako materiala jaso ditu dohaintzan Aretxabaletako elkarteak Fatick eskualdeko Mbam herrira bidaltzeko, eta astelehenean joan zen edukiontzia Bilboko portura

Mirari Altube ARETXABALETA

Astelehenean joan zen materialerik betetako edukiontzia Aretxabaletatik Bilboko portura, eta laster abiatuko da hori, itsasontzian, Senegalera. Yaakar elkarteko kideak oso pozik agertu dira, dohaintzan jasotakoa "izugarria" izan delako.

Horien artean daude Debagoieneko Ospitaleak emandako 26 ohe eta babeserako materiala –eskularruak eta batak–; Laboral Kutxaren informatikako ekipamendua; Aretxabaleta Lanbide Eskolan jasotako 60 mahai eta 45 aulki; Arizmendi ikastolako 60 mahai, 80 aulki eta 10 arbel; Kurtzebarri eskolako bederatzi mahai, hamaika aulki eta eskolarako materiala; eta Arrasate Herri Eskolan emandako mahai-jolasak eta hiru mahai.

Senegalgo Fatick eskualdean dagoen Mbam herriko osasun etxera eta eskolara bideratuko dute guztia. Amatasun kontsulta eraiki dute han, eta erditze osteko gela bat egokitzea da orain

erronka; baita eskolan beste bigela egitea ere. Bide onetik doa la proiektua adierazi du elkarteko presidente den Amalia Ormaetxeak: "Hainbat dirulaguntzaren zain gaude. Eta euriteen garaia pasatzen denean, azaroan, abian izango da guztia".

Herritarren laguntza beharra

Bigarrenez bidaliko dute materialerik betetako edukiontzi bat. Bidalketaren kostua, baina, handia da, eta herritarrei laguntza eskatu diete. Horretarako bideak, hemen: *bizum-a* (05509) edo *Eman* atalean Yaakar idatzita edo transferentzia bidez: ES60 3035 0002 16 0020077455.

Horrez gain, lokal baten beharra ere atzeman dute: "Materia-

**IKASTETXEEK
AURRERANTZEAN ERE
ELKARLANEAN
JARDUTEKO INTERESA
AGERTU DUTE**

la handik eta hemendik jasotzen joango gara; hala adierazi digute hainbatek, eta guk pozik hartuko dugu. Baina hori gordetze lokal bat gurako genuke. Inor gertu balego uzteko, izugarri eskertuko genuke".

Ikastetxeekin elkarlanean

Dohaintzan jasotakoaren zati handi bat ikastetxeetara bideratu duten sentsibilizazio kanpainari esker izan da. Aretxabaleta Lanbide Eskolako kideek, esaterako, bere egin dute proiektua. Osasun arloko bi ziklo dituzte, eta ikasle horiek inplikatu dira ekimenean. "Herritarrei tentsioa hartu diete, borondatearen truke, eta patata-tortillak saldu dituzte", azaldu du Naiara Olabarria irakasleak. Elkarlanari ateak zabalik utzi dizkiote, gainera: "Horri zein forma eman aztertzen dihardugu, oso aberasgarria delako guretzat". Beste ikastetxe batzuek ere agertu dutela interesa aurrera begira lanean jarduteko gaineratu du Ormaetxeak.



Hainbat herritar izena emateko gertu eguaztenean, Durana kalean. MIRARI ALTUBE

Aretxabaletarrak izena ematera gonbidatu dituzte Euskaralditik

Entitateendako epea urrian bukatuko da eta ia 40k berretsi dute dinamikan parte hartzeko konpromisoa

M.A. ARETXABALETA

Hitzez ekiteko garaia leloarekin iritsiko da hirugarren Euskaraldia azaroaren 18an, baina, bertan parte hartzeko, aurretik eman behar da izena. Eta horren berri ematen dabilta Euskaraldiko Batzordeko kideak egunotan.

Entitateen epea urriarekin batera bukatuko da –elkartekak, enpresak eta merkataritza zerbitzuak–. Aretxabaletan 40tik gora dira bigarren edizioan parte hartu eta oraingoan berretsi egin dutenak parte-hartzea. Eta gainerakoak ere horretara gonbidatu dituzte batzordeko kideek.

Norbanakoen izen-emate epea, ostera, dinamika abian jarri arte egongo da zabalik. Ondoren, *belarriprest* eta *ahobizi* txapak jasotzeko, kalean jarriko dituzte mahaiak; azaroaren 4an Herriko Plazan egongo da eta 11n, Mitarte kalean. Loramendi elkartearen bulegora ere jo daiteke.

Gatzagara irteera

Bestetik, Euskaraldia girotzeko ekintzak ere antolatuko dituzte. Azaroaren 6an, esaterako, Eskoriatzako kideekin batera Leintz Gatzagara joango dira, oinez.

Auzoko, Barriketan eta Familia Laguna ekimenak abian dira

Euskara erdigunean jarriz, herriko hizkuntza aniztasuna aintortzea eta herritarren arteko harremanak sustatzea xede duen ekimena da Auzoko, Barriketan taldeetan, ostera, euskaraz bizi direnak eta aritu nahi dutenak elkartzen dira kafe baten bueltan. Eta Familia Laguna ekimenak kanpotik iritsitako familia berri bati –0-9 urte bitarteko haurrak dituztenak– harrera egitea du helburu. Horiek guztiek ikasurte berriari ekin diote orain-tsu, eta ateak zabalik dituzte kide gehiago hartzeko; hona hemen horretarako bideak: 943 77 09 70 eta 645 70 88 63; *auzoko@loramendielkartea.eus* eta Loramendi elkartearen bulegoa.

OHARRAK

'Errekak bizi'

Deba ibaiaren eta haren adarren gaineko askotariko gaiak jaso dituzte ikusentzunezkoan Debagoienean Errekak Bizi Auzolanean ekimenak eta Goienak; azaroaren 3an emango dute, Arkupen (18:30).

Batukada

Aratz elkartekoek batukada doinuekin girotzeko dituzte kaleak gaur, egubakoitza (19:00). Atzegiren *Nire erara bizitzeko erronka* kanpainaren berri emango dute.

Bakarrizketa

Telmo Irureta aktoreak *Minus ukittua* saioa eskainiko du domekan, Arkupen (19:00).



UDAKo beteranoak apirilean, Real Union taldearen aurkako partidua jokatu aurretik. UDA

Realaren aurka jokatu du beteranoen taldeak

Denboraldiari ekiteko aurkari indartsua gonbidatu dute, eta jokatzeko "gogotsu" daude; partidua martitzenean izango da, azaroaren 1ean, Ibarra futbol zelaietan (11:30), eta, gainera, umeendako puzgarriak egongo dira zelai txikian

Mirari Altube ARETXABALETA

Kirolaren bueltako jaialdia antolatuta gura izan du UDAK azaroaren 1erako. "Kirola egitea osasunean irabaztea delako", azaldu du Agurtzane Elkoro presidentek. Hala, beteranoen partidua izango da, batetik, eta umeendako puzgarriak, bestetik.

Hazten joan den taldea

Beteranoen taldea 2008aren bueltan sortu zuten. "Futbola utzi ondoren hainbat lagunek elkartzeko ohitura genuen, eta taldea osatu eta txapelketetan parte hartzerantz animatu ginen. Hamarkada bateko jokalaria izan ginen lehenengoak, eta, geroztik, hazten joan da, beteranoen taldea

osatu arte", azaldu du Andoni Rodriguez taldeko kideak. Aparteko giroa dutela gaineratu du: "Hogei urte baino gehiago da futbolak elkartu gintuela, eta gure arteko harremanari eutsi egiten diogu; futbolarekin gozatzeko jarraitzen dugu, gainera".

Urtean lauzpabost partidua jokatzen dituzte: "Iaz, esaterako, apiril inguruan Real Unionen aurka jokatu genuen eta ekainean Donosti Cup txapelketan izan ginen".

Arenaza eta Barkero ere bai

Realak berak agertu zuela partidua jokatzeko interesa dio. Handik zein jokalaria etorriko den ez daki, baina bai zeintzuk

diren ohikoak: "Xabi Prietok ez du hutsik egiten, eta Fuentes, Iturrino, Cuyami... ibili izan dira".

Norgehiagoka horretarako herriko bi jokalaria ezagun gonbidatu dituzte: Igor Arenaza eta Jose Javier Barkero. Biek ala biek baietza eman diete: "Belau-nak ez dauzkala bete-bete esan digu Barkerok, baina minutu batzuk jokatzeko gertu dago". Hona hemen UDAKo jokalaria: Andoni Rodriguez, Eriko, Mikel Luengo, Gartzzi, Piru, Aitor Perez, Asier Manso, Egoitz Garai, Oxel Apraiz, Jon Agirre, Jon Torres, Oxel Erostarbe, Lur Arana, Arenaza, Igor Ezpeleta, Barkero eta Markel Lete.

Gaba Baltzeko kantu-eskea berreskuratuko da urriaren 31n

Loramendiko kideek astelehenean ospatuko dute eta gaztelekukoek, domekan, Arimen Biltzarra eginda

M.A. ARETXABALETA

Gaba Baltzak ez du hutsik egingo aurten, eta dagoeneko hasita daude hori girotzen Loramendi elkarteko Loratu egitasmoko kideak. Astelehenez geroztik daukate abian *escape room*-a, udaletxe zaharrean, 9 urtetik gorakoendako, eta txanda guztiak bete dira. "2020an antolatuta genuen lehenengo, pandemia sasoian beste ospakizunik ezin zelako egin. Sekulako arrakasta izan zuen orduan, eta baita orain ere", adierazi du Ainhoa Sanchez dinamizatzaileak. Gaur eta astelehenean izango dira parte hartzeko azken egunak.

Umeei bideratutako tailerrak ere egingo dituzte gaur, ludotekan (17:00): eskulanak, moztaroen prestaketa eta aurpegi margotzea. Ospakizun handia, baina, astelehenean izango da. Herria apaintzeko dei egin dute eta iluntze partean hasiko dituzte

ekitaldiak: "Kantuan joaten diren umeek trukean zerbait jasoko dute hainbat dendatan. Eta bukatzeko, Jaiki elkarteko dantzariekin batera ikuskizuna izango da".

Kontakizun ilunen lehiaketa

Bestetik, lehenengo antolatuta dute kontakizun ilunen lehiaketa-formatu librean, orri bakarrekoa, eta horiek aurkezteko azken eguna gaur da, egubakoitza. Lanak bidali behar dira honako helbide honetara: eskara@loramendielkartea.eus.

Gaztelekuan Arimen Biltzarra

Atxagazte gaztelekuan ere ospatuko dute Gaba Baltza aste bukaeran. Kukumarru tailerra egingo dute lehenengo (18:45), eta afaria gero (20:00); eta bukatzeko, Arimen Biltzarra (22:30). Parte hartu gura dutenek izena eman behar dute gaurko.

Gaztelekuan talde bat *escape room*-etik irten berri, martitzenean. MIRARI ALTUBE

Durana
Hortz Klinika

ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

"Biodibertsitate osoan eragiten dituzte kalteak"

Liztor asiarrek –Vespa velutina– eragiten dituzten arazoak eta kalteak ez dizkietela soilik erlezainei eragiten dio Iñaki Zurutuza eskoriatzarrak. Kalte horiek biodibertsitate osoan eragiten dituztela dio, baina ez dakite konponbidea zein izan daitekeen

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Duela lau urte inguru hasi zen Iñaki Zurutuza eskoriatzarra erleekin lanean, eta orain arte ondo joan zaiola dio, eta Mazmela elizatean duen erlategitik ezti dezente atera izan duela azpimarratzen du. Hala ere, *Vespa velutina*, hau da, liztor asiarren gorakada itzela jaso du aurtun erlategian, eta bertan di-tuen erle guztiak galduko dituelakoan dago.

"Urte hauetan jasan dut liztor asiarren eragina, baina aurtengo bezalakorik ez dut sekula ikusi. Aritu izan naiz liztor asiarrek harrapatzeko tranpak jartzen, baina ez da nahikoa izaten. Hori horrela, aurtengo ikusita, erlauntz guztiak galdu behar ditut. Erleak ezin dira irten, liztor asiarrez beteta ditzutelako erlategiko sarrerak; eta uraren eta polenaren bila irten beharra dute, esaterako. Gainera, erlekumeak eramaten dituzte, ezta jan... sekulako sarraskia egin dute. Horrez gain, erlezainak ez gara kaltetu bakarrik; biodibertsitatean duen eragina izugarria da. Izan ere, bestelako intsektuei edo frutei ere eragiten diete, eta uste dut ez dela erlezainen arazoa soilik, guztioi eragiten digute liztor asiarren kalteak".



Iñaki Zurutuza, erlategian, liztor asiarrek akabatzen. IMANOL BELOKI

Konponbide zaila

Aurtengo egoera ikusita, zalan-tzak ditu Zurutuzak erlategiarekin jarraitu edo ez. "Erabakia ez da erraza. Kontua da datorren udaberrian erlauntz gehiago jarri beharko nitzukeela, baina udazkenean berdina gertatuko litzaidake. Arazoa deuseztatzeko, egongo dira ikerketak egiten, edo, agian, martxan da zerbait. Guk ahal duguna egiten dugu, tranpak jarritz... Orain, erlaman-doak harrapatzen dira horietan, baina udaberrian eragin behar da. Izan ere, orduan harrapatzen

dira erreginak, eta eraginkorra-go delako uste dut. Betiere, liztor asiarren habiak lokalizatu eta deuseztatu behar dira...".

Protokoloa jarraituz

Liztor asiarren habiak lokalizatzeko protokoloa jarraitu behar dela dio, bestalde, Fermin Lezeta basozainak. "Habia ikustean, Udaltzaingoari abisatu behar zaio, eta pertika batekin pozoia sartzen diete. Leku zailan badaude, basozainak edo suhiltzailak arduratzen dira, eskopetekin tiro eginaz...".

GORA ETA BEHERA




Telefonicako zutoina, erortzear Marinen

Marin elizatean, Santa Magdalena elizan gora errepidea jarraituz, Telefonicako poste bat erortzear dagoela jakinarazi du auzotar batek. Seinalea galdu ez duten arren asteak daramatzala posteak egoera horretan salatu dute, edozein unetan jausiko den beldur.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



'Apaiz kartzela' filmaren proiektzioa eta solasaldia

1968-1976ko aldirian Zamorako apaizen kartzelan preso egon zirenetako lau presondegira itzuliko dira, bizipenak gogoratu eta dokumentala egiteko. Apaiz horietako batzuek hamar urtetik gorako zigorrak jaso zituzten, frankismoaren errepresioa salatzen zutelako sermoietan.

Ikus-entzunezkoa 19:00etan proiektatuko da, gaur, Zaldibar antzokian. Jatorrizko bertsioan, gaztelaniatzko azpitoluekin, eta sarrera doan izango da. Proiektzioa amaitzen denean, solasaldia egongo da Xabier Amuriza –Zamorako espetxean preso egon zen apaiz izandakoa– eta Ritxi Lizartza –pelikularen zuzendaria– protagonistekin.

Zinegotzi karguari uko egin dio Bilduko Ander Errartek

Martitzenean egindako urriko ohiko osoko bilkurako gai-zerrendako puntuetako bat izan zen zinegotzi karguari uko egitea. Eskoriatzako EH Bilduk idazkaritzari jakinarazi zion moduan, Ander Errarte EH Bilduko zinegotziak uko egin dio karguari eta proposamen berria ere jarri zuten mahai gainean. Errarteren orde, eta Eskoriatzako EH Bilduko zerrendan hurrengo hiruek ere uko eginda karguari, Xabi Uriarte eskoriatzarra izango da ordezkartuko duena. Tramitazioa martxan, zinegotzi berriak kargua hartzea geratuko litzake; aurreikuspenen arabera, azaroko ohiko osoko bilkuran.



Eman izena Leintz Bailarako Ekiolan

Online edo gure bulegoetan

Zure energia, sortu, kontsumitu eta kudeatzeko aukera

- Eguzki energia kontsumitu
- Kooperatibako bazkide izan
- Erosoa, obrarik egin gabe

ESKORIATZA

Udaletxeko lehen solairuan
astelehenetan 08:30-19:00



www.ekiola.eus/
leintz-bailara

Gozoa eta beldurra batuz, Gaba Baltza

Astean zehar, urriaren 31rako prestaketa lanak egiteko hainbat tailer izan dituzte Tortolis ludotekan. Gaba Beltza ospatzeko, berriz, gozoki eskea, eskulanak, ibilbide beldurgarria, kalejira, sua piztea, dantzak... izango dituzte herriko gaztetxoek

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Sasoi batean, Euskal Herriko txoko askotan oso zabaldua zegoen Domu Santu bezperan, urriaren 31n, Gaba Baltza ospatzeko ohitura. Eskoriatzan, guraso talde batek zerbait antolatzeko gogoia adierazita, Tortolis ludotekarekin eta Eskoriatzako gaaztekuarekin elkarlanean, duela zortzi urte inguru hasi ziren Gaba Beltza antolatzen, eta, orduetik, egitarau ederra prestatzen dute.

"Gau berezi bilakatu da haurrentzat, batez ere, erakargarriak diren bi alderdi batzen dituelako: gozoa –eskea eta gozokiak– eta beldurra", adierazi du Mainer Etxanizek, Eskoriatzako Udaleko Gazteria teknikariak.

Ekintzak urriaren 25ean hasi zituzten Tortolis ludotekakoek, eta astean zehar arropa tailerra eta galleta beldurgarrien tailerra izan dute. Gaur, berriz, kalabaza hustuketa tailerra izango dute, 16:45ean, ludotekan.



luz, kalabaza hustuketan. I.B.

Urriaren 31n ospakizuna

Astelehenean 17:30ean hasiko dituzte ekintzak herriko gaztetxoek. Lehendabizi, 3 eta 7 urte bitarteko haurrak, gurasoek lagunduta, eskean irtengo dira unibertsitatetik plazaraino. Bi-

dean izango dituzten komertzioetan geldialdia egin eta gozokiak eskatuko dituzte. Ordu berean, ibilbide beldurgarriari hasiera emango diote 8 eta 12 urte bitarteko haurrek. Herriko bazter ilunetan zehar ibiliko dira, bidean susto eta sorpresa ugari hartuz, eta arratsaldeko zazpitan amaituko dute, frontoian, kalejirarekin bat egiteko. Horrekin batera, 18:30ean, plazan eskulanak egiteko aukera izango da.

19:15ean, dantzarien kalejira irtengo da Joseba Inurrategi frontoitik. Plazara iritsi orduko, plaza erdian sua piztuko dute, beldurrak erretzeko, nahi duen orok beldurrak sutara bota ditzan. Ondoren, plazako argiak itzali eta dantzariak, suaren inguruan korroan jarrita, dantza herrikoiak egingo dituzte, eta gura duten herritarrek parte hartu ahal izango dute ekintza horretan. Dantzak amaitu ostean, txokolata banatuko dute.

Paco Etxeberriak hitzaldia egingo du azaroaren 11n

19:00etan izango da saioa, gazteleraz, eta Zaldibar antzokirako sarrera doakoa izango da

I.B. ESKORIATZA

Paco Etxeberriak *Ciencia forense y recuperación de la memoria histórica. Exhumando fosas, recuperando dignidades* izeneko hitzaldia egingo du azaroaren 11n, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Sarrera doakoa izango da, eta gazteleraz egingo du saioa gonbidatuak.

Azaroaren 10a Bakearen eta Garapenaren aldeko Zientziaren Nazioarteko Eguna izanda, horren harira antolatu du Paco Etxeberriaren hitzaldia Eskoriatzako Udalak.

Memoria historikoa hizpide

Ospe handiko auzitegi medikua da Paco Etxeberria. Horrekin batera, antropologoa, espeleologoa, ikertzailea, EHUKo Lege eta Auzitegi Medikuntzako irakasle titularra, Aranzadi Zientzia Elkarteko lehendakaria, Espainiako Paleopatologia Elkarteko idazkaria eta Euskal Kriminologia Institututuko zuzendariordea da, eta Eskoriatzako saioan auzitegi-zientziaz eta memoria historikoa berreskuratzearen garrantziaz jardungo du, besteak beste.

Ikerketa garrantzitsuak

Egindako argitalpenez eta jaso dituen sariez gain, besteak beste, Txilek haren laguntza eskatu zuen Victor Jara kantautorearen, Salvador Allende presidente ohiaren eta Pablo Neruda poetaren gorpuzkiak aztertzeke. GALEk eraildako Lasaren eta Zabalaren gorpuk ere haren eskuetatik pasatu ziren, eta 2000. urtea ezker koordinatzen ditu, Aranzadi Zientzia Elkartearrekin, Espainia osoan frankismo garaian fusilatutako eta zangetara edo bide bazterretara botatako 6.000 lagun lurpetik ateratzeko lanak. Horrekin batera, Espainiako Gobernuak enkargatu dio Erorien Haranean lanak egitea senitartekoen baimenik gabe bertan lurperatutako 77 pertsonen gorpuzkiak euren senitartekoei itzultzeko.



Leintz Gatzagako gatzaren postua, pilotalekuan. IMANOL SORIANO

Gatzaren Eguren seigarren edizioa, arrakastatsua

Aurtengo edizioa amaituta, sustatzaileek aitortu dute "ilusioz" ekingo diotela zazpigarrena antolatzeari

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Jende ugari batu zen Leintz Gatzagan domekan, bertako ondarearen berri izan eta antolatutako egitarau oparoaz gozatzeko. Egundorobila eta garrantzitsua, dudarik gabe, antolatzailentzat. "Alde batetik, herriak dena ematen du egun honetan. Bestalde, bertan egiten dugun lana ikusarazteko ere garrantzitsua da", adierazi du Aitor Larrañagak, Gatzagako Udaleko Garapen eta Turismo teknikariak.

Azoka ekologikoaren parte

Gatza izan zen produktu izarra, baina hogeituz osatutako azoka ere izan zen pilotalekuan. Bertako zein Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako ekoizleen produktu ekologikoak erosteko aukera izan zen. Besteak beste, barazkiak, gazta, ezti, ogia, marmeladak, haziak

eta olioak. Produktu ekologikoen azoka izanik, nekazaritza eta elikadura ekologikoari buruzko informazio-panelak eta Biolur-en informazio puntua ere izan ziren. "Gipuzkoan ekoizpen ekologikoko ekoizle dezente daude, eta gu horren parte sentitzen gara. Gure gatzarekin beste azoka batzuetara ere joaten gara, eta Gatzaren Egunean azoka ekologikoa antolatzea ezinbestekoa da".

Ondarearen zabalkundea

Azokaz gain, mendi ibilaldiak, zurezko plaza jokoak, Jakoba Errekondoren kontsultategia, sukaldaritza tailerra eta Gatzaren Museora bisita gidatuak eta gatz-xaboiak egiteko tailerra izan ziren. Azken honek herriaren historia ezagutzeko aukera ematen die parte hartzaileei, eta ezagutzera emateko aukera paregabe bihurtzen da.

Bake epailea eta ordezkia izendatzeko epea ireki dute

Lau urterako egindako izendapenaren iraunaldia amaitu denez, Gatzagako Udalak aditza eman du osoko bilkurari dagokiola udalerriko bake epaile titularra eta ordezkia izendatzea. Urriaren 21ean iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, hamaost egun naturaleko epea ireki dute interesa dutenek eta

legez ezarritako baldintzak betetzen dituztenek idatziz udaletxean eskaera aurkezteko.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, osoko bilkurak bake epaile titularra eta ordezkia hautatuko ditu eskaera aurkezten dutenen artean. Eskaerarik ez badago, osoko bilkurak askatasunez egingo du hautaketa, eta erabakia Lehen Instantziako eta Instrukzioko epaileari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiari jakinaraziko dio.



Jardun elkarteko Saioa Garitano, Harixa sinatzen, Gorka Artola (alkatea) eta Oihana Irusta (Erreka enpresa) atzean dituela. XABI URZELAI

Harixa sinatu dute, lan arloa euskaraz josteko

Bizitzaren beste esparru batzuekin alderatuta lan esparruan euskararen presentzia ahulagoa dela sinistuta, Udalaren ekimenez Bergarako 38 entitate eta enpresak Harixa hitzarmena sinatu dute, datozen lau urteetan betetzeko oinarritzko lau konpromisorekin

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako lan arloa euskalduntzeko ekimena da, finean, Harixa. Martitzenean, urriak 25, egin zuten egitasmoaren aurkezpena Miguel Altuna Lanbide Heziketaren egoitzan, eta bertan Gorka Artola alkateak azpimarratu zuen asko egin dela Bergaran lan mundua euskalduntzeko. "Hala ere, bizitzaren beste espa-

rru batzuekin alderatuta, lan munduarenean euskararen presentzia nabarmen ahulagoa da. Aipagarria da gaur egun 30 urte baino gutxiago dituzten eta Bergaran eskolatu diren herritar guztiek D ereduan egin dituzte la derrigorrezko ikasketak. Eskolaz kanpoko munduan –kulturan, kirolean edota aisialdian– aurrerapauso nabarmenak egin

dira azken urteetan eta, nagusiki, euskaraz funtzionatzen du".

Horregatik, Artolaren ustez, "behar-beharrezkoa" da eskola garaiko ohiturrei jarraipena ematea: "Helduaroan euskaraz bizitzeko aukerak zabaltzeko leku berezia izan behar du lan arloak, helduok bizitzan denbora-tarte handiena igarotzen dugun eremu-eremu bat delako eta lan mun-

dua gizarte-harremanen sorleku nagusietako bat delako".

Elkar laguntzeko baliagarria

Harixa ekimeneko lan-mahaia- ren izenean Erreka enpresako langile Oihana Irustak hartu zuen hitza ekitaldian, eta azpimarratu zuen hitzarmena sinatu duten 38 entitate eta enpresen artean askotariko izaera eta egoera linguistikoa egonda (Ikus ondoko taula), elkarri laguntzeko baliagarria izango dela ekimena: "Norbere errealitatek harago begiratzen jakitea garrantzitsua da, eta Harixak horretan lagunduko die enpresei. Gainera, oso aberasgarria da elkarrekin lan egiteko espazioak zabaltzea enpresentzat, elkarrengandik asko ikas dezakegu".

Oinarritzko lau konpromiso

Hitzarmenak lau urte iraungo du; bi urte igarota, konpromisoen ebaluazioa egingo da. Hain zuzen ere, honako hauek dira oinarritzko konpromisoak: enpresak Harixa programarako solaskidea izendatzea eta langileei hitzarmenaren berri ematea; enpresako hizkuntza-egoeraren diagnostiko laburra egitea, talde teknikoak finkatutako ereduaren arabera eta haren laguntzarekin; kideen arteko harremanetan euskara sustatzea eta, gutxienez, beste kideen euskarazko idatziak onartzea; eta urterako egitasmoa zehaztea eta bertan, gutxienez, ekintza berri bat jasotzea.

Industria enpresa izan gabe hitzarmena sinatu dutenek, hau da, ikastetxe, elkarte, banketxe eta bestelakoek, konpromisoa hartu dute lantegiekin dituzten harremanetan euskara bultzatzeko, adibidez, euren zerbitzuak euskaraz eskainiaz edota susta- pen-jardueretan lagunduaz.

Hitzarmena sinatu duten 38 entitateak

- Alet taldea SL.
- Bankoa Abanca.
- Belmek doitasun mekanizatuak.
- Bergarako Udala.
- Comercial Urcelay SA.
- Ecnarro kooperatiba.
- Elay-Lan SLU.
- Elkarlan estudioa SLP.
- Embalan 3 SL.
- Enpresare elkarte.
- Erreka kooperatiba.
- Errota-Gain SL.
- Fagor Ederlan kooperatiba.
- Industrias Fegar SA.
- Ferrotor zerbitzu metalurgikoak SL.
- Talleres Filber SL.
- Gehiber Machined Components.
- Jardun euskara elkarte.
- Kutxabank SA.
- Laboral Kutxa.
- Almacenes Lascar SL.
- Construcciones Mecanicas Jose Lazpiur SLU.
- Metagra Bergara SA.
- Miguel Altuna LH.
- Mujika burdindegia eta industria hornidurak SL.
- Royde kooperatiba.
- Rural Kutxa.
- Soraluze kooperatiba.
- Tecnosystem SL.
- Tornilleria Segur SA.
- Tratamientos Termicos TTT SA.
- Industrias Ugatu SL.
- Talleres Ukondartz SL.
- Zerbimek.
- Zetabi arkitektura SLP.
- Maderas Ipiñarri SL.
- Goitu Eraikuntzak SL.
- Izpi SL.



NIRE USTEZ

ANA CARPINTERO

Krisiak

Jakin badakigu, bai, behintzat, geure burua apur bat entzuten badugu, zer den guretzat egokia edo desegokia, onuragarria edo kaltegarria... Eta dena ondo doanean, primeran! Baina zerbaitek ongizatea eragozten digunean? Zer gertatzen da? Aldaketak, mugimenduak, erabakiak... deserosotasuna, konfort egoeraren hausketa, inguruko esamesak sortzen

ditu eta horrelakoak ez dira inorentzat eroso; beraz, lasaitasunaren izenean, egoera betikotzeko joera izaten dugu gizakiok. Baina nora garamatza erosotasun hipnotiko horrek? Nola irten egoera hipnotiko horretatik? Eraldaketa bide atseginetik eragiteko aukera badaukagu, baina ez dugu maiz erabiltzen. Askotan, ezin dugulako, kontziente ez garelako... Horregatik,

askotan, konfort egoera hori puskatzera datorren hori izaten da aldaketaren eragilea. Eta, normalean, datorrena desatsegina da: gaixotasuna, langabezia... Mugitzera garamatza, gure bizitza astinduz, krisian sartuz... Horregatik, ongi etorriak deserosoak, estuak, gogorrak diren eta gure konfort bizimodu horretatik ongizatera eramango gaituzten krisiak.

Organo erromantikoa: organo ikasleak protagonista bihar

Organo erromantikoaren nazioarteko 23. zikloaren barruan, kontzertua egongo da bihar, urriak 29, Santa Marina parrokiaren (20:00). Azpeitiko Juan de Antxieta eskolako eta Bergarako musika eskolako organo ikasleak izango dira emanaldi-ko protagonistak. Aurtengo nazioarteko zikloko azken kontzertua izango da ikasleena.

Zergetan %4ko igoera, "egoerak hala behartuta"

2023rako ordenantza fiskaletan %4ko igoera orokorra aplikatzea proposatu du EH Bilduk, besteak beste, KPIa %9an dagoela gogorarazi ostean; EAJk kontra bozkatu zuen, zergak igotzeko eta herritarrak "are gehiago" itotzeko garaia ez dela irizita

Jokin Bereziartua BERGARA

Udal zergek eta tasek %4ko igoera orokorra izango dute 2023an. Asteleheneko bilkuran, EH Bilduk kudeatzen duen Udal Gobernuaren proposamenaren (9) aurka bozkatu zuen EAJk (7), eta PSE-EEko eledun Alberto Alonso ez zen bilkuran egon, gaixo zegoelako.

EH Bilduk, koherentzia oinarri

Ogasun zinegotzi Aitor Arantzabalek azaldu zuen ze irizpide hartu dituzten aintzat igoera aplikatzeko: "Ordenantza fiskalak gaur egungo egoerara eguneratzea lehenetsi dugu. Horretarako, kontuan izan ditugu, batetik, herritarren zein Udalaren egoera ekonomikoa, eta, bestetik, kalitatezko zerbitzuak emateko helburua. 2022. urterako eta 2022-2023ko ikasturterako igoera %3,3 izan zen, KPIa %6,5eko izan zenean, eta une honetan KPIa %9an dago". Era berean, Arantzabalek azpimarratu zuen erantzukizuz-



Ordenantza fiskalen bozketa: EH Bildu alde (9) eta EAJ kontra (7). JOKIN BEREZIARTUA

nez jokatzeko dagokiela, mundu mailako egoera zein den ikusita: "Bergararrei zerbitzu publiko onak emateko konpromisoa daukagu. Horretarako, baina, daukagun diru-poltsa mugatua da, eta diru publikoaren kudeaketan

ari garenon betebeharrak da hori tentuz eta erantzukizunez zaintzea. Une honetan ezin dira hartu Udala etorkizunean hipotekatuko lituzketen erabakiak. Kontuan izan behar da, norberaren etxean bezala, udal zerbitzuak ematen dituzten eraikinetan ere, adibidez, fakturak izugarri hazi direla". Elektrizitatearen eta gasaren fakturak boskoiztu egin direla esan zuen, nahiz eta, azaldu zuenez, Udal Gobernuak kontsumoak murrizteko neurriak hartu dituen. Horrez gain, Diputazioko Foru Funtsetik aurreikusitakoa baino diru gehiago jasoko den arren, Arantzabalek dio ez dela nahikoa izango egoerari aurre egiteko.

Bestalde, hobarien arloa ere lantzen ari da Udal Gobernuak. Adibidez, IBIari lotutako dirulaguntza programa lantzen ari dira, errentaren araberakoa izango dena. "Progresibitatea eta koherentzia" izan dira ardatzak euren proposamenaren.

EAJren hiru arrazoiak

EAJk, aldiz, argi dauka ez dela zergak igotzeko unea, ez dela herritarrak "are gehiago" ito-

tzeko momentua, eta hiru arrazoi azpimarratu zituzten: batetik, aurtengo foru funtsa aurreikusi baino 800.000 euro gehiagokoa izango dela; bigarrenik, 25 urtean KPIaren gaintik onartu direla ordenantza fiskalak, eta, hortaz, ez litzatekeela ekitaldia hipotekatuko; eta, hirugarrenik, jeltzaleek diote altxortegian bada-goela gerakin bat gorabehera aurre egiteko erabilgarri egongo litzatekeena.

EAJko bozeramaile Maite Agirreraren arabera, EH Bilduren kudeaketa txarraren "beste ondorio bat" da. "Kudeaketa egoki, zuzen eta zorrotz batekin igoerarik gabeko proposamen bat egin ahalko litzateke, herritarrak itotzeko. Agintaldi osoan zehar ikusten ari gara kudeaketarik ezak eragiten diola Udal Gobernuari halako erabakiak hartu behar izatea".

ELEKTRIZITATE ETA GASAREN FAKTURAK BOSKOIZTU EGIN DIRA UDALAN, OGASUN ZINEGOTZIAK DIOENEZ



AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

Berener kooperatiba, kide bila

Energia Berriztagarrien Komunitateak Berener kooperatiba aurkeztu zuen urriaren 25ean UNEDen, 70 bat herritarren aurrean. Proiektuak "bide luzea" badu ere aurretik, bazkideztza kanpaina abiatu dute; interesdunek ehundu@ehundu.eus helbidera idatzi dezakete. Erabiltzaile fisikoek 100 euroko ekarpena egin beharko lukete eta erabiltzaile juridikoek, berriz, 200 eurokoa.



Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

Ondorengo ordenantza fiskalak aldatzea:

1. Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duena.
2. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena.
3. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena.
4. Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.
5. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden tasak arautzen dituena.
6. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden prezio publikoak arautzen dituena.

Erabakia udalbatza osoak 2022ko urriaren 24ko bileran hartu zuen. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, behin-behineko erabaki hau 30 lanegun jarriko da ikusgai jendaurrean udaletxeko iragarki taulan, interesatuek espedientea aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez jakinaraziko zaio jendeari, eta iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arazuko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berriak hartu beharrik izan gabe.

Bergaran, 2022ko urriaren 24an
ALKATEA

AGINTALDI AMAIERAKO ELKARRIZKETAK

"Analisia besterik egiten ez duen gobernu bat da"

ALBERTO ALONSO PSE-EE-KO BOZERAMAILEA BERGARAKO UDALEAN

Azken egunotako osasun arazoak gainditu ostean, "oso gogotsu" dago lanean jarraitzeko, oraingo alkategai aurkeztuko den zehaztu ez badu ere: "Ez dago nire eskuetan bakarrik"

Jokin Bereziartua BERGARA

PSE-EEko legebiltzarkide eta Bergarako zinegotzi, eguneroko lanpetua dauka Alberto Alonsok (Oñati, 1976). Luze eta zabal dihardu amaitzera doan agintaldiaz.

Ze balorazio egiten duzu agintaldiaz?

Oso agintaldi bizia izan da. Nork esango zigun hilabeteetan zehar gure etxeetan konfinatuta bizi beharko genuela eta egunero elkartu beharko genuela gure kaleetako egoera gogorraren berri izateko. Dena den, balantzean, paralisian dagoen gobernu bat ikusten dut, analisia besterik egiten ez duena. Txostenak agintzean, kontsultetan eta hausnarketa estrategikoetan oinarritutako kudeaketa egiten du, baina ez da gai herritarren egunerokoari kasu egiteko.

COVID-19a izan da protagonista. Egoera berria bezain gogorra, ezta?

Oso gogorra izan zen. Perspektiban ikusita, nolabaiteko irrealitatearen sentsazioa ematen dit. Gogoan ditut gainerako taldeetako ordezkariekin, alkatearekin, udaltzainekin eta Udaleko gainerako arduradunekin egunero izandako bilerak. Erabakiak azkar hartu behar izatea; baina gure araudia ez dago horretarako prestatuta. Osoko bilkurak etxetik, kalean zer gertatzen ari zen ezin jakinik. Oso gogorra izan zen guztiontzat; gure bizitza markatuko du luzaroan.

Ordezkarri publiko moduan nola bizi izan zenuen pandemia?

Oso kezkatuta. Urte asko daromatzen politikan eta, batez ere, sindikalgintzan. Krisi sakonak bizi izan ditut, hala nola 2008koak eta 2010ekoak; tentsio handiko uneak, lankideen lanpostuak eta soldatak jokoan... Baina sekula ez dut pandemian sentitu nuen beldurra eta kezka sentitu.

Utzi digu ondorioz COVID-19ak?

Nire ondorio nagusia da oso testuinguru konplexuan bizi



Alberto Alonso, Bergarako PSE-EEren egoitzaren atarian. PSE-EE

"TXOSTENAK AGINDU DITU GOBERNUAK, BAINA EZ DIO KASU EGIN HERRITARREN EGUNEROKOARI"

garela, eta ez dagoela irtenbide magikorik. Hainbat gairen arteko lotura konplexua dugu: aldaketa globala –hiperkontsumoan oinarritutakoa– eta baliabide natural finituen xahutzea –hala ere, inoiz amaituko ez balira bezala ustiatzen jarraitzen dugu–; gure bizitzak aldatzen ari den klima-aldaketa; aldaketa kultural sakona, uniformizazioz jotzen duena...

Udal Gobernuak ondo erreakzionatu zuen pandemiaren aurrean?

Ez nuke bidegabea izan nahi, egoera oso konplexua izan zen. Gobernuak asmatu egin zuen egunero larrialdiko mahai bat deitzean, eta udal taldeetako bozeramaileok ere mahai horretara joaten ginen. Erabaki desegokiak, baina, geroago etorri dira. Susperraldirako neurriak

"SOZIALISTOK GOBERNATZEN DUGUN HERRITAN ZERGAK IZOZTU DITUGU; MARRA GORRIA ZEN"

hartzeko garaia iritsi denean, Udala blokeatuta geratu da, bere ziliborrari begira, txostenen, planen eta azterlanen zain. **Nolako harremana izan duzu oposiziotik Udal Gobernuarekin?**

Pertsonen arteko harremanei dagokienez, harremana ona izan da; gutxitan galdetzen zaigu horien inguruan, eta uste dut interesgarria dela harreman horiek existitzen direla jakitea. ETaren amaieratik 11 urtera bakarrik esan daiteke pertsonen arteko harremanak onak direla, eta uste dut zintzoak direla. Harreman politikoei dagokienez, gehiengo osoa duen gobernu batekin egin dut topo. Gobernu horri enpresaburu txarrei bezala gertatzen zaio, ez baitaki informazioa eta parte-hartzea bereizten. Egingo den guztiaren

–edo ia guztiaren– berri ematen zaigu. Hori egia da... baina oso bestelako gaia da neurri horietan parte hartzea.

Lortu duzue akordio aipagarririk?

2021eko aurrekontuak adostu ditugu, familia ahulenei eskola-materiala erosten laguntzeko neurri garrantzitsuekin, etxebizitzak birgaitzeko eta eraikin eta azpiegitura publikoak desamiantatzeko laguntzekin.

Zertan ez zarete ados jarri zuentzat lehentasunezkoak diren gaietan?

2022ko aurrekontuetarako akordioa urrundu egin zen, sozialistok udal zergak izoztea defendatzen dugu eta. Ez da esate hutsagatik. Sozialistok gobernatzen ditugun udaletan egin dugu; Eibarren, Zumarragan eta Irunen, adibidez. Guretzat, hain testuinguru gogorrean, udal zergak izoztea marra gorria zen.

Ze iritzi duzue Larramendiko plantaz?

Eztabaida sakona da, eta sozialistek lasaitasunez eta ahalik eta informazio gehienarekin egin nahi diogu aurre. Eztabaida ez da bakarrik plantari bai edo plantari ez. Euskadin zer eredu ekonomiko eta sozial nahi dugun izan behar da eztabaidaren ardatza. Ezin dugu goizean gure industria, bere enpleguak, gure ekonomian duen pisua babestu, eta gero, arratsaldean, industria horrek berak sortzen dituen hondakinen aurka azaldu.

Zeintzuk dira zuen lehentasunezko proiektuak Bergararako?

Energia-eraginkortasuneko eta aurrezteko neurri guztien aldeko apustu sendoa egingo duen Bergara bat nahi dugu, Deba-goieneko beste herriekiko interkonexio iraunkorraren aldeko apustua egingo duena. Mugikortasun jasangarriko plan batekin, eta bere ekonomiaren elektrifikazioaren aldeko apustu sendoa egingo duen Bergara. Mugikortasun elektrikoa ezartzeko era guztietako erraztasunak jarriko dituen, eta bere enpresei eta autonomoei lagundu diezaiela eraginkortasun handiagoa lortzeko. Ukrainako gerrak eztabaidak eta ezegonkortasunak sortu ditu, denbora luzean geratzeko etorri direnak. **PSE-EEko alkategaia izango zara 2023ko udal hauteskundeetan?**

Ez dago nire eskuetan bakarrik. Hori bai, ni beti egon naiz prest nire alderdikideek eskatzen dituen erantzuteko.

San Joxepekoen egitaraua bete da dator datozen egunetarako

Datozen egunotan ere hainbat ekintza izango dituzte San Joxepe elkarteak: bihar, urriak 29, San Martin plazako txokolate-janean hartuko dute parte (Ikus 23. orria); azaroaren 3an, BetiOn zerbitzuaren aurkezpene izango dute, egoitzan, 18:00etan; hilaren 5ean, odol emaleen elkarteari esker ona adierazteko ekitaldia, egoitzan, 13:00etan; hilaren 7an, Sasoiaren ikastaroaren aurkezpene, egoitzan, 11:00etan; hilaren 8an eta 10ean, erorketen aurkako ikastaroa izango dute, egoitzan 16:30etik 18:30era; hilaren 10ean, Lizarrara joango dira, 08:30etik 18:30era; eta hilaren 16an, *Kotoizko kafeak* ekimenaren aurkezpene izango dute.

Euskaraldian izena emateko daiteke azaroaren 17ra arte

Azaroaren 17ra arte, bi modu daude izena emateko: online eta Euskaraldiaren lokalean; 10:00etatik 12:00etara eta 17:30etik 19:30era. Mahaiak egun arratsaldean eta zapatu goizetan jarzen dituzte, Irailan edo azokan. Bestalde, txapak azaroaren 2tik aurrera banatuko dituzte lokalean eta mahaietan, izena emanda dutenen artean.

OHARRAK

Ortuak: ikastaroa

San Joxepen kokatuta dauden ortu komunitarioak erabiltzen hasi aurretik derrigorrezkoa den ikastaroa egingo dute bihar, urriak 29; ortuetan, 09:30etik 13:30era. Hilaren 22an egin zen lehen saioa eta bihar bigarrena egingo dute: negia@bergara.eus edo 943 77 91 56.

Gabonetako argiak

Kontsumoa murrizteko asmoz, Gabonetako argi apaingarriak abenduaren 12tik urtarrilaren 6ra egongo dira pirtututa, 18:00etatik 21:30era.

Aurkezpene: Ernai

Gaur elkartuko dira, kartzela zaharrean (20:00). Ondoren, luntxa egongo da.

Gau ilun eta beltzenak izango dira datozen hiru

Herriko hainbat eragilek antolatutako Gau Beltza jaiko zenbait jarduera abian daude urriaren 19a ezkerre, eta hilaren 31ra arte badago zertan parte hartu; Deabru Beltzak-en 'Su danborrak' ikuskizunean eta Bautista Leprosuaren bisita gidatuan, adibidez

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Domu Santu Eguna hurbiltzearekin batera, Gau Beltza antolatu dute, Jardun euskara elkarteak sustatuta, Bergarako Udalak, Ugutz Toursek, Bedelkarrek, Ndank Ndankek, San Joxepe elkarteak eta Musika Eskolak. Urriaren 19an hasi ziren, tailerrekin eta hilaren 31ra bitartean egingo dira jarduerak. Duela urte batzuk, Jardunek kudeatzen dituen ludoteketan Arimen Gauaren lanbarekin hasi ziren, baina euskara elkarteak adierazi du herri mailan halako ekimena antolatu den bigarren aldia dela.

"Herriaren eta bertako eragileen parte hartzea" oinarri hartuta, hainbat helburu landu nahi dituzte festa honekin, hala nola euskararen erabilera indartzea, berdintasuna bermatzea, inklusibitatea lantzea, naturarekiko harreman orekatua izatea, herriko tradizioak ezagutu nahiz berreskuratzea eta euskal identitate lantzea.

Bertako tradizioak oinarri

Bada Gau Beltza Halloween-en eraginez sortu dela pentsatzen duenik, baina ez da hala, antolatu zailean esanetan, udazkenetik negurako egunen bueltan hainbat erritu egin izan baitira Euskal Herrian: "Gurea den festa dela sentitzea eta harro egotea nahi dugu, herriko haurrak eta nerabeak protagonista izan eta ospakizuna herrian elkarrekin sortzea".

Erritual batzuk mantendu badira ere, beste batzuk urteen poderioz galtzen joan dira. Horregatik, azaldu dutenez, tradizioa berreskuratu eta ohitura berriak sortzeko ahaleginean hasi dira udazkeneko egun ilunetako jaiak antolatzen hainbat herri.

Bergarar guztientzako egitaraua Proiektua herri osoari zabaltzeko asmoz, egitarau zabala pres-



LH-3 eta LH-6 artekoentzako *Misterio jolasak* tailerra, eguaztenean. IRATI ALBERDI

Gau Beltza jaiaren egitaraua

Antolatu diren jarduerak:

Urriak 28

- **17:30** Umeentzako tailerrak plazan.
- **Egun osoan**, Gozoki banaketa komertzioetan.

Urriak 29, San Martin plazan

- **11:00** *Fataia* dastaketa
- **11:30** Umeentzako tailerrak.
- **18:00** Musika Eskolako talde instrumentala eta abesbatza.
- **18:30** Txokolate-jana.
- **22:00** Deabru Beltzak-en *Su danborrak* [BERTAN BEHERA]

Urriak 31

- **18:00** Beldurraren etxea.
- **21:00 eta 23:00** Bautista Leprosuaren bisita gidatua.

tatu dute, beste herri batzuetan egindako ideiak jasota eta Bergarako egokiak iruditu zaizkienak moldatuta. Horrekin batera, Jardunetik aurreratu dute Euskaltzaleen Topaguneak Gau Beltzaren harira antolatutako ikastaro batean hartu zuela parte: "Bertan landutakoak eta ikasitakoak guztia errazago egiten lagundu digu".

Gaur, bihar eta etzidamu egingo dira jarduerak. Gaur, esaterako, dendetan gozokiak banatu dituzte. Bihar, berriz, *fataia* dastaketaz, musika ekitaldiaz eta txokolate-janaz gozatzeko aukera egongo da San Martin plazan. Gau Beltzeko kalejira eta Deabru Beltzak taldearen *Su danborrak* ikuskizuna izateko zen, baina bertan behera geratu da. Astelehenean izango dira LH-4tik LH-6rako ikasleei zuzendutako Beldurraren Etxea eta Ugutz Basaurik hezur-haragitutako Bautista Leprosuaren bisita gidatua; euskaraz 21:00etan eta gaztelaniaz 23:00etan. Doakoa da, baina plaza mugatuak dira. Horregatik, izena eman behar da ugutztours@gmail.com helbide elektronikoan edo 659 75 34 30 telefonoan.

Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen XVI. Mostra

Konpainiek euren lanak eszenaratuko dituzte azaroaren 3tik 6ra, pertsona guztiengana heltzeko helburuarekin

I.A.A. BERGARA

Azaroaren 3tik 6ra hartuko du Bergarako Taun Taun Teatroak antolatzen duen Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen Mostra. San Martin plazan, Seminarioan eta Munibe plazan erakutsiko dituzte lanak Euskal Herriko zenbait herritatik nahiz Kataluniatik, Argentinatik, Mexikotik eta Uruguaitik etorritako artistek.

San Martin plazan egingo da inaugurazioa, azaroaren 3an, eta, ondoren, *Trabajos de interior* lanaz gozatu ahal izango da. 4an, berriz, *Andante* maskara-antzer-

kia eta *Mierda de ciudad* lanak eskainiko dituzte. Zapatuan, *Pasos largos*, *Libèlul.la* eta *The Strambotik Kabaret*. Azken bi horiek 6an errepikatuko dituzte, *Trashhh* eta *Anima, Anima, Anima* laburrekin batera.

Halaber, Taun Taunek instalazioa jarriko du udaletxeko osoko bilkuren aretoan lau egunetan. Bisitariak ezusteko objektuak manipulatu dituzte, esperimentatu eta jolastu: 3tik 5era, 18:00etatik 19:00etara; eta 6an, 11:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 19:00etara.



MARINA MOZOS

Solasaldia Santestebanekin

Zinemaon taldeak antolatutako zinema emanaldien barruan, *918 gau* filma izan zen ikusgai eguaztenean Seminarioan, eta, ondoren, Arantza Santesteban zuzendariarekin solasaldia egin zuten bertaratu zirenek, Asier Altuna zinemagileak gidatuta. Azaroaren 2an izango da hurrengo saioa, eta *Tenés que venir a verla* eskainiko dute, arratsaldeko zortzietan hasita.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

I21
KALITATEA

Enpresa Registrada Nº90/025

AGINTALDI AMAIERAKO ELKARRIZKETAK

"Industriari herrian eusteko, plana falta da"

BASILIO ORMAZABAL EAJ-KO BOZERAMAILEA

Bost agintaldi daramatza Euzko Alderdi Jeltzaleko zinegotzi Antzuolako Udalean; horietako bi Gobernuan egin ditu, zinegotzi, eta hiru zerrendaburu, oposizioan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Ormazabalek azken agintaldiko balorazioa egin du, eta, bide batez, Antzuolan beharrezko jotzen dituen inbertsioak zeintzuk diren kontatu.

Nolako agintaldia izan da?

COVID-19ak baldintzatutakoa. COVID sasoiaren Gobernuak egin duen lana ondo baloratzen dut, baina onartu ziren zenbait politika ez genituen babestu. Olarango obra, esaterako, aurrekontuan sartuta zegoen, eta obra atzeratu egin zen. Gure ustez, orduan zen obra egiteko momentua, eta herriko taldeak sakabanatuta egotea ekidinduz litzateke. Uste dugu dirulaguntza gehiegi jarri zela; izan ere, herrian egiten genituen erosketak guztiak, eta horrek asko lagundu zion tokiko komertzioari. Hasieran beldurra izan arren, laguntza asko jaso zen eta Foru Funtza mantendu egin zen. Hala, inguruko udal guztiak soberakinekin geratu ziren. Antzuola milioi bat eta bostehun mila euroko gerakinarekin gertatu zen iaz. Hori dela eta, mailegua kentzeko eskatu genion Gobernuari; kostata, baina mailegua kendu zuten.

Proiektuak gauzatzeko "presa" egozten diozue Gobernuari.

Bai; soberakina dagoela ikusi dute eta presaka kreditu aldaketak eta gauzak egiten hasi dira agintaldi honetan. Eragileekin egon direla diote, eta gurekin ez da inor egon. Gainera, proiektuak ez dira urtearen barruan egiten. Badirudi herriaren aurrean itxura aldetik egiten dutela. Errekaldeko proiektuarekin berdin gertatu da. Gu ados gaude proiektuarekin, baina kreditu aldaketa planteatzen dute, landuta dagoen proiektua esku artean izan gabe, Diputazioarekin egon gabe eta baimen guztiak izan gabe. Presaka eta landu gabe egiten dituzte proiektuak.



Basilio Ormazabal jeltzalea, Olaran aurrean. MAIDAR ARREGI

"AUTOKARABANA GUNEA EGITEA PROPOSATU DUGU, LAPATZAN, ETA BIDERATZEAR DAGO"

Kudeaketari dagokionez, zerk arduratzen du EAJ?

Aurrekontuen kudeaketarekiko duten kontrolik ezak arduratzen gaitu. Osoko bilkuretan bizitakoa larria izan da. Ez alkateak eta ez idazkariak ere ez zekiten gerakinak amaitu egiten zirela. Esan, eta alferrik. Eta gauza bera gertatzen ari da aurrekontuetako zenbait partidarekin: argindarrarekin, adibidez. Ez dago kontrolik. Ogasun batzordean ez da fakturen zerrendarik erakusten eta lantzen. Horregatik, gaiak aurretik batzordean lantzeko eskatzen diogu Gobernuari. 2023ko aurrekontuak batzordeetatik pasatzea eskatzen dugu, ideiak batzordeetara ekarri eta bertan lantzeko, alegia.

"UDAL GOBERNUAK PROIEKTUAK PRESAKA ETA LANDU GABE ERAMATEN DITU AURRERA"

Zelakoa da harremana Gobernuarekin?

Ez dut inolako arazorik inorekin. Baina instituzionalki gutxietsita sentitzen gara, eta lanerako oztopoz beteta. Txostenak eta informazioa ez zaizkigu, gainera, garaiz heltzen.

Nolako aurrekontuak proposatuko zenituzke?

Datorren urtea *impasse* egoerakoa izango da. Batetik, hauteskundeak egingo direlako, eta, bestetik, aurten amaituko ez diren obrak egingo direlako; Ibarrondokoa, esaterako. Errekaldeko proiektua ere egin beharko da, eta datorren urtean gauzatu. Beraz, teoriarik, proiektu horien soberakinak egongo dira. Baina errealitatea da gauza berriak egiteko ez dela egongo gerakinik. Foru Funtsetatik

eta zergetatik jaso duguna soilik geratuko zaigu eta gure gastuak goraka joango dira. Horri gehitu HAPOk baldintzatuta daudela inbertsioak datozen urtetarako. Baina HAPOekin bateragarria ikusten dugu gure proposamen hau: Sagasti auzoko biribilgunetik Antiguarako bidea egitea. Kostua izango du, baina onurak ere baditu. Autobus geltokirako bidea erosoagoa izango litzateke eta HAPOk markatutako etorkizuneko inbertsioei begira ere errentagarria izango litzateke. Lapatzako gunean autokarabana gunea egitea ere proposatu dugu, eta badirudi bideratzeko bidean dagoela.

Eta behar du herriak? d

Gardentasun falta handia dago eta akzio plan zuzentzailek ere ez dago. Hau da, ekintzen balorazioa ere faltan igartzen dut. Adibidez, Olaran edo baserrietara ura eramateko obrak egin dira, baina ez dago horien baloraziorik. Proiektu guztiak atzerapenarekin egiten dira, gainera. Edota rokodroma ere egin da, eta ez dakigu zenbat erabilzaile dituen. Plaka fotovoltaiakoak ere jarri dira, eta ez daude martxan oraindik. Faltan igartzen dugu aspaldidanik, lau agintaldi, gutxienez, plan industrial bat. Errekak, adibidez, deslokalizatu eta zati bat eraman du.

Bestalde, autonomoendako laguntzak bideratzearen aldekoak gara. Herriko komertzioak ixten doaz, eta, horregatik, norbaitek negozio bat abiatu nahiko balu, gure proposamena litzateke autonomo kuota bi urtez Udalak ordaintzea. Horrez gain, udal instalazioetako energia aurrezteko planik ere ez du egin Udalak, eta plangintza hori ere behar du herriak. Herria zikin ikusten jarraitzen dugu, eta jada pasatako ekintzen kartelak kendu beharko lirateke. Berdin gertatzen da egoera txarrean dauden barandekin ere. Plan bat egon beharko luke horien mantentzea profesional batek egiteko.

Trekutz parke eolikoaren proiektua ez duzue babestu.

Hasierako proiektua oso bortitza zela aztertu genuen. Proiektu definitiboa ikustean hitz egingo dugu, herriarendako zelako onura ekar dezakeen ere aztertu behar da.

Berriro aurkeztuko zara?

Ez dut zerrendan joatea baztertzen, baina zerrendaburu gisa ez.

AKEk jarrera egokia izateko eskatu die taldeko zaleei

Aurreko astean Tolosaren aurka Eztalan jokaturako partiduan gertaturako jarrera ezegokiak medio, Gipuzkoako Futbol Federazioak 200 euroko isuna jarri dio AKERI. Eztala futbol zelaia ixteko ohartarazpena ere egin dio Federazioak klubari. Hala, AKEReko zuzendaritzak partiduetan jarrera egokia bermatzeko eskatu die zaleei.

Azaroaren 12an gaztaina-erre jana Landatxopen

Pandemia etorri aurretik egin zuten azken gaztaina-erre jana Landatxopen. Hala, ekintza berreskuratu eta bazkideendako hilaren 12an egingo dute, Torresoroan, 18:30ean hasita. Bestalde, Landatxopek antolatuta, gaur, bankuen zerbitzuen inguruko tailerra eskainiko du Kontsumobidek, 18:30ean, Olarango bigarren pisuan.

'Erre' antzezlanaren izango da Ikusle klubean aztergai gaur

Gaur, egubakoitza, 19:00etan Torresoroan *Erre* antzezlanaren eskainiko da Lankuren eskutik. Aurretik baina, Debagoieneko Antzerki Plataformak (DAP) antolatutako Karoi jaialdiaren baitan, *Ikusle kluba* egingo dute Olaranen 18:00etan. Bertan antzezlanari buruzko aurreiritziak eta bestelakoak partekatuko dituzte.

OHARRAK

Herri batzarra

EH Bilduk batzarra egingo da azaroaren 3an, 18:30ean, Olaranen.

'Euskal olatua'

Azaroaren 12ko deialdira autobusez joateko, Aitz-Garbin eman daiteke izena.

Beriainera irteera

Izena eman daiteke Arrolaren hilaren 5eko irteeran.

Herrixa Dantzan saioa domekan Espaloian

2020ko martxoan ezkerreko etenda egon ostean, domekan hasiko dira berriz Patxi Monterok gidatutako dantzaldi irekiak Elgetan. Urritik apirilera bitartean zazpi saio daude iragarrita; tartean, zuzeneko musikarekin egingo diren hainbat

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Ia hiru urteko etenaldia izan du Patxi Monterok 2010ean sortu eta ordutik gidatutako ekimenak. Espaloia kafe antzokiko Herrixa Dantzan dantzaldiak erreferentziatzeko dantzaldi eta bilgune izan dira herriko eta inguruko zaleendako, eta, Elgetako Udalen laguntzarekin, bueltan dira berriz. Domekan egingo dute itzulerako lehenengo dantzaldia, 19:00etan.

Urritik apirilera bitartean zazpi saio daude iragarrita, eta horietako hainbat zuzeneko musikarekin egingo dituzte. Esaterako, azarokoa, eta baita abenduko zubirako iragarrita dagoena ere. Azaroko saioan, Alboka taldeko hainbat kide eta Iker Allur soinu-jolea izango dira Elgetan. Abenduko zubirako, berriz, Escamot Catala taldearen bisita espero dute Elgetan. Data zehaztu barik dago, oraingoz.

Proposamen propioekin

Patxi Montero bera ere gogotsu dago Elgetako dantzaldiak berreskuratzeko. "Dantzaldi honek badu berezitasunik: formatuaren sinpletasuna, musikaren goxoa, tokia bera, eta... ezberdina dela. Tradiziozko dantza eta musika oinarrian beti, proposamen propioak plazaratzen ditu, bakarrak, ezohikoak. Saio bakoitza ere aurrekoaren ezberdina izan ohi da. Sorkuntza, aniztasuna eta irisgarritasuna –parte hartzeko erraztasuna– ditu ardatz, dantzan elkarrekin ondo pasatzeko helburuarekin", esan du.

Aurreko urteetako formatuarekin dator bueltan Herrixa Dantzan, baina dantza proposamen berriekin. Dinamika eta maiztasuna, salbuespenak salbuespen, betikoak izango dira. Modu orokorrean esanda, hileko azken domekan, 19:00etan, Espaloia kafe antzokian. Parte hartzea irekia da. Saioek ordu eta erdi iraungo dute.



Herrixa Dantzaneko saio bat, 2020ko martxoko etenaldiaren aurretik. GOIENA

"Bagatoz berriz, jada fundamentuz dantza egin dezakegulako"

PATXI MONTERO HERRIXA DANTZAN EKIMENEN SORTZAILEA

Herrixa Dantzan etenda egon bada ere, Patxi Montero ez da geldirik egon.

Zer da *Euskal Herriko plazetarako dantza berriak*?

Gipuzkoako Dantzaguneak *Sortutakoak* deialdiko *Tradizionalak* atalaren barruan garatu dudana proiektua da. Sormena bultzatzen du eta dantza berriak sortzean datza. Garrantzia ematen diot proposamenak fundamentuz egiteari; hau da, Euskal Herriko ikuspuntutik onargarriak, gertukoak eta gure moduan sentituko ditugun dantzak izateari, bai musika aldetik bai dantzako hizkuntza aldetik. Aurreko ikasturtean testatu nituen dantza berriak, eta orain, jendaurrean aurkezteko moduan daude.

Eta izango dute isla Herrixa Dantzan saioetan.



L.Z.L.

Domekako saioan ikusiko ditugu batzuk, baina aurkezpena azaroan egingo dugu, zuzeneko musikarekin. Alboka taldeko kide batzuk eta Iker Allur soinu-jolea izango dira Elgetan azaroaren 27ko saioan. **Ikastaro bat ere egongo da.** Dantzan Ikasi programako ikastaro bat egingo dugu azaroaren 26an. Hasiera batean, dantza irakasleei dago zuzenduta. Hausnarketa saioa ere izango da, zer egin dudana eta zergatik aztertzeke.



GOIENA

Zuntz optikoa sartzeko lanak

Lanak egiten ari dira egunotan Asentzio inguruko parajeen. Lubaki handi bat dago zabaldua, eta zuntz optikoaren hedapen-lanak dira. Zalbidetik abiatu eta Olatza azpiko bidetik zabaldu dute lubakia. Helburua da inguruko baserrietara zuntz optikoa sartzea, etxe horietan ere Internetarako abiadura handitzeko, eta seinalearen kalitatea hobetzeko.

Izaki ilunen una badator

Gaur ospatuko dute Arimen Gauda Elgetan. 17:30ean neska-mutikoen puska batzea eta 18:30ean festa egingo dituzte frontoi zaharrean. 20:30ean, berriz, beldurrezko ipuinen kontaketa izango da hilerrian, 10 urtetik gorakoendako. Beste publiko batendako DJ saioa egingo du Asier Hernandezek, gauerditik goizaldeko bostak arte, Bolatoki tabernan.



L.Z.L.

Euskaraldian izena emateko mahaia jarriko dute gaur

Eguaztenean elkartu zen Elgetako Euskaraldia Batzordea, eta elgetarren izen-ematea sustatzea izango dute hurrengo asteetako egiteko nagusia. Gaur egun, hamahiru arigune 72 *ahobizi* eta hamabost *belarriprest* daude izena emanda herrian. 2018an, 220 *ahobizi* eta 42 *belarriprest* izan ziren; eta 2020an, 173 *ahobizi*, 27 *belarriprest* eta hogeitaz arigune.

Izen-ematea sustatzeko egunak datoz, eta gaur arratsaldean mahaia jarriko du batzordeak plaza inguruan. Horrekin batera, salgai izango dira Euskaraldia girotzeko ateratako banderak. Bost euroko prezioan egingo dira salgai.

OHARRAK

Euskal dantzak

Euskal dantzak ikasteko hileroko saioa gaur, 19:00etan, kiroldegiko gimnasioan.

Xalbadorpe elkarte

Astelehenean Gernikako azokan egingo dute egun-pasa erretiratuek.

Garbigune ibiltaria

Mankomunitateak Salbador kalean ipiniko du garbigune ibiltaria, eguaztenean, 10:00etatik 21:00etara.

Erresidentzien eredu

Gizarte Politiketako diputatu Maite Peñak hitzaldia egingo du eguenean udaletxean. Gaia: erresidentzien eredu berria eta etxeko laguntza.

Erantzun ona ari da izaten Euskaraldia

Entitateetan jarri dute indarra eta herriko 60tik gora entitatek hartu dute konpromisoa hamabost egunez euskaraz aritzeko. Laster, lokala zabalduko dute Kale Barrian, eta azaroaren 5ean egingo duten 'Hitzez ekiteko' ekitaldia ari dira prestatzen

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Oñati erantzun ona ematen ari zaio Euskaraldiari. Dagoeneko herriko entitate ugari egin dute bat ekimenarekin, eta arigune izateko konpromisoa hartu. Norbanakoek parte hartzeko izen ematea ere zabalik dago, eta herritarrek ari dira *belarripres* eta *ahobizi* rola hartzen.

60 arigunetik gora

Urriaren 31n bukatzen da entitateek Euskaraldian emateko epea, baina herriko komertzio edo zerbitzu askok egin dute dagoeneko. Oraingoan, 60 arigunetik gora sortu dira herriko entitate ezberdinetan. Ariguneak dira, esaterako, herriko denda txiki asko, ikastetxeak, banke-
txeak, Udala, ostatuak, taberna asko, kooperatiba handi bi, el-karte gastronomikoren bat eta abesbatza, fundazio zein alderdi politiko bat. "Entitateetan jarri dugu indarra, bereziki, eta erantzuna oso ona ari da izaten", dio Euskaraldiko dinamizatzaileak, Maddi Txintxurretak. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean, toki horiek guztiak adierazgarriak izango dituzte jarrita, ariguneak direla esateko.

Norbanakoek izena ematen laguntzeko, QR erraldioak agertzen diren kartelak jarri dituz-



Izen-emate orrira bideratzen duen QRa agertzen den kartela kalean jarrita. O.E.G

te kalean; hori irakurrita, zuzenean hel daiteke herritarra izen-emate orrira. Dagoeneko ia 1.000ra heldu da izena eman duten herritarren kopurua.

Ekitaldia azaroaren 5ean

Entitateak zein herritarrek Euskaraldia batzeko gonbidapenak egitearekin batera, aurkezpen ekitaldi bat antolatu du Euskaraldiko herriko batzordeak azaroaren 5erako. Plazan izango da, 13:00etan, eta zuzeneko musika entzun, dantzak ikusi edo poesia

errezitaldia jarraituz gain, hainbat herritarrek hartuko dute hitza aurreko Euskaraldiko esperientziak eta oraingorako hartutako erronkez berba egiteko.

Kale Barrian, Itziar optikaren parean, lokala ari dira prestatzen, eta han banatuko dituzte, esaterako, txapak, eta informazioa emango dute laster. Laguntza eskaintzeko edo zalantzak argitzeko, batzordearekin ere jar daiteke interesatua harremanetan. Horretarako bideak dira: onati@euskaraldia.eus edo 688 67 93 04.

Ariguneak dira



SAN MARTIN EGOITZAKO LANGILEAK

"Lau arigune sortu ditugu San Martin egoitzan: harrera, eguneko zentroa –sei erizain eta gizarte laguntzaile bat–, botikina –hiru erizain eta mediku bat– eta batzar nagusia –psikologoa, bi monitore, gizarte laguntzaile bat, zuzendaria eta arloko arduraduna–. Gune horietan, normalean, euskaraz aritzen gara, baina Euskaraldiarekin bat egin eta hamabost egun horietan euskaraz jarduteko konpromisoa hartu dugu. Kabiak badu bere euskara plana, hemen ere badugu Euskara Batzordea eta Udalak ere animatu gaitu Euskaraldian parte hartzera. Eta horixe erabaki dugu, ariguneak sortzea egoitza barruan. Lehen aldia da. Denon artean egingo dugu".



ALOÑA MENDIKO FUTBOL SAILA

"Egunerokoan, eta egoera puntualen bat salbu, euskaraz funtzionatzen du Aloña Mendiko futbol sailak. Ditugun entrenatzaileak eta delegatuak, esaterako, euskal hiztunak dira eta euskaraz lan egiten dute jokalariekin. Komunikabideetara zein Federaziora bidaltzen ditugun jakinarazpenak edo oharrek ere euskaraz bidaltzen ditugu. Euskara modu naturalean erabiltzen dugu futbol sailean, eta, alde horretatik, ez digu aparteko esfortzurik eskatuko Euskaraldian euskaraz aritzeak. Baina garrantzitsua iruditzen zitzaigun Euskaraldiarekin bat egitea eta atxikimendua erakustea, entitate garen aldetik. Aurrekoan ere arigune izan zen gure kirol saila, eta oraingoan ere bai".

Oraindik badago tokia Jabetze Eskolako hainbat saiotan

Jabetze Eskolak antolatutako sei ikastaroetan tokia dago oraindik eta izen ematea azaroaren 1era arte luzatu dute. Amatasunaren inguruko hausnarketarako taldean, autodefentsa feministan, eskola feminista iraunkorrean, noka ikastaroan, alternatiba ekofeministak eraikitze-ko taldean eta arrazakeriaren aurkako genealogia feministak

irakurle taldean izena emateko aukera dago, hain zuzen ere, datorren martitzenera arte. Udaleko webgunean eman behar da izena: www.onati.eus. Kontrara, yoga ikastaroan eta zoru pelbikoa indartzeko tailerrean plaza guztiak bete dira eta gizonak feminisemorantz bideratzeko proposamenak ere erantzun ona izan du. Aldiz, mendi orientazioan sakontzeko ikastaroa ez da atera. Ikastaroez gain, hitzaldiak eta ikuskizuna ere antolatu dituzte udazkenerako.

Hezkuntza Legeari buruzko hitzaldia dago eguaztenean

Oñatiko EH Bilduk antolatuta, Hezkuntza Legeari buruzko hitzaldia egongo da eguaztenean, azaroak 2: *EAEko hezkuntza legea. Hezkuntza sistema eskaldun, publiko, komunitario eta burujabearen bidearen aukerak eta arriskuak*. Hizlariak izango dira Ikoitz Arrese eta Nora Salbotx. Santa Ana antzokian izango da, 18:30ean.

Bisitak eta irteerak antolatu dituzte asteburu luzerako

Oñatin eskaintzeko duena erakusteko bisitak eta irteerak antolatu ditu Udako Turismo Sailak datorren asteburu luze honetarako. Arantzazuko parke-
txea, Arrikruz kobak, Arantzazuko santutegia, Pottokaleku, Txokolateixia eta Turismo Bulegoa zabalik egongo dira herritarrendako. Bisitak aurrez erreserbatzea komeni da.

OHARRAK

Lezesarriko kofradia
Lezesarriko kofradiak urteko ohiko bilera egingo du domekan San Esteban ermitan, 11:45ean. Ondoren, meza eta luntxa izango dute.

Kanposantuan

Azaroaren 1ean jende asko joan ohi da kanposantura, eta baliozko gauzak agerian ez uztea gomendatzen du Udaltzaingoa.



Izaro Elorza eta Xabier Igartua, Zubikoa kiroldegi gainean, eguzki plakak atzean dituztela. IÑIGO BARRENA

Energia erronkei erantzuteko zortzi ildo

Egungo egoerari eta datozen erronkei erantzuteko zortzi esku-hartze biltzen dituen Oñatiko Energia Plana egin du Udalak. Argindarraren prezio justua lortzea, energia sorkuntza berriak sortzea eta auto elektrikoendako karga-lekuak jartzea dira hiru

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Energia alorrean dagoen tesuinguru nahasian, zortzi esku-hartze konkretu bildu ditu Udalak, Energia Planaren barruan. "Egoerak erantzun beharra exijitzen duelako eta aurrera begira izango ditugun etorkizuneko erronkei heldu beharra dugulako; esaterako: energia berriztagarriak, efizientzia energetikoa, argindarraren prezio justuagoa, merkatuarekiko dependentzia murriztea, eredu justuagoa izatea eta informazioaren gardentasun handiagoa edukitzea", Izaro Elorza alkateak asteko aurkezpenean adierazi duenez.

Zortzi esku-hartze

Izaera askotariko zortzi lan-ildoetatik garrantzi handienetarikoa duena da, alkatearen ustez, argindarraren merkatuko espekulazioak herritarrengan ahalik eta inpaktu txikiena izatea. "Puntu hau da, agian, herritarrengan eragin handiena izango

duena. Oñatiko energia berriztagarrien merkaturatzailea sortzeko urratsak egiten gabiltza herritarrendako argindarraren prezio justua lortzeko, egungoarekin ezin da lortu eta".

Energiaren zein gasaren fakturak irakurtzen laguntzeko aholkularitza bulego bat zabaltea da beste asmo bat; eta hirugarrena, argindar sorkuntza berriak martxan jartzea. "Egun, Oñatiko Ur Jauzien bitartez, 13 GWH lortzen dugu urteko, gutxi gorabehera, herriko etxebizitzetan kontsumitzen dena, industriak alde batera utzita. Eurite garaian energia asko sortzen da, baina udan etenda egoten da, eta gurako gure beste energia sor-

XEHETASUNAK PLAN BAKOITZA GARATU AHALA EMANGO DITUZTE; AURTEN GEHIENAK

kuntza batzuk ere egotea, horren osagarri. Oñatiko espazio guztiak aztertzen ari gara, aukerak ikusteko. Asmoa da 2 Mg-ko potentzia izango duten proiektuak sortzea. Puntu honetan, baina, argi daukagu ingurugiroarekiko inpaktua zaindu behar dugula, ahalik eta txikiena izateko", azaldu du Xabier Igartua zinegotziak. Energia erakin publikoetan eta argiteria publikoan nola aurreztu, autokontsumorako plakak jarri -kiroldegiko kantxa berdean lehenak- eta auto elektrikoek karga-lekuen azterketa auzoz auzo egitea dira beste esku-hartze batzuk.

Agintaldi hasieratik

Alkateak azaldu du agintaldi hasieratik ari direla energia plana lantzen eta datozen astetan emango dituztela lan-ildo bakoitzaren xehetasunak. Igartuak gehitu du D2030 egitasmoarekin, Mankomunitatearekin eta beste entitate batzuekin ari direla lankidetzan.



OIHANA ELORTZA

Arkeotopaketak, bigarrenez

Euskal Herriko zein kanpoko hogeitasei ikerlari eta aditu ari dira parte hartzen Oñatiko Unibertsitatea izena duten arkeotopaketetan. Euskal historiaurrearekin lotuta, eguneratzea eta etorkizuneko erronkak zehaztea da aurtengo jardunaldien helburua. Historiaurrea ikertzen duen Gizapre talde egonkorra eratzekeo batzarra ere egin dute.



NIRE USTEZ

UXUE MONTERO

Atzamarra

Hona hemen ikusi bezain pronto berezia dela ohartzen den liburu bat: *Atzamarra*, Asun Agiriano Altuna arrasatearrak idatzia, Marina Garcia Fernandezek ilustratua eta Elkar argitaletxeak urrian argitaratua.

3 urterekin Asun amonaren eskutik zihoala, auto batek biak harrapatu zituen. Amona, zoritxarrez, hil egin zen; Asunek, denbora luzea ospitalean emateaz gain, atzamar potoloa galdu zuten. Bi galera horiek dira istorio autobiografiko honen hariak.

Marina Garcieren ilustrazioek, benetako aurpegiak eta memoriak asmatutako irudiak ekartzen dituztenek, Agirianoaren poema txikiak laguntzen dituzte. Denek batera sortzen dute poema-liburu ilustratu hau, pena eta zirrara sentiarazten diguna, eta amona eta atzamar potoloa bat-batean galdu zituen neskatxoaren xalotasuna transmititzen diguna.

Letra gutxi, sentimendu asko, Asunen oroitzapenek sortu duten istorio hunkigarri honetan. Eskuen artean edukitzea eta bere orrietan murgiltzea merezi du.



Mauriziak Ez Dau Inor Hil taldeko hiru kide. JONE ALBENIZ

Eskaintza zabalarekin dator Beratu jaialdia

Azaroaren bigarren asteburuan ospatuko da musika jaialdia. Ikusleek, hiru egunetan musika estilo ezberdinak batzen dituzten lau kontzertuekin gozatzeko aukera izango dute. Azpimarratzeko artean, 'Mauriziak ez dau inor hil' taldearen kontzertua

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

2020an gertatu bezala, aurten ere, Beratu musika jaialdia udazken giroan ospatuko da. Azaroaren 11 eta 13a bitartean ikus-entzuleak gozatzeko moduko lau kontzertu izango dira, gaztelekuan, Antixena gaztetxean, Lazarraga lorategian eta Eltzia tabernan; azken hori aurtengo espazio berrietako bat da. Nerea Zubiak antolakuntzako kideetako batek aitortu du jaialdia errotuta dagoela herrian: "Jendeak Beratu entzuten duenean badaki musikarekin lotutako zerbait badatorrela, eta horrek jaialdiak izen bat duela erakusten du".

Bosgarren edizioa izango da aurtengoa, eta Zubiak jaialdiak duen esentzia zein den nabarmendu du: "Kalean egiten diren ekintza asko uda giroan egiten dira eta Beraturekin lortu nahi duguna da etxean gehiago gauden urteko momentu horietan etxetik irteteko eskaintza bat ematea".

Beratu jaialdiaren egitaraua

Lau emanaldi azaroko bigarren asteburuan

Azaroak 11

- 22:30 La Elite. Antixena gaztetxean. 5 euro.

Azaroak 12

- 18:00 Yaima Orozco. Eltzian. Doan.
- 20:30 Mauriziak Ez Dau Inor Hil. Gaztelekuan. 8 euro aurrez eta 10 leihatilan.

Azaroak 13

- 13:00 Goxua N'salsa. Lazarraga lorategian – euria bada, gaztelekuan–. Doan.

Kalitatezko emanaldiak

Aurtengo parte hartzea "zabala eta kalitatezkoa" dela esan du Zubiak, eta urtero jaialdiak horixe bera duela asmo gaineratu. Ez da gutxiagorako, aurten izango den parte hartzea ikusita. La Elite, Goxua N'salsa, Yaima Orozco eta Mauriziak Ez Dau Inor Hil musika taldeak izango dira ikusgai taula gainean. Azken hori da azpimarragarriena, musikaz haratago doan proiektu bat ari direlako osatzen, mezu sendoak emanez eta musikaz gain, ikuskizun batez gozatzeko aukera ematen dutelako.

Tailerrak eta mahai-inguruak, ez

Aurtengo jaialdiaren hutsuneak izango dira horiek. Antolakuntzako Nerea Zubiak azaldu duenez, COVIDak "eragin zuzena" izan du horretan: "Jaialdia prestatzen hasi ginenean murrizketak zeuden, eta ez geneukan argi hurrengo hilabeteak nolakoak izango ziren; beraz, horiek ez programatzea erabaki genuen".



Entzunaldiaren aurkezpena. ANABEL DOMINGUEZ

'Entzunaldia'-ren kontzertu denboraldi berria aurkeztu dute

Sei kontzertuz osatuta, "profil askotariko" ikus-entzuleak erakartzeko asmoarekin antolatu dute

I.B.K. OÑATI

Oñatiko Musika Bandak aurtengo ikasturterako kontzertuen denboraldi berria aurkeztu du, *Entzunaldia* izenarekin. Azarotik datorren urteko maiatzera bitartean, ordena honetan, Naturaldia, Euskaraldia, Maitasunaldia, Musikaldia, Animaldia eta Historialdia izeneko sei kontzertu eskainiko dituzte. Aurtengo helburuetako bat da "publiko desberdinak" erakartzea, eta, batez ere, haurrak eta gazteak, "etorkizuneko publikoa". Bestalde, *Musika auzoetan* ekintza ere aurrera eramango dute aurten; lekuetako bat Arantzazu izango da.

Estreinako kontzertua azaroaren 13an izango da, Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan (13:00). Hurrengo kontzertuen lekua eta ordua berdinak izango dira. Tartean, denboralditik kanpo, Gabonetako kontzertua izango

da, abenduaren 18an egingo dena, eta datorren urteko urtarrilaren 6an, denboraldi barruko bigarrena izango dena. Hortik aurrera egingo diren lau emanaldien datak zehazteko daude oraindik. Kontzertu guztietako sarrerak doakoak izango dira.

Eragileen laguntza

Denboraldi berriak herriko eta kanpoko eragileen presentzia ere izango du. Musika Eskolako ikasle gaztetxoek eta Oñatiko Banda Gazteak, esaterako, garrantzi berezia dute programa horietan, Musika Bandaren etorkizuna direlako. Horretaz gain, Oñatz Dantza Taldea, erraldioen konpartsa, Miel Guridi narratzailea eta Camdem Town dantza taldea izango dira denboraldi berriko kontzertuetan lagundu eta parte hartuko dutenak.

Filatelia erakusketa

Astehenetik hasita, Oñatiko Filatelia Elkarteak antolatuta, filatelia erakusketa izango da ikusgai kultur etxean, azaroaren 6ra bitartean; urriaren 31n eta azaroaren 1ean, berriz, itxita egongo da, jaieguna direlako. Arratsaldeko seietatik zortzietara bisitatu ahal da erakusketa. Gaiak *trenak, loreak, maila-art* eta *emakumeak filatelian* izan dira.



OIHANA ELORZA



EYHARTS • 112 INGUMA • LETAGIN

Bergarako Seminarixoa | **Urriaren 28a, egubakoitza** | 21:30

Chill out gunea, 20:00etatik aurrera, San Martin plazan (Errege Seminarioaren arkupeetan), DOAN
Artista gonbidatua: Iban Borgas (DJ BRGS)

Sarrera arrunta **4€** • *Goiena app*-ean alta ematen dutenek **2€** • Goienakideek, *Goiena txartela* erakutsita **0€**

Azaroak 11

**AIERT • BROKEN LEGACY
SUKENA • BALARRASA**

Azaroak 25

**KTARSIA • ILUMINATIZZ
ERROMINTXELAK • ETXEPE**

Abenduak 16

**ARRAGOA • ISLABAT
ORHI • SINDY BERBENAS**

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanikidetzia, Gazteria
eta Kirol Departamentua



BABESLEAK

Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Depe



LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



Hasi dira datorren urteko egutegia irudikatzen

MENDI LASTERKETAK Denboraldia amaitu barik egonda ere, Debagoieneko hainbat lasterketatako antolatzaileak hasi dira 2023ko lasterketak iragartzen. Aste barruan aurkeztu dute, Elgetan, martxoaren 26an egingo duten Ahuntzen lasterketa

Xabier Urzelai ELGETA

Mendiko lasterketen denboraldia oraindik ez dute amaitu. Debagoienean, San Silbestre Trail lasterketarekin –abenduaren 31n egingo dute– agurtuko dute debagoiendarrek urtea, eta segituan hasiko dira 2023ko lasterketak. Antolatzaileak, baina, hasi dira datorren urteko egutegiak izango duen itxura irudikatzen. Elgetan, esaterako, gogotsu daude aurten horren zapo gozoa utzi duen Ahuntzen lasterketaren bigarren edizioa egiteko.

Martxoaren 26an egingo dute bigarren edizioa, eta antolatzaile elgetarrak lanean daude jada, aste barruan egin dute lasterketaren aurkezpena. "Azaroaren 1ean zabalduko dugu izen-ematea –herrikrosa.eus–, eta, iaz salgai jarri genituen 200 dortsalak segituan agortu zirenez, parte-hartze kopurua 300 lagunera igotzea erabaki dugu. Lasterketaren ibilbidean ez dugu aldaketarik egingo, 15 kilometro izango ditu, eta 900 metroko desnibel positiboa. Ibilbidea ez da teknikoa, eta lasterketa ez da gogorra, baina bai, komeni da etxeko lanak egitea, apur bat prestatzea", adierazi du Intxor-tako Ahuntzen taldeko ordezkari Iratxe Alonsok.



Aurtengo Ahuntzen lasterketako irteerako irudia. GOIENA

DORTSAL KOPURUA HANDITZEA ERABAKI DUTE ELGETAN: 300 EGONGO DIRA SALGAI AZAROAREN 1EAN

Boluntarioei esker

Ahuntzen lasterketako lehenengo edizioa egiteko herritarren babesa izan zuten: "Eta bigarren ediziorako ere beste horrenbeste beharko dugu". Hala, nagusien lasterketan aldaketa handirik

ez, baina gazteen probarako 12 urtetik beherakoek ere lasterketan parte hartu ahal izango dute; betiere, gurasoen baimena badute. Guztira, 50 dortsal egongo dira gazteendako, eta haiek bai, egunean bertan eman ahal izango dute izena.

Aloñako Igoera, apirilaren 23an

Elgetakoa ez da proba noiz egingo duten aurreratu duen bakarra: Aloñako Igoerak ere sare sozialetan aurreratu du apirilaren 23an egingo dutela 2023ko edizioa.

Kortazar eta Osa, Madeiran lehian

Domekara bitartean, Golden Trail Serieseko finalak jokatzeko dabilta Madeiran (Portugal). Eta Salomon etxeko ordezkari Oihana Kortazar elgetarra eta Malen Osa oñatiarra munduko mendi lasterkari onenekin batera daude.

Kortazar Espainiako ultratrail txapelduna izan berri da, joan den astean Sanabrian lehenengo sailkatuta.



Kortazar, Sanabriako ultra proba irabazi berriren, urriaren 18an. DELA FOTOGRAFIA

Puntu beharrean dauden Mondra eta UDA, aurrez aurre

FUTBOLA Sailkapenean atzealdean daude bi taldeak; zapatuan (16:30) neurtuko dituzte indarrak, Mojategin

X.U. ARRASATE

Mondraren eta Aretxabaletaren arteko derbia izango da bihar, zapatua, Mojategin (16:30). Zazpi jardunaldi jokatu eta gero, bost puntu dituzte aretxabaletarrek eta hiru arrasatearrek. Hala, egoera horri buelta emateko asmoz zelairatuko dira bi taldeak; izan ere, aspaldiko urteetan bi talde horiek ez dute izan puntuak batzen hasteko halako premiarik. Joan den astean, Zumaian lau gol jaso zituzten arrasatearrek (4-1), eta Aretxabaletak 2-2 egin zuen Zarautzen kontra.

Aloña Mendik eta Bergarak ere etxean jokatuko dute, eta biek ezohiko ordutegian jokatuko dute, zubia dela eta. Oñatiarrek domekan beharrean zapatuan (16:00) hartuko dute Elgoibar. Eta Bergarak zapatu eguerdian (12:00) jokatuko du, Vasconiaren kontra.



Azken derbiko irudia, lbarran. GOIENA

Emakumezkoek, kanpoan

Joan den astean, 1-5 galdu zuten bai Bergarak eta baita Leintz Arizmendik ere. Arantza ateratzeko asmoz, bergarrek domekan (17:00) jokatuko dute, Irunen, eta Leintz Arizmendikoek zapatuan (16:00), Zumaian.

Hirugarren mailako liderra da Mondrate, bostetik lau irabazita

ARETO FUTBOLA Arrasateko taldeak iazkoa baino liga hasiera hobea egin du, eta kategorian agintzen dabil

X.U. ARRASATE

Hirugarren nazional mailan bost jardunaldi jokatu dituzte, eta, lau partidu irabazi eta bat berdindu eta gero, Mondrate kategoriako liderra da. "Egia esan, ez genuen espero horren ondo hastea, baina pozik gaude. Taldeak entrenatzaile berria du, Arkaitz Ribera, Xabi Iñurria ere berria da, eta euren ekarpena nabarmena da", adierazi du Xabi Gorroñogoitiak. "Egia da, baita ere, Iker Uribealgo galdu dugula; Bigarren Mailara jokatzerako joateko aukera izan zuen eta taldetik animatu egin genuen, aukera oso polita zelako. Baina iazko jokalaririk nabarmenetako bat izan zen. Ea haren hutsunea ez dugun askorik sumatzen; oraingoan, ondo gabilta". Hala, Mondratek atzealdean dabilen Kukuyagaren kantuan jokatuko du.



Laskurainen kontrakoa. GOIENA

Eskoriatzak ere kanpoan

Eskoriatzak liga hasiera apalagoa egin du –bederatzigarren daude, bi partidu irabazita–, baina estutasun barik dabilta. Hain zuzen ere, oraingo asteburuan Elorrietakori egingo diote bisita.



2019an Antxintxika lasterketan aulki bereziekin parte hartu zutenen eta boluntarioen talde erretratu. GOIENA

Jendea behar dute aulkiei bultzaz egiteko

ATLETISMOA Azaroaren 5ean egingo dute Antxintxika krosa. Eta, 2019an lehenengoz egin moduan, aurten ere aulki gurgildun bereziekin hamahiru lagunek hartuko dute parte. Aulki horiei bultzaz egiteko boluntarioak behar dituzte, hamar lagun inguru

Xabier Urzelai BERGARA

Astebete geratzen da Antxintxika kroserako, eta, aurten ere irteera puntuan batuko diren 400 korrikalari inguru-ekin batera –oraingoz, 215 lagunek eman dute izena, *kirolprobak.com* webgunean–, desgaitasun fisiko eta psikikoak dituzten ume eta helduek ere Soralueze eta Bergara lotzen dituen lasterketan esku hartu ahal izango dute. 2019an jarri zuten ekimen hori abian, Orkly enpresak erositako aulki bereziak erabili zituzten, eta bai aulkietan joan zirenek eta baita aulkiei bultzaz egin zietenek ere arratsaldea giro ederrean pasa zuten: "Iazkoa sekulakoa

izan zen, eta aurten ere irteera puntuan izango dira hamahiru lagun. Bada, deialdia zabaldu genuen boluntarioak behar genituela esateko, eta jendea animatu da, baina oraindik 10-12 lagun inguru behar ditugu. Azken baten, komeni da aulki bakoitzaren ondoan 4-5 lagunek taldea joatea erreleboka bultzaz egiten, eta talde batzuetan kopuru hori osatzea falta da". Hala, laguntzeko interesa daukatenean 688 63 51 53 telefonora deitu behar dute.

Aulki horietan joango diren gaztetxoek korrikalarietara batera hasiko dute lasterketa, 17:00etan, baina beste modalitate batzuk ere izango dira, eta

haiek 16:30ean hasiko dute proba: "Handbikean eta aulki gurgildunean dabiltzanak irtengo dira orduan, tartean izango da duela aste gutxi Zumaiako triatloia egitea lortu zuen Joseba Azkarate, eta 16:45ean irtengo dira patin gainean dabiltzanak".

AEA ikertzeko laguntza

Aurtengo nobedadeetako bat da izen-ematearen zati bat AEA (ELA) gaixotasuna ikertzeko bideratuko dutela, eta, horrekin batera, debagoiendar azkarrenek Mikel Crespo eta Oliver Hernandez sariak jasoko dituztela: "Taldekideak genituen biak, eta lasterketa eurak gogoan izateko ere baliatuko dugu".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

GIZ. OHOR. ERREG.

Bergara-Vasconia

Zap. 12:00. Ipintza.

Aloña Mendi-Elgoibar

Zap. 16:00. Azkoaga.

Mondra-Aretxabaleta

Zap. 16:30. Mojategi.

EMAK. OHOR. ERREG.

Zumaiako-L. Arizmendi

Zap. 16:00. Zumaia.

Mariño-Bergara

Dom. 17:00. Irun.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Aretxabaleta-Urdaneta

Zap. 16:00. Ibarra.

Baskonia-Bergara

Zap. 16:00. Basauri.

GORENGOEN MAILA

Segura-Mondra

Zap. 16:00. Segura.

Elgoibar-Antzuola

Zap. 17:30. Mintxeta.

Ordizia-Bergara

Zap. 18:45. Altamira.

Aretxabaleta-Illintxa

Dom. 16:30. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Kukuyaga-Mondrate

Asteart. 17:15. Etxeba.

Elorrietako-Eskoriatza

Zap. 18:30. Bilbo

GIPUZKOAKO TXAP.

Lazkao-Mondrate

Egub. 20:15. Lazkao.

Ingou C. Aloña-Zald.

Zap. 16:00. Zubikoa

SASKIBALOA

EBA

Ardoi-MU

Dom. 17:20. Zizur N.

EMAK. LEHEN MAILA

MU-Leioa

Zap. 20:00. Iturripe.

GIZ. LEHEN MAILA

Urgatzi-MU

Zap. 18:00. Gasteiz.



Saskibaloia jokalaria. I.S.

GIZ. GIP. TXAPELKETA

Azkune-Soraluce BKE

Gaur. 20:00. Donost.

Mekalki A.-Dolphins

Zap. 18:00. Zubikoa.

ESKUBALOA

GIZON. EUSKAD. TXAP.

Urduliz-Fagor Arra.

Zapatua. 18:00. Urdul.

EMAK. EUSKAD. TXAP.

Const. Aloña-Ereintza

Zap. 18:00. Zubikoa.

GIZ. GIPUZK. TXAP.

Leizaran-Mugarri I.

Zap. 19:00. Andoain.

Soraluce BKE-Urolo

Zap. 16:00. Labegarai.

PILOTA

Oñati: Gaur (18:15) bost partidu.

Aretxabaleta: Gaur (18:30) zazpi partidu. Zapatua (16:00) partidu bat.


Bergara: Gaur (19:00) bost partidu. Zapatua (11:00) hiru partidu.

Arrasate: Gaur (19:30) hiru partidu. Zapatua (16:00) bi partidu.

Antzuola: Gaur (19:00) Bi partidu.

KARATEA Zaragozatik brontzea ekarri du Iosu Madinabeitiak

Zaragozan egin dute, asteburuan, karate, parakarate eta kobudo txapelketa, eta 500 kirolari baino gehiago batu dira hitzorduan. Bada, Saioa taldeko ordezkari Iosu Madinabeitia brontzezko dominarekin itzuli da, eta merituzko lorpena izan da, tartean izan dira-eta Espainiako txapelketetan dominak eskuratutako karatekak.



Madinabeitia anaiak Zaragozan. C.S

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

DANBAKA

URRIAREN 29AN. ZAPATUAN.

17:00ETAN ETA 22:30EAN

URRIAREN 30EAN. DOMEKAN.

14:00ETAN ETA 19:00ETAN

THE CLAYTON ETA JASAN

goiena

Zu hemen zaude.



DANBAKA))))



Arrasateko 112 taldea. 112



Letagin laukote oñatiarra. LETAGIN



Eyharts bikote bergarra. EYHARTS



Inguma boskote oñatiarra. INGUMA

Bosgarren Danbaka lehiaketako bigarren sorta dastatzeko gertu

Bergarako Eyharts, Oñatiko Inguma eta Letagin taldeak eta Arrasateko 112 laukotea izango dira, 21:30ean hasita, Seminarixoko barruan lehian, eta Aretxabaletako Iban Borgasek, 'DJ BRGSS', girotuko du San Martin plazan kokatutako chill out gunea

Aitziber Aranburuzabala BERGARA Debagoieneko hogeit hamar musika talde diskoa grabatzeko saria eskuratzeko lehian ari dira Goiena Komunikazio Taldeak antolatuta eta, oraingoan, Bergarako Udalararen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuaren eta Sein taldearen babesletzarekin eta laguntzarekin abian den bosgarren Danbaka musika lehiaketan.

Urtarrilaren 13an jokatu den finalaren aurretik, bost kanporaketa izango dira –urriaren 14an jokatu zen lehenengoa–, eta gaur, 21:30ean hasita, taularen gainean euren onena emateko aukera izango dute Bergarako Eyharts bikoteak, Oñatiko Letagin eta Inguma taldeek eta Arrasateko 112 izenekoak. Talde bakoitzak ordu erdiko emanaldia egingo du.

Askotariko nahasketa gaur ere Talde egitura eta estilo askotariko doinuen erakusleioa izango da Seminarixoko agertokia gaur ere. Alayn Carazo eta Jokin Guridi bergarrek 2017an sortutako Eyharts izeneko ikus-entzunezko proiektua aurkeztuko dutela azaldu dute. "Sintetizadoreekin eta irudiekin esperimentatzen hasi ginen eta zuzeneko emanaldietara bideratu genuen proiektua gero. Dantza-lekuetarako emanaldiak ziren hastapenekoak, baina, hainbat estilorekin jolasten ibili ondoren, ambient eta trip-hop kutsuko

SARRERA ARRUNTA, LAU EUROTAN, GOIENA APP-A DUTENEK, BI EUROTAN ETA DOAN, GOIENAKIDEENTZAKO

emanaldiak egiten ditugu azkenaldian".

Bergarako bikoteak izan du aurrez Seminarixoko agertokira igotzeko hainbat aukera, baina estreinako izango da Arrasateko 112 taldearentzako. Punk-rock "lotsagabea" eskaintzera doazela diote. "Los WCren errautsetatik sortu dugu, aurtan, 112 laukotea. Mundua pikutara doala argi dago, eta gizartea da horren eragilea eta konplizea. Begiak zabalteko asmoarekin sortu dugu 112".

Oñatiko bi musika proiektuk osatuko dute lehiakideen zerren-

KONTZERTU GUZTIAK GRABATU EGITEN DIRA GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN ESKAINTZEKO GERO

da: Letagin eta Inguma taldeek, hain zuzen ere. "Pandemian batu ginen lau gazte, oi! musikarekiko genuen zaletasunari eutsiz eta ihesbide moduan gure kantak egiteko gogoz. Pottoko Studioan grabatu genuen, iaz, martxoan argitaratu dugun *Buruaz beste* lana. Boskotea gara egun, Pablo Elkoroiribe gitarrak-jole bergarra taldera batu berri". Eskarmentua duten Julen Agirre, Unai Lete, Mikel Aginagalde eta Iban Idigoras dira, berriz, Letagin, eta rock-and-rolla egiten dute. "2018an abiatutako proiektua da eta 2020an kaleratu genuen diskoa. Erritmo gogor eta azkarrekin, zuzeneko indartsuak ematea da gure funtsa".

Chill out gunean, DJ BRGSS

Aretoaren kanpoaldean, San Martin plazan, egokituko dute gaur ere chill out gunea, 20:00etatik 01:00etara, eta Sanprubusak eskainiko du taberna zerbitzua. Aretxabaletako Iban Borgas –DJ BRGSS– musikariak girotuko du gune hori; 21:00etatik 21:15era eta 22:45etik 23:00etara saio elektronikoak eskainiko ditu.

Publikoaren botoa

Bideoklipa grabatzeko aukera izango du publikoaren boto gehien jasotzen duenak: "Danbaka.eus" atarian sartu eta bozkatu urtarrilaren 10a aurretik. Pertsona bakoitzeko boto bakarra onartuko da lehiaketa osoan zehar; gainontzekoak baliogabetu egingo dira".

Publikoaren Sariaren sailkapena

- KIIMAK**
Antzuola
Botoen %55,9
- THE CLAYTON**
Aramaio
Botoen %14,3
- KTARSIA**
Bergara-Antzuola
Botoen %12,6
- LEMAK**
Bergara
Botoen %8,7
- JASAN**
Aretxabaleta-Eskoriatza
Botoen %3,5
- AIERT**
Oñati
Botoen %2,4
- ETXEPE**
Arrasate
Botoen %0,7
- EYHARTS**
Bergara
Botoen %0,7
- ARRAGOIA**
Bergara
Botoen %0,3
- BALARRASA**
Aramaio-Eskoriatza
Botoen %0,3
- ERROMINTXELAK**
Arrasate
Botoen %0,3
- 112**
Arrasate
Botoen %0,0
- BROKEN LEGACY**
Oñati
Botoen %0,0
- ILUMINATIZZ**
Aretxabaleta-Otxandio
Botoen %0,0
- INGUMA**
Oñati
Botoen %0,0
- ISLABAT**
Bergara-Elgoibar
Botoen %0,0
- LETAGIN**
Oñati
Botoen %0,0
- ORHI**
Bergara
Botoen %0,0
- SINDY BERBENAS**
Arrasate
Botoen %0,0
- SUKENA**
Oñati
Botoen %0,0

BOTOA EMATEKO

Danbaka.eus webgunean edo Goiena.eus webgunearen Danbaka izeneko kanalean eman daiteke botoa, **2023ko urtarrilaren 10era bitartean.**

Euskal dantzarien txapel preziatua, bigarrenenez

Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo bergararrek irabazi zuten, zapatuan, Segurako Baratze pilotalekuan jokatu zuten 46. Euskal Herriko Dantza Txapelketa; hiru alditan parte hartu dute sariketa horretan eta bigarrenenez eskuratu dute garaikur nagusia

Aitziber Aranburuzabala BERGARA
Hamar urte daroate elkarrekin dantza egiten Saioa Galarragak eta Julen Murgiondok, eta zapatuan argi erakutsi zuten elkarrekiko duten konplizitatea eta dantzan batera egiteko tre-bezia; izan ere, aurrez aurre azken hilabetean entsegurik egin barik aurkeztu ziren sariketara, eta, hala ere, Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarreko trofeoa, 800 euro eta oroigarria eskuratu zituen Bergarako bikoteak. "Polonian ari da Julen ikasten gaur egun, unibertsitateko Erasmus programan, baina txapelketara etorri nahi izan zuen; bada, zapatuan etorri zen Euskal Herrira, espresuki Seguran dantza egitera", azaldu du Galarragak.

Urtean zehar txapelketa askotan parte hartu dute, baina Segurako sariketarako bakoitzak bere kabuz praktikatu behar izan duela kontatu zuen Murgiondok astelehen goizean Euskadi Irratian egin zioten elkarriketan. "Aurrealdean ibili gara urtean zehar aurkeztu garen txapelketetan, baina sorpresa izan zen Segurakoa irabaztea. Bakoitzak bere aldetik egin ditu prestaketa lanak; batez ere, arlo fisikoa landuta. Ez genuen espresuki Segurarako



Julen Murgiondo eta Saioa Galarraga lehen sariarekin. DANTZA SUELTOA

dantzarik prestatu, aurtengo beste txapelketa batzuetan egin dugun dantza bera aurkeztu genuen, gustura sentitzen gare-lako pieza horrekin eta denetarik duelako".

Ospakizunetarako astirik ez

Apenas izan zuten ospatzeko aukerarik; izan ere, biharamun goizean, Poloniarako bidea hartu zuen Murgiondok. "Afarria egin genuen han, baina ezin askorik luzatu, domekan 07:00etan Loiuako aireportuan egon beharra nuen eta, Poloniarara itzultze-

ko". Aitona-amonek oparitu zioten hegaldia, eta, hori eskertzeko, trofeoa haiei eskaini zieten Murgiondok eta Galarragak.

Gipuzkoako onenaren saria

Bizkaiko eta Gipuzkoako bederatzi bikotek hartu zuten parte, eta, sari nagusiaz gainera, Gipuzkoako bikote onenaren saria ere Bergarakoek eskuratu zuten, 74 puntu batuta, eta iazko irabazle izan ziren Lezoko Maren Galvezi eta Sopelako Gorka Granadori puntu eta erdi aterata, hain zuzen.

'Blues hotsak' musika jaialdia Soraluzen, azaroaren 17tik 20ra

Motorrak "berotzeko", Steve Krase amerikarra The Travellin' Brothers taldearekin izango da domekan

A. Aranburuzabala ARRASATE
Soraluzeke Errabal elkarrekin laugarrenez antolatu duen *Blues hotsak* jaialdian, euskal zein nazioarteko musikarien kontzertuak izango dira Soraluzeke Herriko Antzokian. Goienakideek

sarreraren zozketan parte hartzeko aukera izango dute, ohiko bideak erabilita.

Azaroaren 17an abiatu eta 20ra bitartean, blues estiloko artisten eta zaleen topagune izango da Soraluze. "Azaroaren 19an, iaz

osasan kontuengatik bertan behera geratu zen Niko Etxart eta Hapa-Hapa taldearen emanaldia berreskuratuko dugu; bezperarako, Arrasaten jaiotako Itziar Yagüe Paul San Martinek batera gonbidatu ditugu; eta azaroaren 20an, Carlton Jumer Smith abeslari, konpositore, ekoizle eta aktorea. Motorrak berotzeko, etzi, Steve Krase amerikarra The Travellin' Brothers taldearekin batera izango da, 19:00etan hasita, Herriko Antzokian", diote antolatzaileek.

Goienakideen txokoa

URRIKO SARIAK

Tableta

'InnJoo Superb' tableta

Parte hartzeko sariaren izena: Tableta

EROSKI
AFRASATE



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
OSTATIKO SARRAK

www.harremanideak.org
Bilatu: Berritar' Saria produktuak

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen LEPOI 15/1000 legearen arabera jabearen izena da eta pertsona bati Goiena Komunikazio Zerbitzuaren bitartez automatizatu baten bidez ematen da. Datu-bilketa honen helburu bakarra datuaren dagoen sustapenean gaituztea da. Eskubidea izango duzu datuak ezabatu, hain zuzentze edo ezabatu, helbide horietan datuak: goienakide@goiena.eus

Realaren eta Valentziaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Valladolid partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeraturako beste lagun batek. Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Azaroaren 6an, domeka, 16:15etan.

Parte hartzeko azken eguna: azaroaren 14

Irabazi bi lagunendako otordua

ETXEAUNDI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkarike Otorduan atala eta hartu partel

Parte hartzeko azken eguna: azaroak 2.



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



"Goiena app"-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 15 €
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

ESKER ONA

Rufina Elorza Leturia



2022ko urriaren 21ean hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, urriaren 29an, 19:00etan, Oñatiko Agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2022ko urriaren 28an.

ESKER ONA



Rosario Garitano Alberdi



Fernando Azkarateren alarguna

2022ko urriaren 23an hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Azaroaren 13an, igandea, Rosarioren aldeko meza egingo da Antzuolan, Errukizko Amaren parrokian, 11:00etan. Bertaratuko zaretenoi, aurrez eskerrik asko.

Bergaran-Antzuolan, 2022ko urriaren 28an.

ESKER ONA



Mertxe Urbina Lagos



2022ko urriaren 26an hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2022ko urriaren 28an.

URTEURRENA



Kepa Jauregi Olabe



2014ko urriaren 28an hil zen.

Zortzigarren urteurreneko meza gaur, egubakoitza, izango da, 19:00etan, Aretxabaletako Jasokundeko Amaren parrokian.

Zein amets politta zurekin bizi izana orain hegan zoaz, Kepa maitea baina gurekin egongo zara ametsik ederrenean.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Aretxabaletan, 2022ko urriaren 28an.

HILETA

Isabel Sagasta Eguidon



Fernando Aranbarren alarguna

2022ko urriaren 27an hil zen, 91 urte zituela.

Seme-alabak: Arrate, Eli, Maite, Javier, Jose Ramon, Jose Luis. Suihak, errainak, bilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako senideak.

Haren aldeko hileta-elizkizuna bihar izango da, zapatua, urriak 29, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian. Etorriko zaretenoi, bihotzez aurrez eskerrak familiaren izenean.

Familiak San Felipe beilatokian (Ignacio Zuloaga, 2) hartuko zaituzte, gaur, egubakoitza, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak guran izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

HILDAKOAK

- Mari Carmen Lapitz Rios.** Bergaran, urriaren 15ean. 88 urte.
M. Victoria Arizmendi Azpiazu. Bergaran, hilaren 15ean. 98 urte.
Daniel Manzanos Vallejo. Arrasaten, urriaren 16an. 76 urte.
Alvaro Sanz Gonzalez. Arrasaten, urriaren 16an. 28 urte.
Ricardo Segura Errasti. Aretxabaletan, urriaren 17an. 90 urte.
Francisca Flores Blanco. Arrasaten, urriaren 18an. 64 urte.
Juana Korta Oiarbide. Arrasaten, urriaren 18an. 92 urte.
Elisabeth Mendizabal Agirre. Arrasaten, urriaren 19an. 92 urte.
Itziar Villar Urzelai. Arrasaten, urriaren 19an. 88 urte.
Tere Conde Ruiz de Loizaga. Bergaran, urriaren 20an. 91 urte.
Rufina Elorza Leturia. Oñatin, urriaren 21ean. 90 urte.
Creusa Maria Ferreira Lima. Oñatin, urriaren 21ean. 91 urte.
Marisa Trojaola Markaide. Arrasaten, urriaren 22an. 93 urte.
Jose Manuel Pildain Elkorobarrutia. Oñatin, urriaren 22an. 71 urte.
Rosario Garitano Alberdi. Bergaran, urriaren 23an. 90 urte.
Juan Roque Irizar Unamuno. Bergaran, urriaren 23an. 69 urte.
Maria Blanco Guilas. Bergaran, urriaren 23an. 79 urte.
Kontxi Etxeberria Aiausti. Bergaran, urriaren 23an. 95 urte.
Jesus Mari Arrokalde Villar. Oñatin, urriaren 23an. 64 urte.
Maria Rosario Uriarte Ugarte. Oñatin, urriaren 23an. 92 urte.
Jose Luis Aranburuzabala Azkarraga. Arrasaten, urriaren 24an. 74 urte.
Jose Bermejo Mateos. Eskoriatzan, urriaren 25ean. 92 urte.
Rafael Alzelai Zubia. Oñatin, urriaren 25ean. 72 urte.
Mertxe Urbina Lagos. Bergaran, urriaren 26an. 91 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 28 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Zapatua, 29 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

Domeka, 30 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

Astelehena, 31 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 76 16 30

Martitzena, 1 AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15

Eguaztena, 2 JUNCAY: Iturriotz 17 / 943 79 79 99

Eguena, 3 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 28 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Zapatua, 29 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Domeka, 30 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Astelehena, 31 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05

Martitzena, 1 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Eguaztena, 2 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Eguena, 3 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 28 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Zapatua, 29 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Domeka, 30 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Astelehena, 31 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

Martitzena, 1 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Eguaztena, 2 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Eguena, 3 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2022 bukatu arte: AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2022 osoan: URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otarola Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

BERRI-ZAKUA

**Mendizaletasuna programa**

Bergarako Aranzadi ikastolako, San Martin ikastetxeako eta Mariaren Lagundiko LHko 1. eta 2. mailetako ikasleak eta euren gurasoak Bergarako mendietan ibili ziren, Pol Pol Mendizale taldeak gidatuta. 170 bat lagun ibili ziren goiz-pasa.

Kurtzetxikira

Arrasateko Helduen Eskolako ikasleak eta irakasleak Kurtzetxikira joan ziren aurreko martitzenean. Talde bat goizean eta beste bat arratsaldean. Ikasitako abestiak eta euskara praktikatzeko baliatu zuten, Euskaraldiaren baitan.

Bisita Arrasatera

Gipuzkoako Euzko Gaztedi-EGlko hainbat kide Arrasaten egon ziren aurreko asteburuan. Maribel Vaquero senataria eta Jonan Fernandez Lehendakartzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkaria egon ziren gazteekin.

Moda desfilea

Ehungintza jasangarria moda desfilea egin zuten Bergaran aurrekoan, Laboratorium museoan. Ehungintzak herrian izan duen pisua erakusteko egin zuten. Evlox enpresak egindako ehunekin Kotoi diseinatzaileek sortutako jantziak erakutsi zituzten.

**Kontatu, kontatu!**

Badaukazu ezkontzaren berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

**Bihar ezkontuko dira**

Aitziber eta Raul Oñatin ezkontuko dira bihar. "Zorionak, bikote, gozatu biharko eguna! Segi zoriontsu izaten. Patxo bana familiaren eta lagunren partetik!"

60 urte ezkontuta

Maritxu Markiegi eta Daniel Elkoroberezibar bergararrak duela 60 urte ezkontu ziren, urriaren 31 baten. "Zorionak! Badira 60 udazken egun hartatik. Primeran ospatuko dugu denok batera. Segi zoriontsu izaten".



Harremanak estutzeko

Auzo berria da Elorreta, Eskoriatzako herrigunetik Bolibar elizaterako bidean dagoena. Auzotarrek elkar hobeto ezagutzeko, jaiak ospatu zituzten aurreko asteburuan, adin guztietakoei zuzendutako ekintzekin. Umeendako jolasak, auzo bazkaria eta rock kontzertua, besteak beste.



Finalista Eguna

Gipuzkoako Eskola Kirolak mendizaletasuna sustatzen du 6 urtetik gorakoan artean, Eskolarteko Mendi Lehiaketa antolatuta. Finalista Eguna izaten da lehen hitzordua. Oraingoa, Aloña Mendik eta Oñatiko Eskola Kirolak antolatutakoa. 700dik gora mendizale elkartu ziren aurreko domekan Oñatin.



2023kora begira

Eskoriatzako mendi bizikleta martxa egin zuten aurreko domekan: EskoXtreme. 300 ziklista inguru batu ziren, eta gozatu ederra hartu. Arazo eta ezusteko barik egin zuten proba. Parte-hartzaileek ez zuten minik hartu. Dagoeneko hasi dira hurrengo urtekoari buelta batzuk ematen.

ZORION AGURRAK




ARRASATE
Aaron Fernandez Jimenez
Azaroaren 2an, 8 urte. Zorionak, Aaron! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Patxo handi bat familia osoaren partetik!




ARRASATE
Martin Abarrategi Segura
Azaroaren 2an, 10 urte. Zorionak, mutiko handi! 10 urte gure etxeko txikiak. Jarraitu beti bezain jator, hizlari eta zoriontsu! Askok gurotzugu!



BERGARA
Eider Leturia Zurutuza
Azaroaren 1ean, 5 urte. Zorionak! Primeran ospatu urtebetetze eguna! Besarkada bat maitxe zaitxugun danon partetik.




ARRASATE
Niko Arambarri Foronda
Azaroaren 1ean, 3 urte. Zorionak, politx hori! Zenbat maite zaitxugun. Patxo haundi bat familia danaren partetik!



ARRASATE
Saioa Bergaretxe Astigarraga
Urriaren 30ean, 11 urte. Zorionak, polit hori. Ondo pasatu egun berezi hau. Besarkada handi bat: aittitte, aitaxo, Arrate eta amatxo.



OÑATI
Elene Zumalde
Urriaren 30ean, 2 urte. Zorionak, polit hori! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta segi orain arte bezain zoriontsu! Muxu handi bat familia guztiaren partetik!



ARAMAIO
Amets Beitia
Urriaren 29an, 10 urte. Zorionak, Amets, aitaren, amaren eta amamaren partetik.




OÑATI
Paul Anduaga Arregi
Urriaren 29an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasau eta disfrutau eguna! Patxo bat familixako danon, eta bereziki, Martinen, Maddalenen eta Sararen partetik!



ESKORIATZA
Jabier Etxebarrieta 'Patas' eta Lierni Altuna
Urriaren 29an, 58 urte Patasek eta azaroaren 1ean, Liernik 49 urte. Zorionak, bikote. Pasa ezazue egun zoragarria eta gozatu elkarrekin zuen egunak ospatzen. Besarkada handi bat familiaren partetik.



BERGARA
June Iturrospe Arrondo
Urriaren 28an, 7 urte. Zorionak, June! Ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Muxu bat danon partetik.



OÑATI
Ander Odriozola Larrañaga
Urriaren 28an, 6 urte. Zorionak, Ander! Patxo pila bat etxeko danon partetik. Ondo-ondo pasau zure egunian!



BERGARA
Oihana Olasolo
Urriaren 27an, 39 urte. Zorionak eta urte askotarako. Ondo ospatu zure eguna. Muxu oso indartsua familia osoaren eta, bereziki, Inharren eta Malenen partetik.




BERGARA
Olga Igartua Azpiroz
Urriaren 26an, urtebetetzea. Zorionak, maitte! Egund zoriantsua pasa eta ondo ospatu! Zu eta ni! Maite zaitut! Amatxo.



OÑATI
Martin Madariaga
Urriaren 25ean, 5 urte. Zorionak, txikitxo! Egund polita pasa, maitte zaitxugun danokin!



ARRASATE
Mikel eta Eneko Quintana Rodriguez
Mikelek urriaren 25ean, 4 urte eta Enekok 26ean, 2 urte. Zorionak familiakoen partetik! Muxu potolo bana!



ARRASATE
Oxel Souto Las
Urriaren 24an, 10 urte. Zorionak, txikito! Egund bikaina izan dezazula etxekoan eta lagunaren artean! Muxu potolo bat guztion partetik, bihotza!



ARETXABALETA
Ibai Gallastegi Bengoa
Urriaren 21ean, 10 urte. Mila zorion, maitte, urtebetetze borobil honetan, etxeko danon partetik.



BERGARA
Axier Ilarduia Arteaga
Urriaren 20an, 7 urte. Zorionak, politx hori! Jarraitxu holako xalaua ta goxua izaten! Patxo pila bat familixako danon partetik!



ARETXABALETA
Gari Etxeberria Elortza
Urriaren 20an, 2 urte. Zorionak, bihotza! Ondo-ondo ospatu zure eguna! Askok maitte zaitxugu!



OÑATI
Xabi Soares
Urriaren 20an, 12 urte. Zorionak, Xabi, etxeko danon partetik. Askok disfrutatu zure urtebetetze egunean eta patxo potolo bat!



ARETXABALETA
Lur Pagoaga Urria
Urriaren 18an, urtebete. Zorionak, Lur, zure lehenengo urtebetetzean! Askok maite zaitugu. Patxo potolo bat.



ARAMAIO
Maia eta June Armendariz Eriz
Urriaren 24an, 10 urte. Zorionak, neskak! Eguzkiari 10 buelta eman dizkiozue eta beste pila bat zuekin batera eman nahi ditugu! Belarritik tirakada eta besarkada bero bat!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 28

ESKORIATZA Gaba Baltza:**kalabazak hustu**
Umeendako.*Tortolis ludotekan, 17:00etan.***OÑATI Mendi orientazioan sakontzeko ikastaroa**

Emakumeendako, Patri Espinarrekin. Gaur egingo du lehen saioa.

*Euskaldun Berria gelan, 17:00etan.***OÑATI 'Gizonak feminismorantz'**

Emakumeen Jabetze Eskolaren baitan, Hiruki Larroako kide Joseba Gabilondorekin.

*Kultura etxean, 17:00etan.***ARETXABALETA Gaba Baltza:****'escape room'-a eta tailerrak**
17:15ean, 9-14 urte artekoak; eta 18:15ean eta 19:15ean, 15 urtetik gorakoak. Gainera, umeendako tailerrak egongo dira.*Udaletxe zaharrea.***BERGARA Gau Beltza: gozokien banaketa herriko komertzioetan**

Izara zahararekin egindako mozorroak jantzita, Bedelkarreko komertzioetan.

*Bergaran, 17:00etan.***ELGETA Arimen Gaua**

17:30ean, neska-mutikoendako erronkak, lau taldetan banatuta; 18:30ean, sari banaketa ekitaldia musikarekin eta dantzarekin; 20:30ean, beldurrezko lau ipuin hilerrian, 10 urtetik gorakoendako.

*Elgetan.***BERGARA Gau Beltza: tailerrak**

Umeendako.

*San Martin plazan, 17:30ean.***ARRASATE Julian Conradoren hitzaldia**

Turbacoko (Kolonbia) alkate denak egingo du berba. Ostean, kantaldia egingo du.

*Irati tabernan, 18:00etan.***ARRASATE Gaba Baltza: 'Arimen biltzarra'**

Ilargitxoarekin batera kalejira eta ostean biltzarra.

*Herriko Plazan, 18:00etan.***ARAMAIO Gaba Baltza**

17:00etan, mozorro tailerra; 18:00etan, kaleen apainketa; 18:30ean, umeendako ipuin kontaketa eta antzerkia; eta, 19:30ean, kalejira.

*Aramaion.***ARRASATE Dantzaldi irekia**

Portaloi Elkartearen eskutik, dantzazale guztiendako.

*Kulturolan, 18:30ean.***ESKORIATZA 'Apaiz kartzela' dokumenta, eta solasaldia**

David Pallares, Oier Aranzabal eta Ritxi Lizartza zuzendarien lana. Ostean, azken horrekin eta Xabier Amurizarekin solasaldia. Debalde, edukiera bete arte.

*Zaldibar antzokian, 19:00etan.***ARRASATE 'Txori kanta zalea' errezitaldia pianoarekin**

Alex Gurrutxagarekin eta Joana Otxoa de Alaizaren eskutik, helduendako.

*Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 19:00etan.***ELGETA Euskal dantzak**

Herritar talde baten ekimenez eta Elgetako Udalaren babesarekin.

*Gimnasioan, 19:00etan.***BERGARA Ernai Bergararen aurkezpena**

Irekoa.

*Kartzela zaharrea, 20:00etan.***BERGARA Danbaka lehiaketa**

Eyharts bergararrak, 112 arrasatearrak eta Inguma eta Letagin oñatiarrak oholtza gainean.

Seminarixoa, 21:30ean.

ZAPATUA 29

BERGARA Etxalde bisita eta dastatzea, Pikunieta baserrian

Agroekologia eta Elikaduraren Inguruko Jardunaldien baitan. Izena emateko: 635 20 21 46.

*Pikunieta baserrian, 10:00etan.***ARAMAIO Erretiratuen Eguneko azoka**

Herriko abeltzainen eta artisauen postuak jarriko dituzte.

*Nardeaga kalean, 10:00etan.***BERGARA Gau Beltza**

11:00etan, Fataia dastatzea, Ndank Ndank taldearekin; 18:00etan, musika eskolako talde instrumentalaren eta abesbatzaren emanaldia; eta, 18:30ean, txokolate-jana.

*Bergaran.***OÑATI 'Arantzazuko Santutegia, familian' bisita gidatua**Aurrez eman behar da izena: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus.*Arantzazuko Turismo Bulegoan, 11:00etan.***BERGARA Gau Beltza: tailerrak**

Umeendako.

*San Martin plazan, 11:00etan.***OÑATI 'Arrikruz familian: lehoiaren orroa' bisita gidatua**Gaur, euskaraz. Aurrez eman behar da izena: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus.*Arrikruzten, 12:00etan.***ARAMAIO Herriko artisten margolanen erakusketa**

Urriaren 29an eta 30ean eta azaroaren 4an, 5ean eta 6an egongo da zabalik.

*Sastiñan, 12:00etan.***OÑATI Herrixa Kantuan**

Jose de Azpiazu Musika Eskolako eskutik.

*Foruen plazan, 12:30ean.***ARRASATE 1951n jaiotako kinto ospakizuna**

13:00etan, argazkia Portaloian, eta poteoa; 14:15ean, Hotel Mondragoneko sarreran bigarren argazki ofiziala; 14:30ean bazkaria, eta ostean, dantzaldia.

*Arrasaten.***OÑATI 'Oñati monumentala' bisita gidatua**

Sancti Spiritus unibertsitatea eta Oñati erdigunea ezagutzeko aukera. Izena emateko: 943-78 34 53.

*Turismo Bulegoan, 13:00etan.***OÑATI 'Bizi pottoka familian'**Izena emateko aukerak: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus.*Pottokalekun, 16:00etan.*

GOIENA

ARETXABALETA Batukada Aratzekoen eskutik

Nire erara bizitzeko erronka leloa duen Atzegiko kanpainari hasiera emateko, batukada doinuekin beteko dituzte kaleak. Aniztasun funtzionala dutenak jendarteko eragile esanguratsu izan daitezkeela erakutsi gura dute.

*Bihar, zapatua, Aretxabaletako kaleetan, 19:00etan.***OÑATI 'Lehoiaren bila Oñatin' bisita gidatua**Gaur, euskaraz. Aurrez eman behar da izena: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus.*Arrikruzten, 16:30ean.***ARRASATE Gaba Baltza: zentzumenen gela eta ihes bidea**

Bidaiariaren azken hatsa eta Lehen eta azken parada.

*Tren geltoki zaharrea, 18:00etan.***BERGARA Organo kontzertua**

Azpeitiko eta Bergarako organo ikasleen kontzertua.

*Santa Marinan, 20:00etan.***ESKORIATZA 'The hunt' pelikula**

Beldurrezkoa. Debalde.

*Zaldibar antzokian, 22:00etan.***BERGARA Agresion Verbal, Ixysiroi eta DJ Beni taldeak**

Debalde.

Kartzela zaharrea, 22:30ean.

DOMEKA 30

ARETXABALETA Eskolarteko IV. boulder ligaxka

Alebinak, infantilak eta kadeteak.

*Kiroldegian, 09:30ean.***ELGETA Bisita gidatua lubakietara**Izena emateko: 943-79 64 63 edo turismo@debagoiena.eus.*Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.***OÑATI 'Arantzazuko Santutegia' bisita gidatua**

10:30ean, euskaraz, eta 12:30ean, gazteleraz. Izenak: 943-79 64 63.

*Arantzazuko Turismo Bulegoan.***OÑATI 'Arantzazuko altxorren bila, Parketxetik' bisita gidatua**Aurrez eman behar da izena: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus.*Parketxean, 11:00etan.***OÑATI 'Orientazio jolasak, familian'**Izenak: 943-78 28 94 edo arantzazu@gipuzkoanatura.eus.*Parketxea, Oñati 11:00etan.***OÑATI 'Bizi pottoka familian' ekintza**Izena emateko: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus.*Pottokalekun, 11:00etan.***OÑATI Lezesarriko kofradiaren batzarra, eta meza**

Ostean, luntxa.

*San Esteban ermitan, 11:45ean.***OÑATI Pasadena taldea**

Libe Garcia de Kortazar eta Jon Basaguren musikariak oholtza gainean.

*Gaztelekuan, 12:00etan.***OÑATI 'Oñati monumentala' bisita gidatua**

Sancti Spiritus unibertsitatea eta Oñati erdigunea ezagutzeko aukera.

Izena emateko: 943-78 34 53.

Turismo Bulegoan, 13:00etan.

OÑATI 'Arrikrutzeko ilunpeko altxorrak' bisita gidatua (ez dago lekurik)

Beteta.
Arrikutzen, 16:30ean.

ESKORIATZA Izar konstelazioak eta zeru behaketa

Oñatiko Iltargi astronomia taldearekin.
Zaldibar antzokian, 17:00etan.

ARRASATE Gaba Baltza: zentzumenen gela eta ihes bidea

Bidaiariaren azken hatsa eta Lehen eta azken parada.
Tren geltoki zaharrean, 18:00etan.

ARETXABALETA Gaba Baltza gaztelekuan

18:30ean, elkartzeko ordua;
18:45ean, kukumarro tailerra;
20:00etan, afaria; eta 22:30ean, arimen biltzarra.
Gaztelekuan.

ELGETA Herrixa Dantzan

Jendaurreko aurkezpen ofiziala.
Espaloian, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Minus ukittua' bakarriketa

Telmo Irureta aktore zumaiarraren lana. Sarrerak, bost euro.
Arkupen, 19:00etan.

ARAMAIO Zinema emanaldia

Pelikula fantastiko bat emango dute.
Kultura etxean, 19:30ean.

ASTELEHENA 31**ELGETA Erretiratuak, Gernikako azokara**

Urriko azken azoka ikustera.
Mendizaleen Plazan, 09:15ean.

OÑATI 'Arantzazu Santutegia' bisita gidatua

10:30ean, euskaraz, eta 12:30ean, gazteleraz. Izenak emateko: 943-79 64 63.
Arantzazuko Turismo Bulegoan, 10:30ean.

LEINTZ GATZAGA 'Gatz Museoa, familian' bisita gidatua

12:00etan, euskaraz, eta 13:00etan, gazteleraz. Izenak

emateko: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus.
Gatz museoa.

OÑATI 'Oñati monumentala' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta Oñati erdigunea ezagutzeko. Izenak emateko: 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 13:00etan.

ESKORIATZA Gaba Baltza

3-7 urte artekoendako: 17:30ean, eskean unibertsitatetik plazara gurasoekin; eta, 18:30ean, eskulanak. 8-12 urte artekoendako: ibilbide beldurgarria. Denondako: 19:15ean, kalejira; 19:30ean, beldurak sutara bota; eta, 19:30ean, euskal dantzak.
Eskoriatzan.

BERGARA Gau Beltza

18:00etatik 20:00etara, Beldurraren etxea, LHko 4. eta 6. maila artekoendako, seiko taldetan; 21:00etan, Bautista legenardunaren bisita gidatua, euskaraz, debalde; eta, 23:00etan, Bautista legenardunaren bisita gidatua, gazteleraz, debalde.
Bergaran.

ARETXABALETA Gaba Baltza

Herria apaintzea, kale-eskea, eta ekitaldia.
Aretxabaletan, 18:00etan.

MARTITZENA 1**OÑATI 'Arantzazu Santutegia' bisita gidatua**

10:30ean, euskaraz, eta 12:30ean, gazteleraz. Izenak: 943-79 64 63.
Arantzazuko Turismo Bulegoan, 10:30ean.

BERGARA 'Laboratorium Museoa, familian' bisita gidatua

Gaur, euskaraz. Aurrez eman behar da izena: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus.
Laboratoriumen, 11:00etan.

OÑATI 'Arrikrutz familian: lehoiaren orroa' bisita gidatua

Gaur, gazteleraz. Aurrez eman behar da izena: 943-79 64 63 edo infoturismo@debagoiena.eus.
Arrikutzen, 12:00etan.

OÑATI 'Oñati monumentala' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea eta Oñati erdigunea ezagutzeko aukera. Izenak emateko: 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 13:00etan.

OÑATI 'Lehoiaren bila Oñatin' bisita gidatua

Gaur, gazteleraz. Izenak emateko: 943-79 64 63.
Arrikutzen, 16:30ean.

EGUAZTENA 2**BERGARA 'Elektromobilitatea automozioan' hitzaldia**

Lazpiur enpresako zuzendari exekutibo Ander Aranburuk egingo du berba.
Seminarixoa, 10:00etan.

OÑATI Hezkuntza Legeari buruzko hitzaldia

Ikoitz Arresek eta Nora Salbotxek egingo dute berba, Oñatiko EH Bilduk gonbidatuta.
Santa Ana antzokian, 18:30ean.

BERGARA 'Tenéis que venir a verla' pelikula

Jatorrizko bertsoian eta azpitiituekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoa, 20:00etan.

EGUENA 3**ELGETA 'Erresidentzien eredu berria eta etxeko laguntza' hitzaldia**

Gizarte politiketako diputatu Maite Peñak egingo du berba Elgetako EAJk gonbidatuta.
Udaletxean, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Errekak bizi' ikus-entzunezkoa

Deba ibaiaren eta haren adarren gaineko historia.
Arkupen, 18:30ean.

BERGARA 'Trabajos de interior' antzezlan

Bebih's Teatroyen lana, Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen XVI. Mostraren baitan. Patricia Franco aktorea oholtza gainean.
Seminarixoa, 20:00etan.

ZINEMA**ARRASATE**

AMAI ANTZOKIA
En los márgenes
Domeka eta astelehena: 19:30.

Los buscamundos
Domeka: 17:00.
Ninjababy
Azaroak 1: 19:30.

BERGARA**SEMINARIXOA**

El vasco
Domeka eta astelehena: 19:30.
Tadeo Jones 3
Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

El vasco
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

Bonie bears
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR**COLISEO**

Black Adam
Zapatua: 17:00, 19:45
Domeka: 17:00.

La chica salvaje
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Un año, una noche
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ**BOULEVARD**

El cuarto pasajero
Eguakoitzetik martitzenara: 16:10, 18:20, 20:30, 22:40.
Egunero: 17:10, 19:20, 21:30.
Eguaztena eta eguena: 20:25.

Amsterdam
Egunero, martitena izan ezik: 16:20, 19:05, 21:50.
Martitena: 16:20, 19:05.
Joker
Egunero: 22:30.

Modelo 77
Egubakoitza, domeka, astelehena eta martitena: 22:30.

Smile
Zapatua: 17:05, 19:30, 22:00.
Egubakoitza, domeka, astelehena eta martitena: 17:05, 19:30, 22:00.
Eguaztena eta eguena: 17:05, 19:30.

El vasco
Eguaztena eta eguena: 22:00.

Black Adam
Egubakoitza, domeka, astelehena eta martitena: 15:50, 18:30, 21:10.
Egunero, martitena izan ezik: 17:00, 19:40, 22:20.
Martitena: 17:00, 19:40.

Los renglones torcidos de Dios
Zapatua, eguaztena eta eguena: 20:15, 21:55.
Egubakoitza, domeka, astelehena eta martitena: 15:45, 18:50, 21:55.

Halloween ends
Zapatua: 18:05, 20:25, 22:45.

Eguaztena eta eguena: 18:05, 22:40.
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 18:05, 20:25, 22:45.

Mira como corren

Egubakoitza, domeka, astelehena eta eguaztena: 20:15.
Eguena: 17:00.

Lilo, mi amigo el cocodrilo

Egubakoitza, domeka, astelehena eta martitena: 15:45, 18:00, 20:15.
Zapatua, eguaztena eta eguena: 15:45, 18:00, 20:15.

Tadeo Jones 3
Egunero: 15:55, 17:55.

En los márgenes
Domeka eta eguaztena: 21:55.

Cerdita
Egubakoitza eta astelehena: 21:55.

KRITIKA**Un año, una noche**

Zuz.: Isaki Lacuesta. Herr.: Espainia (2022). Aktoreak: Nahuel Perez, Inoemi Merlant, Quim Gutiérrez. Iraupena: 120 minutu. ★★★★★

Asimilazio prozesua**ANTONIO ZABALA**

2015eko azaroaren 13an, Parisen kokatutako Bataclan aretoan 89 pertsona erail zituzten, atentatu terrorista batean. *Un año, una noche* filmean, gau hartan gertatutakoa erakusten digu Isaki Lacuestak. Baina, momentua zehaztasunez eta detalle osoz kontatzeaz harago, garrantzi handiagoa ematen dio handik bizirik irten zirenengan izandako eraginaren azalpenari. Istorioaren protagonistak Celine eta Ramon dira. Bikotea. Gau hartan Bataclanen zeuden eta handik bizirik irten ziren. Handik aurrera, bizitza zeharo aldatu zitzaizen. Pertsona bakoitzak bere nortasuna du, eta muturreko egoera baten aurrean erantzuteko modu ezberdinak

ditugu; bikote honen kasuan, ia-ia kontrako moduak. Urtebetez pertsona horien ibilbide emozionala eta asimilazio-prozesua jarraituko dugu. Bataclanen gertatutakoa, istorioan tartekatua, *flashback*-en bitartez heltzen zaigu. Pertsonaie eguneroko bizitzan bat-batean burura etortzen zaizkien sarraski eguneko irudiak izango dira gure informazioa. Filmaren egitura nahasia da, muntaiaren bitartez pertsonaiek sentitzen duten bakardadea, nahasketa eta blokeo emozionala azaltzen zaigulako. Muntaiarekin batera, pertsonaien planoek, kameraren mugimenduek, soinuaren erabilerak eta aktoreen interpretazio ederrek pertsonaien labirinto emozionalean sartzen gaituzte.



AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

Ogia

Herriko beti-betiko dendetxoak, tabernatxoak... behin betiko pertsiana jaisten duen horretan, bakoitzari, izandako gertukotasun, bizipen eta abarren arabera, eragingo digu zirrara handiagoa edo txikiagoa. Baina nago okindegi bat ixten denean zerbait badela zirrara hori areagotzen duena. Zer ote? Ogia delako? Egunerokoa delako? Duen sinbolismo guztiagatik?

Eguneroko ogia; Besapean ogia dakarren umea; Ogiaren eta arrainen

miraria... Etimologiari erreparatuz gero ere ikusiko dugu gaztelarazko *pan* horrek grezian duela jatorria; hitz horrek, aipatu hizkuntzan, *guztia* esan nahi duela.

Arrazioak arrazio, kontua da gurean ere belaunaldi ezberdinek ezagutu dituzten okindegi kuttun askoak badoazela pertsiana ixten. Asteon jakin dut nik, harakinarenean, ilaran zain nengoela, bezero batek okindegia ixtekotan direla harakinari esan dionean. Harakinaren erantzuna eskuan zeraman aitzoa bezain zorrotza izan da: "Geuk horrela nahi dugulako".

Entzundakoa da, eta, azkenean, horrela bada, Mikeleri eta bere etxekoei, egindako lanagatik herritar gisa, esker ona adierazi besterik ez.

GOIENA OKM GIDA

"Bezeroak gustura joatea nahi izaten dut"

ANE MIREN BEITIA ANE MERTZERIA

Beitiak dioenez, haurrak janzteko estiloa aldatu egin da eta bezeroak kontzienteagoak dira arropa erosteko orduan, jasagarritasunaren aldeko apustua egiten baitute

Idoia Aranbarri Arzuaga OÑATI

1980an zabaldu zuen Ane Mertzzeria Ane Miren Beitiaren amak, Oñatin. Dendan laguntzen hasi bazen ere, ama jubilatuz zenean, negozioarekin jarraitu eta lokala handitu zuen. Duela 12 urte, senar Ricardo Dominguez ere dendan hasi zen lanean. Denerarik saltzen dute: mertzeriako produktuak, lenteria nahiz haurren arropa.

Amaren bidea jarraitu nahi zenuen?

Ez, beste zerbait egin nahi nuen, zer ez dakit, baina beste nonbait nahi nuen lan egin. Lehen, ezetz esaten nuen, baina, azkenean, hemen amaitu nuen. Hala ere, gustura nago hemen lanean.

Noiz hasi zinen lanean?

1996tik ari naiz kotizatzen. Dena den, lehenago, amari laguntzen nion. Betidanik Oñatiko Kale Barria kalean izan dugu denda. Hasieran, txiki-txikia zen lokala; gaur egungoaren erdia. Amak kaxak zituen leku guztietan. Nik hartu nuenean, denda berean jarraitu nuen, baina, ondoko lokala hutsik geratu zenean, neuk erosi eta denda handitu nuen.

Haurren arropa saltzen duen bakarra zara Oñatin?

Bai. Haurren jantziak soilik saltzen dituzten dendak egon dira



Ane Miren Beitia, Ane Mertzzeria, astelehenean egindako elkarrizketan. I.A.A.

Probatzea, urrezko erregela

"Bularretako neurriarekin asmatzeko ezagutzen ditugun arauak badaude: bular-ingurua neurtzea, kopa... Baina nik nahiago dut bezeroek probatzea. Garrantzitsua da barruko arropa erosi aurretik probatzea gustura eta eroso joateko. Modeloaren arabera ezaugarriak aldatu egiten dira. Hobeto da probatzea, eta horren arabera, eroso geratuko zaizun titi-zorroaren neurria jakitea. Zure gorputzean ikusten duzu nola geratzen den, ze materiala den...".

hemen, baina itxi egin dituzte. Iruditzen zait Oñati ez dela herri bat soilik haurren jantziak saltzen dituen denda bat zabaltzeko. Nik gauza gehiago badauzkat, eta, tira... Gauza bat ez bada, beste bat erosten didate.

Haurrak janzteko estiloa aldatu egin da.

Duda barik. Ez da arrosa eta urdin koloreetara mugatzen. Bezeroek edozein kolore nahi dute txikiendako. Estiloa ere aldatu da, eta denetik saltzen dugu. Hori bai, estiloa eskandinaviarragoa da. Arropa erostekoan, herritarrak kontzienteago dira; kotoiaren nahiz jasagarritasunaren aldeko apustua egiten dute.

Lentzeriari dagokionez, debagoien-darrak klasikoak dira?

Bai; gehienbat, klasikoa saltzen dugu. Batik bat, gizezkoena. Emakumeendako, ausartagoa den lenteria ere badaukagu.

Zeintzuk dira zure bezeroak?

Emakumeak dira gehienak, baina geroz eta gizon gehiago etortzen dira, haurrendako arropak eta euren barruko arropa erostera.

Lanaren alderik onena?

Garrantzitsuena da bezeroekin daukadan tratua. Eurak dendatik gustura ateratzea nahi izaten dut, eta gustatuko zaizkien produktuak ekartzen saiatzen naiz. **Denbora librean zer egiten duzu?** Paseatzea eta irakurtzea asko gustatzen zait. Ortura ere joaten naiz, baina ez naiz lanean aritzen. Hantxe egoten naiz, begira eta haizea hartzen.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

ttap

Irakurri, ukitu,
ikus, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala
zure mugikorrean

ASTE HONETAN

Usainak
eta
lurrinak

